

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-07-09
ASTELEHENA
372. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



AMAIA OTADUI

"Zentralean edozer gauza pasatuz gero, ezin izango ginatke etxera itzuli"

Amaia Otadui | Garoña ondoan bizi da

Bi mila eurotik gora batu dituzte esklerosi anizkoitzaren alde | 4



Labegarrietako 25. txapelketa Akabaoak taldearendako | 26



Bergarako San Pedro elizako kanpaien atzean, bitxikeria ugari | 11

Mikel Aristi, gutxigatik

Amateur mailako lehenengo urtean, ziklista bergararrak metro bateko aldeetatik ez zuen atzo Antzuolako Saria irabazi; Jon Ander Insausti azkarragoa izan zen esprintean | 24



Antzuolako Sariko azken metroetako esprintean Insausti besoak jasota, eta Aristi atzean.

JOSETXO ARANTZABAL



Azoka, zapatu goizean. | J. ARANTZABAL

Ekobirak erakutsi du badela kontsumitzeko beste modurik

Kutxa Ekoguneak bultzatutako azoka jasangarriak herritar ugari erakarri zituen zapatuan Bergarako San Martin plazara. Kontsumo jasangarria bultzatzea da azoka ibiltari horren helburua eta zeregin horretan beste kontsumo eredu bat posible dela ikusi ahal izan zuten bertaratutakoek. | 12

Arrasateko harrobiko pertigistek ez dute Espainian kontrariorik

Malen Ruiz de Azuak urrea jantzi zuen atzo Madrilan; Maialen Axpe eguenean lehiatuko da Bartzelonan | 26



Axpe eta Ruiz de Azua, atzo. | J. PEREZ.

%15 eko
deskontua

MULTIOPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan

MULTIOPTICAS
optikaren eskutik

► Zoaz 21. orrialdera.

Soluzioak modu merkean lor ditzakete orain enpresek

- ▶ SPRIk +Innova Txekea delako dirulaguntza programa jarri du abian
- ▶ Garapen Agentziak horren berri emango die enpresei egubakoitzean, hilak 13
- ▶ 2.000, 4.000 edo 6.000 euroko zerbitzua jaso dezakete ETEek, gutxi ordainduta


LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Enpresa txiki eta ertainek produktua, negozio eredua, prozesuak... hobetzeko eta aurrera jarraitzeko laguntza behar izaten dute batzuetan; eta, krisi testuinguruan, are gehiago.

Bada, horien beharrekin pentsatuta, SPRI enpresa publikoak konponbide zehatzak eta azkarrak modu samurrean lor dezaten programa ipini du abian: +Innova Txekea. Programa berria da, eta enpresa txiki, oso txiki eta ertainei aukera bikaina ematen die: hain zuzen, euren burua hobetzeko zerbitzuak modu finantzatua lortzea, bakarrik zerbitzu horren zati bat ordainduta; gainerakoa SPRIk ordaintzen du. 2.000, 4.000 edo 6.000 eurotan baloratutako zerbitzuak lor daitezke, hurrenez hurren 500, 1.000 edo 1.500 euro ordainduta enpresak.

+Innova Txekean parte hartzeko baldintzak hauek dira: hiru langile edo gehiagoko enpresa izatea; ETEa (enpresa txiki edo ertaina) izatea; zorretan edo 2008 baino lehenago krisian egon ez izana; eta honako jardueraren batekoa izatea: enpresa industrial, transformazioko, produktora edo produktu-prozesura bideratuta, Informazio eta Komunikazio Gizarte arloa edo handizkako merkataritza.

Programaren berri zabala emateko jardunaldia antolatu du Mankomunitateko Garapen Agentziak datorren egubakoitzerako, hilak 13. Argibideetarako, Garapen Agentziara deitu, edo SPRIra: 902 70 21 42.



Langilea, makina-erremintarekin jardunean. | CVILLETOMORROW



Cin Advanced Systems-eko Txema Gallego, bulegoan. | LEIRE KORTABARRIA

Pieza baten akatsa konpondu
+Innova Txeke programak bideratzen dituen zerbitzuak katalogo baten batu dituzte: 26 zerbitzu mota dira. Oso zerbitzu zehatzak dira. Garapen Agentziako Amaia Irizarrek hauxe azpimarratzen

du: "Helburua da soluzio konkretuak ematea. Martxan dauden negozioek, bultzada bat behar dutenek, hobetu edo berritu nahi dutenek... aukera ona dute; zerbitzu ona jasoko dute oso prezio txikian. Adibidez: pieza bat egi-

ESANAK

"Helburua da konponbide konkretuak oso denbora txikian ematea"

AMAIA IRIZAR | GARAPEN AGENTZIA

"Baliabide tekniko gutxi duten enpresek interesa izatea espero dugu"

UNAI ZIARSOLO | MIGUEL ALTUNA

enpresei; horietako bat entseguak egiteko aukera da. Institutuko ordezkari Unai Ziarsolok programaren abantailak azpimarratzen ditu: "Guk espero dugu enpresa txiki eta oso txikiek izatea interesa, askotan eurek ez dutelako horrelako gauzak egiteko baliabide teknikorik".

Bestalde, SPRIk bidea ireki du Lanbide Heziketako institutuak zerbitzu teknologikoak enpresei errazago eman diezazkieten.

Ikerlan zentro teknologikoak berrikuntza aukerak identifikatzeko zerbitzuak eskainiko ditu. Ikerlanek esperientzia handia du enpresei aholkularitza ematen: dagoeneko 50 bat diagnosi egin ditu. +Innova Txekearen barruan emango dituen zerbitzuak mota askotako enpresek eska ditzakete: bat produktuarekin lotuta dago; bestea zabalagoa da eta berdin eska dezakete enpresa industrialek, zerbitzuetakoek...

Eragingarriagoak izateko

Arrasateko Cin Advanced Systems enpresa Ingeinnova Taldeko kidea da. Enpresen lehiakortasuna hobetzeko lan egiten du Cin Advanced Systems-ek. Enpresako zuzendariak, Txema Gallegok, azaltzen digu zertan datzan +Innova Txekearen bidez emango duen zerbitzua: "Ekoizpen sistema eragingarriagoa egiten lagunduko diogu enpresari. Ekoizpen-sistema osoari eragiten dioten gakoak identifikatzen eta ekintza-plana egiten lagunduko diogu. Abantaila da sistema oso erraz jarrai dezaketela enpresa txiki eta ertainek, dedikazio txikiarekin".

terakoan beti akatsa ematen badio enpresa bati, enpresa aditu baten aholkularitza jaso dezake. Zerbitzu espezializatuak dira eta benetako premiei erantzungo diete". Zerbitzuak bukatuta egon beharoko lirateke abendurako.

Zerbitzua Debagoienean bertan ere lor daiteke. Izan ere, programaren beste berezitasun bat da beste enpresa eta erakunde batzuek ematen dituztela zerbitzu horiek. Horretarako, homologatu egin dute aurretik SPRIrekin bakoitzak bere eskaintza. Debagoieneko enpresak badaude emailen artean.

Horietako bat Miguel Altuna Institutua da. Bi zerbitzu eskainiko ditu, biak enpresa industrialei, tailerrei eta ekoizpen mekanikoko

2012
2013

OK

Lanerako gertu!

HETEL

CAP LANTZAKO KIDEAK

lanbide

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Oñati gestio heziketa

Matrikula
Uztailaren 5etik aurrera

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

www.mondragon.edu/ogh
info.enpresagintza@mondragon.edu
943 71 80 09

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



Besteak beste, negozio-eredua aztertzeko laguntza jaso dezakete enpresa txiki eta ertainek. | DELL INC.

Industria Sailaren laguntza programak

ETE (PYME) ENPREENDAKO FINANTZAZIO-PROGRAMA

Enpresa txiki eta ertainei bere burua finantzatzen laguntzeko ezohiko programa prestatu du Eusko Jaurlaritzak. Datorren egunean, hilak 12, aurkeztuko dute berau Industria sailburuak, Bernabe Undak, eta Adegia patronalak. Bi neurri hauek dira nagusiak: finantza-erakundeekin hitzarmena, enpresei maileguak emateko: enpresa bakoitzak, gehienez ere, 750.000 euro lortu ahal izango ditu; eta, bigarrena, txoke-abalen dekretu bat, Eusko Jaurlaritzaren eta EAeko aldundien eskutik, 200 milioi euro proiektu berritzaile edo proiektu-traktoreei laguntzeko.

EKINTZAILEEN FOROA

Eusko Jaurlaritzak Enprende 2012 delako ekintzaileen topagunea antolatu du irailaren 12rako, BECen. Enpresa-proiektua hasi duten eta bultzatu nahi dutenei, zein enpresa sortzeko laguntza behar dutenei dago zuzenduta. Helburua hau da: "esperientziak trukatzeko, eskaintza eta eskaria batzea, eta aukerak hurreratzeko".

COMPITE 2012 PROGRAMA

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako enpresei zuzendutako SPRIren laguntza programa da, eta lehiakortasuna hobetzeko proiektuak egiten laguntzea da helburua. Horretarako, kanpo-aholkularitza eta finantzaketa eskaintzen du Compitek. Enpresek banaka edo elkarrekin eska dezakete programa horren laguntza.

E-COMMERCE TXEKEA

+Innova Txekearen antzeko eredua da, baina zehatzagoa: txikizkako komertzioari dago zuzenduta, eta negozio elektronikoaren eredura pasoa ematen laguntzea da helburua. Ez da bakarrik on-line saltzen ikastea; baita Interneten negozioaren baliabideei probetxu handiena ateratzen ikastea ere. Interesa duten merkatariak izena eman dezakete irailaren 7ra arte.

RESISTE PROGRAMA

Zorrik kentzeko arazoak dituzten denetariko enpresei -ETEak, enpresa handiak, autonomoak, komertzioak...- laguntzeko programa da. Finantza-aholkulariak kontratatatzeko laguntza ematen du, negozioaren zorra berregituratzeko.

Lanerako gertu!

OK

2012
2013

GOI MAILAKO
HEZIKETA
ZIKLOAK

Matrikula
zabalik

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
-Ordenagailu eramangarri bat zure esku
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak



www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91





Esklerosi anizkoitzaren aldeko ekimena atzo Oñatiko plazan. | L.Z.



Boluntarioak Arrasaten Musakolako kiroldegiaren atarian. | JOSETXO ARANTZABAL

Esklerosi anizkoitzaren aldeko 'Busti zaitez' kanpainak erantzun ona izan du bai Arrasaten bai Oñatin

Oñatin lehenengo aldiz egin dute sentsibilizazio kanpaina, eta bultzatzaileak oso pozik agertu dira

LARRAITZ ZEBERIO | OÑATI

Esklerosi anizkoitza sendabiderik gabeko gaixotasuna da gaur egun, baina ikertzaileak aurkikuntza oso itxaropentsuak egiten ari dira. Bide horretan jarraitu ahal izateko *Busti zaitez* kanpaina egin zuen atzo, domeka, Gipuzkoako elkarteak.

Mahai informatiboak ez zuen hutsik egin Musakola kiroldegiko atarian. Hamargarren urtez egun osoko jarduna egin zuten elkarte boluntario arrasatear-

rrek, eta bi mila eurotik gora batu zuten. "Emaitza ona da; 2010. urtean 1.900 euro batu genuen, eta gaur gainditu egin dugu marka hori", zioen Emilio boluntarioak. Igerian egitera ere animatu zen jendea Arrasaten. Boluntarioek emandako datuen arabera 23.000 metro egin ziren atzo igerian esklerosi anizkoitzaren alde Musakolan. "Hogei bat lagun aritu gara lanean, baina pena merezi izan du", adierazi zuten boluntarioek.

Oñatin ere gustura

Oñatiko boluntarioak ere pozik agertu ziren jasotako emaitzarekin. "Pentsatu baino emaitza hobekak lortu ditugu", adierazi du Jose Luis Calvok. 11:00ak aldeira ipini zuten informazio mahai Herriko plazako bazter batean eta bazkal ordura arte luzatu zuten informazio eta sentsibilizazio kanpaina. "Jendea hurbildu da informazioa eskatzera, eta batzuk nora jo ere galdetu dute. Eman diegu informazio hori".

Kamiseta salmenta ere ondo joan zela adierazi du Calvok. "Ia guztiak saldu ditugu; 40 bat inguru. Itsulapikoetan ere bota du dirua jendeak". Pozik ziren boluntario oñatiarrak. Herriko plazan egin dute lehenengo kanpaina, baina datorren urterako asmoa da igerileku aurrean ipintzea. "Aurten ekimena ezagutzera ematea zen gure helburua. Datorren urtean jendeak jakingo du nortzuk garen baita zertan edo zeren alde ari garen".



ANTONIO ETA NIEVES
OÑATI

"Gaitza daukat eta asko poztu nintzen Oñatin 'Busti zaitez' kanpainarekin hastekoak zirela jakindakoan", esan digu Nievesek. "Arrasaten eta beste herri batzuetan egiten dute, baina hemen oraindik ez". Oñatiko postura hurbildu eta kamiseta sorta polita erosi zuten. "Arropa oso polita iruditu zaigu, eta guk ere lagundu nahi dugunez, ba etorri egin gara".



IZARO ETA BEÑAT
OÑATI

Txanponak batzea izan zen boluntario gazte horien egitekoa domeka goizean. "Nik informazioa orria banatzen dut", adierazi zuen Beñatek. "Eta nik itsulapikoa erakusten dut laguntza eskatuz", Izarok. Horrela antolatu ziren biak. "Esklerosi anizkoitza gaixotasun bat da. Batzuk badakite zer den, beste batzuk ez", adierazi ziguten.



ISMENE TAPIA
ASTIGARRAGA

"Bagenuen 'Bustiz zaitez' kanpainaren berri, baina ez genekien Oñatin burutuko zutenik. Materiala oso polita dute, eta gainera gure ekarpen txikia egiterik badugu, ba hobeto. Lan asko dute egiteko".

EH Bilduk eta EAJ-k aurkeztu dituzte euren zerrendagaiak

L.Z. | ARRASATE

Jaurlaritzarako hauteskundeetan behar beste boto lortuz gero gobernua osatuko duten EH-Bilduren sailburuen zerrenda eman du jakitera koalizio horrek. Aukera berdintasuna, Beatriz Iardia; Ekonomia eta Ogasuna, Xabier Olano; Elikadura burujabetasuna, Judit Garcia; Herriarren askatasunak, Julen Arzuaga; Hezkuntza, kultura eta kirola, Mariam Bilbatua — Huheziko irakaslea —; Hizkuntza normalizazioa, Iratxe Ibarra; Industria, Sabin Kortabitarte; Ingurumena, Unai Pascual; Osasungintza, Itsaso Bengoetxea; Kanpo harremanak, Jon Etxabe; eta Justizia soziala, Mikel Santiago.

EAJren hiru zerrendak

Jeltzaleek, bestalde, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako zerrendak eman ditu jakitera. Zerrendetako kide dira Maria Eugenia Arrizabalaga —zinegotzia Antzuolan—, Aitor Urrutia —zinegotzia Eskoriatzan—, Ainhoa Galdos —zinegotzia Oñatin—, eta Izaskun Moyua oñatiarra.

Hogei bat lagun Leze Txikiko indusketa kanpaina

L.Z. | ARRASATE

Gaur, astelehena, kanpainako zarpigarren lan eguna izango dute Arrasateko Leze Txikiko. Hogei bat laguneko taldeak dihardu indusketa lanetan, tartean hiru debagoiendar. Alvaro Arrizabalagak adierazi duenez "kobazuloa hedatzen doa, eta beti egiten dira aurkikuntzak". Konturatu dira baita ere neguan bisitariak izan direla kobazuloan, baina esan dutenez ez dute apurkerarik eragin. Kanpaina hilaren 21era arte luzatuko da, eta P mailan jardungo dute lanean, 160.000 urteak gaindituta. Aurkikuntzen aberastasunak finkatuko du indusketen erritmoa.

Diru murrizketak

7.000-8.000 euroko finantzazioa eskatzen dute indusketa lanok, eta aurrekontua, aurten, 4.500 eurokoa da. Bi urtean aurrekontuaren erdia kendu dietela adierazi dute arduradunek. Aurrera egingo dute aurten, baina litekeena da datorren urtean lana murriztu beharra izatea.

- Era guztietako ibilgailuak alokagai.
- Ibilgailua etxeko nahiz lantokiko atarira eramaten dugu.
- Asteburuetan eskaintza bereziak autoetan eta furgonetetan.



Goiena.i-rent
Ibilgailuen alokaria

943 71 66 52 / 619 44 71 75
Zubillaga auzoa 20 1.a ZM5 (Olaburu zentroa) • OÑATI
info.goienarent@i-rent.es • www.irent-central.es/onati

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko
Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA XII. Saiakera saria


antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren
industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 32 65 35
soltxate@pamiela.com
Arauk: www.pamiela.com



2012

Oñatira ere iritsiko da Energiaren Egunen karabana kontzientziatzailea

Alkateen Ituna sinatu zuten udalerrietatik pasako da uztailaren 27ra bitartean; Oñatin uztailaren 16an eta 17an egongo da, egun osoan

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Energiaren Egunen karabana Euskal Autonomia Erkidegoan barrena dabil ekaina ezker. Hala, uztailaren 27ra bitartean Alkateen Ituna sinatu zuten 14 udalerrietatik igaroko da eta bertakoek aukera izango dute ibilgailu elektrikoaren gaineko erakusketa ikusteko eta gidatze ekonomikoari buruzko ikastaroak egiteko; gazteendako jardura ludiko eta hezitzaileak ere egongo dira.

Ekainaren 18tik 22ra erkidegoko hiru hiriburuek Energiaren Europako Astea ospatu zuten, eta horren ondotik hasi zuten Energiaren Euskal Erakundeak bultzatutako Energiaren Egunen karabana ibiltariak herrietako ibilbidea, Alkateen Itunarekin bat egindako herritako ibilbidea, hain zuzen.

Energiaren Egunen karabana helburua da herritarrek aurrezpenaren inguruan eta energia-eraginkortasunaren inguruan kontzientzia hartzea eta inplikazioa. Eta modu horretan CO2



Umeak jolas egiten, Bilbon, Ideien Hodeia eskultura ondoan dutela. | GOIENA

isurpenak %20 txikitzea, eraginkortasun energetikoa %20 handitzea eta energia berriztagarrien erabilpena %20 igotzea.

Ekintza asko egingo dira

Debagoienari dagokionez, Oñatik 2010ean sinatu zuen ituna, eta, ondorioz, horra ere iritsiko da karabana, uztailaren 16an

eta 17an. Foruen plazara iritsiko da eta hainbat ekintza eta ekitaldi egongo dira: bizikletak, ibilgailu elektrikoak eta hibridoak, informazio-gune interaktiboak eta gazteendako bizikleta eta auto zirkuitu puzgarri bana. 11:00etatik 20:00etara egongo dira zabalik horiek guztiak.

Horrez gain, eskariaren arabera, gidatze eraginkorraren gaineko ikastaroak egingo dira. Ikastarootan parte hartzeko interesa izanez gero, doan eman daiteke izena helbide honetan: www.energiarenegunak.com.

Herritarren parte-hartzea

Herritarren parte-hartzea Ideien Hodeia izeneko ekimenarekin osatuko dute. Hau da, lego piezen bidez herritarrek eurek egiten duten tamaina handiko eskultura bat da. Hori horrela, post-it batzuek baliatuta, herritarrek 2012rako dituzten desio iraunkor onenak adieraziko dituzte. Gero, desio eta nahi horiek guztiak www.energiarenegunak.com webgunean argitaratuko dituzte.

Oñatirekin batera honako herrietan sinatu dute Alkateen Ituna: Bilbo, Balmaseda, Portugalete, Areatza, Basauri, Abanto, Donostia, Irun, Usurbil, Tolosa, Amezketa, Hondarribia eta Gasteiz.

Eroskiren autobus osasuntsua abuztuangurera

M.B. | ARRASATE

Eroskiren autobus osasuntsua Debagoienara ere etorriko da, eta herritarren artean modu osasuntsuan jateko eta arduraz kontsumitzeko aholkuak banatuko ditu. Izan ere, kanpaina bati ekin berri dio Eroskik, eta horren ardatza Euskal Herriko eta kanpoko 70 herritik gora zeharkatuko dituen autobusa da.

Euskal Herri osoan ibiliko da eta Castro Urdialesera, Calahorrara eta Miranda de Ebrora ere joango da. Ibilaldia oraingo astean hasi du eta azaroan bukatuko du. Egutegian aldaketak egon daitezke, baina, oraingoz, arduradunek iragarri dute abuztuaren lehen izango dela autobusa Aretxabaletan; 28an, Bergaran; irailaren 20an, Oñatin; eta irailaren 21ean eta 22an, Arrasateko Hiper Eroskin.

Eroskik emandako datuen arabera, esaterako, Euskadin bihotzko gaixotasunak gero eta zabalduago daude; eta Espainiak ditu ume-loditasun indize handienetakoak. AEBetakoak baino handiagoak.

Natur udalekuak egingo ditu Arimendik uztailaren 11tik 13ra

"Mendi ibilaldia inguruko bioeraikuntza ezagutzeko, eguzki sukalde baten eraikuntza, margo naturalak egin eta baserria margotzea, gaueko faroa, gaubelak, eta batez ere... naturaz inguratuta ondo pasatzeko aukera!". Hori guztia gura dute landu Arizmendi Ikastolaren Natur udalekue-tan. Aretxabaletako Galartzan egingo dituzte, uztailaren 11tik 13ra. 16 urtetik gorakoei zuzendutako udalekuak dira. 65 euro da prezioa eta gaur da izena emateko azken eguna www.arizmendipro.eu helbidean edo 943 77 20 25 zenbakian.

MUK 122 diploma banatu zituen eguaztenean

Mondragon Goi Eskola Politeknikoak goi mailako prestakuntza zikloetako diplomak banatu zituen eguaztenean. Hain justu, 2010-2011 ikasturtean ikasketak bukatu zituzten 122k ikasle jaso zuten diploma. Bestalde, aurtengo ikasturtean ziklo-ondokoa bukatu duten hamar ikasle ere jaso zuten diploma.



GOIENA

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com



EGUZKIGRAF
inprimategia

30 urte
baino gehiago
zure
zerbitzura

Urko Lopez | Irakaslea eta ikerlaria

"Euroari euts diezaioke Espainiak, baldin eta gauzak ondo egiten baditu"

- "Orain arte, neoliberalismoaren ideiak besarkatu ditu Espainiak"
- "Politika hedatzaileak behar dira, kontsumoa piztu dadin laguntzeko"

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko Enpre-sagintza fakultateko irakaslea eta MIK zentroko ikerlaria da Urko Lopez. "Errealismo dosia" behar dela uste du eta hala ematen digu berak, baina baita itxaropenerako arrazoiak ere.

Europako Batasuneko agintariak erabaki dute Espainiako bankuak zuzenean birkapitalizatzea. Ze esan gura du horrek eta ze ondorio ekarriko dizkio bezero arruntari?

Bezeroari ez lioke inongo eragirik sortu beharko, kreditu erakunde horrek hgaizak ondo egin baditu eta ez badu aktibo arrarorik. Badago berme funtsa, baina preferentzialak ez ditu hartzen. Horretan sartzea, hau da, gailur horretan onartu zenak eragiten du estatu espainoleko egoerarekiko kontrol zuzenagoa lortzea Europako Batasunak: dirua eman-go dizugu, baina askoz zorrotzago kontrolatuko dugu. Eta etxerako lanak eskatu dizkio. Jendeak esan dezake, ea egiten ez diren. Ba, larregi ez dira egin edo azkeneko egunerako utzi dira.

Euroa apurtzeko arriskua dago?

Gaur [joan den martitzenean] Krugman-ek aipatu du arrisku hori badagoela. Berak %40 inguruko aukera ipini du, baina esan du, lehenik eta behin Espainiako estatuko ekonomiak zer egiten duen ikusi beharko dela, eta horrek finkatuko duela euroaren jarraipena edo euroa haustea. Espainiako ekonomiak ez badu egoera honi erantzuteko modurik, euroaren porrota izango litzateke.

Pezetara bueltatzea ona edo txarra litzateke, eta zergatik?

Ona ez litzateke izango; berriz beste moneta batera aldatu beharko litzateke, horrek dakartzan distortsioekin. Gogoratzen dugu eurora pasatzerakoan inflazio arazoak izan zirela. Euroari eusteko gai izan daiteke Espainiako estatuko ekonomia, baina betie-

re gauzak ondo egiten baditu, eta orain arte ez du hala egin. Contranatura politikak erabili dira. Ez da naturala egin dutena, neoliberalismoaren ideiak besarkatu dituztelako ideia hauek krisiaren aurka borrokatzeko eze-rezak direla frogatu arren. Gauzak gaizki daudenean ezin da oinezkoa neurri murriztaileekin ito; politika hedatzaileak aplikatu behar dira kontsumoa pizteko eta ekonomia dinamizatu ahal izateko.

Europar interes kontrajarriak daude: Alemania eta Frantzia elkarren aurka, eta Espainia, Frantziatik gertu. Zeinek irabaziko du?

Gailurraren harira esan zen garalea izan zela hirukote bat -Espainiako estatua, Frantzia eta Italia-, eta galtzaile, Alemania. Alemaniak krisi zorrotzak jaso ditu bere parlamentuan ere: hainbat ekonomiak ezin izan diotela eutsi berak jarritako errotmoari.

Kontuan hartu behar da Espainiako estatuaren interes bera izan dezaketela beste herrialde batzuek, nahiz eta ez esan. Eta hor ere beste bi herrialde daudela, Finlandia eta Herbehereak. Zorra erosteko, aho bateko botoa izan behar da, eta Europan ez dago halakorik. Eurek erreskatean ere trabak ipini zituzten, ez zutela argi ikusten esan zuten, ez erreskatea egitea ezta baldintzak ere. Hortaz, ez daude bakarrik bi alderdi: hiru, lau edo gehiago egon daitezke.

Hori konpondu daiteke?

Adostasunak bilatzea da kontua. Logikoa ere izan daiteke adostasun horiek topatzen zailak izatea, herrialde bakoitzak bere interesak bilatu behar dituelako, eta interes orokorrak partikularrekin talka egiten duelako.

Euskal bankuen eta kreditu entitateak ere zabor bonoaren mailan utzi ditu Moody's kalifikazio agintziak. Zelan ikusten dituzu euskal



Urko Lopez. | LEIRE KORTABARRIA

bankuak? Eta kalifikazio agentziak eurak?

Nik ez ditut euskal kreditu erakundeak hain gaizki ikusten. Egia da, estatuko kreditu erakunde moduan, saltsa batzuetan sartu direla, eta hainbat erosketak eta aktibo eskuratzek kalte

"Errealistak izan behar dugu, baina itxaropenerako arrazoiak badaude"

"Historiaren ikasgaia dugu: beti irten izan gara zuloetatik"

handia egin dutela. Baina beste hainbat kreditu erakunderekin alderatuta, Euskal Herrikoak hobeto daude.

Gero, *rating* agentziak daude. Agertu ziren hainbat dokumental, esaten ez direla erabat zehatzak, izan ditzaketela beste interes batzuk eta ez direla oso objektiboak... Kalifikazio edo *rating* agentzien nire balorazioa ez da batere ona, izan ere, zurrumurruek botatzen dituzte eta ekonomia oso bat hankaz gora ipin dezakete.

Espainia interbenitu egingo dutela uste duzu?

Merezimendu guztiak egiten dabil. Aurreko gobernuaren politika erabat inkompetentea izan zen, baina oraingoa ere ez da konpetentzia erakusten ari. Bakoitzak bere merituak egin ditu ongizate estatua deuseztatzeko. Interbenzio arriskua egon daiteke, bai, eta zenbat eta baldintza zorrotzagoak

ipini, orduan eta handiagoa da interbenzioa; baldintzak espartanoak direnean, interbenzioa erabatekoa da, eta ez erreskate soila. Merkelek ere esan zuten Alemaniako parlamentuan: kontuz, hau aurrera doa, mekanismo guztiak martxan jarriko ditugu, baina zaindu egingo dugu.

Nola eragingo lioke interbenzioak jendeari?

Ikusi egin beharko litzateke interbenzioak ze zentzu hartzen duen. Bigarren mailako baldintzak jar-tzen badira -politika ekonomiko askoz murriztaileagoak, gero dirua bueltatzeko- ez liguke modu onean eragingo. Oraindik politika murriztaile gehiago ipini nahi dituzte, eta gainera espero dute gauzak ondo joatea; baina kontsumoa are gehiago uzkur-tuko da, eta hori arriskutsua da.

Zer egin beharko luke gobernuak kontsumo hori bultzatzeko?

Esaten dute BEZ handitu nahi dutela. Zertarako? Errekaudazioa handiagoa izateko. Baina tranpa hau da: jendeak gutxiago erosten badu, BEZ kontsumoaren gaineko zerga denez, bilketa ere murriztagoa izan daiteke. Zer egin behar da? Azken finean, kontsumoa apur bat estimulatatu. Horretarako, beharbada beste politika batzuk erabili behar dira, zergak handitzea baino gehiago.

Hainbat krisi bizi izan ditugu, baina jendea oso etsita dago orain-gorekin. Zer du berezirik?

Desberdina da. Sistema finantzarioan gogor eragin du, eta gaintzeko sektoreak ere gogor ukitu ditu. Gainera, oso bat-batekoa izan da: 2008tik 2009ra bitartean egundoko aldaketa izan zen, oso krisi bortitza izan zen. Jende askok konparatzen du, hainbat ezaugarritan, 29ko *crack*-arekin. Horrelako kasuetan, krisitik depresiora igarotzea erraza da, eta depresioa deitzen zaio ekonomia behera doanean eta jendearen animua ere bai.

Itxaropenerako arrazoirik badago, azken baten?

Bai. Batetik, historiaren ikasgaiak ditugu: beti izan ditugu zuloak eta beti irten izan gara. Eta ez dugu konparatu behar Espainiako eta Hego Euskal Herriko ekonomia. Askoz posizio hobean gaude, nahiz eta guk ere gaizki pasatu, baina krisitik irteteko bide askoz irekiagoa izan dezakegu, uzten baldin badigute; ze badakigu ze testuingurutan gauden, eta ikusi beharko litzateke ea gauzak gure modura egiten uzten ditugun.

Argindarra eta gasa garestituta, BEZ handitzea izan daiteke hurrengokoa

L.K. | ARRASATE

Argindarra eta gasa garesti-agoak dira joan den domeka ezkerro. Hiruhilekoa hastearekin bat, elektrairindarraren tarifa handiagoa da. Espainiako Gobernuak zati bat ordaintzen du, eta hori izoztuta gelditu da; handitu dena sektoreari dago-kion zatia da, eta, ondorioz,

Azken Baliabideko Tarifa (TUR, gaztelaniaz), kontsumitzaile gehienok dutena, batez beste %3,95 garestiagoa da.

Gasa ere garestiago ordaintzen dugu: batez beste, %2,29 garestiagoa da. Urtean, batez beste, 14,89 euro gehiago ordainduko dute kontsumitzaileek.

Bestalde, Europako Batasu-

nak BEZ handitu dezan presio-natzen du Espainiako Gobernu-a, eta badirudi laster izango dela gertu handitze hori. Bi BEZ txiki-ienak (%4ko BEZ, oinarri-oinarrizko produktuek dutena, eta %8koa, eguneroko produ-ktu eta zerbitzu askok dutena) handitu egingo dira produktu eta zerbitzu askorendako. OCU elkartearen arabera, BEZ txi-ki-ienak handituta, familia arrunt batek urtean 900 euro gehiago ordaindu beharko ditu zerga horretan.

Aparteko programa batek 123 proiektu lagundu eta 237 lanpostu sortuko ditu

L.K. | ARRASATE

Guztira 123 proiektu izango dira Gipuzkoako Aldundiak abian jarri duen Ekonomia Suspertzeko Programan diru-laguntza jasoko dutenak, eta 237 lanpostu berri sortuko dira gazte kualifikatuentzat, Diputatuen Kontseiluak gaur onartu duen laguntza-dekre-tuaren babesean. Programa

honek ia 21 milioi euroko inbertsio induzitua sortuko du.

Sei milioi euroko laguntzak banatuko dira. Guztira 28 milioi euro ditu Aldundiak aurrekontuan jasota Gipuzkoako enpresei laguntzeko, eta onuradun gehienek (%80) laguntzak lehen aldiz jasotzen dituzte.

Amaia Otadui | Garoñako zentralaren ondoan bizi den arrasatearra

"Zentralean edozer gauza pasatuz gero, ezin izango ginateke etxera itzuli"

- ▶ Garoñako zentral nuklearra 2019ra arte zabalik mantendu nahi dute
- ▶ Amaia Otadui arrasatearrak 12 urte daramatza Burgosen bizi izaten

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Amaia Otadui arrasatearra eta haren familia Revilla de Herran herrian bizi dira, Burgosen. Garoñako zentral nuklearretik oso gertu bizi dira, arriskuari dagokionez, lehenengo zirkuluan. Industria Ministerioak Garoña 2019ra arte zabalik izateko duen asmoaz galdetu diogu.

Garoña 2019ra arte zabalik izateko ateak zabaldu ditu Industria Ministerioak. Nola hartu duzue berria?

Txarto, baina espero genuen albisteak izan da. Jakinekoa zen. Ez dago Garoña ixteko intentziorik. Orain arte esperantza txiki bat bageneukan, garai batean 2013an itxiko zutela entzun zen -eta. Baina orain, popularrak Gobernura iritsi direnetik, bagenekien kontuak aldatu egingo zirela.

Herritarren artean kezka sortu du albisteak?

Hemen denetik dago. Garoña ixtearen alde gauden dezentek jende gaude, baina bertako jende asko erositako dago, nolabait esatearren. Hortaz, erreakzio ezberdinak egon dira.

Jende nagusi asko bizi da inguru horretan. Zer diote horiek?

Gehienak isilik egoten dira, askok familiakoren bat dute lanean zentralean, eta dirua lortzen dute hortik. Gainera, udaletan lana eskaintzen diete edo beste moduren baten erosten dituzte. Bestalde, badago beste talde bat zentrala bereganatuta duena, *La atomika* deitzen diote. Baina Fukushima gertatu zenean beldurra sartu zitzaion, eta ordu arte ikusi gabeko erreakzioak izan zituzten. Hala ere, dagoeneko ahaztu dute. Gainera, energia nuklearra ez da entzuten eta ez da zikina; hortaz, egunerokotasunean, edozein fabrika Garoñako zentrala baino txarragoa dela dirudi. Baina badakigu beste aldea zein den.

Revilla de Herran herrian bizi zarete. Etxetik ikusten duzue zentral nuklearra?

Ez, gure etxetik ez dugu ikusten. Bestela, ez dakit posible izango litzatekeen bizi izatea! Ez dugu ikusten, ezta entzuten ere. Gainera, behin lagun batzuk etorri ziren etxera erradioaktibitatea neurtzera, eta esan ziguten inguruneak babestuta dagoela gure herria. Mendi zulotxo batean sartuta gaude, eta haizearen-gandik babestuta. Horrek lasaitasuna ematen digu, baina zentrala ixtea gura dugu.

Ingurune naturalagatik, Araba baino babestuago dago zuen aldea?



Amaia Otadui arrasatearra Izadi alabarekin. | AMAIA OTADUI

Bai, hala da. Haizea Bureba (Burgos) aldera eta Araba aldera doa gehiago. Eta energia nuklearren uhinak ere Araba aldera

joango lirateke gehiago, baita Pancorbo aldera ere. Gu Balde-rejoren magalean gaude eta badirudi hona gutxiago etorriko

litzatekeela. Bestalde, esaten dute Ebro ibaira isuriak egoten direla... eta horiek ere Araba aldera doaz.

"Ingurune naturalagatik, Araba baino babestuago gaude gu"

"Istripuen aurrean badago protokoloa, baina gezurretakoa dena"

"Kontrakook indar txikia dugu, eta horrela zaila da eurei presio egitea"

Esan daiteke Garoña inguruan bizi zaretenok beti alertan bizi zarete- la?

Egunerokotasunean ez gaude beldur horrekin, baina buruan beti daukazu zerbait gerta daitekeela, Fukushima zentralean edo Txernobilen gertatu den moduan. Horrek, hotzean, kezka sortzen du.

Arriskuari dagokionez, lehenengo zirkuluan zaudete. Zer esan gura du horrek?

Edozer gauza pasatuz gero, dena galduko genuke. Ezin izango ginateke gure etxe eta ortuetara itzuli, sekula ez. Esan dudan moduan, haizeak ere eragin handia izango du, baina zer edo zer gertatuz gero, uste dut minbizi handi batekin hilko ginatekeela hemen bizi garenok.

Istripuen aurrean, badago protokolorik?

Bai, badago protokoloa, baina gezurretakoa dena. Guk, adibidez, herrian ez daukagu biltzeko punturik adierazita. Simulazioak egin izan dituztenean jakin ere ez dugu jakin; izan ere, gure herrian ez da irratia ondo entzuten, eta, irratia bidez esaten badute, gu ez gara enteratzen. Garoñan zerbait pasatu dela enteratzen gara kanpotik, Arrasatetik, esaterako, esaten badigute. Gainontzean, ez dugu ezer jakiten.

Beste zentralen batean zerbait pasatu izan denean herrian zelan eragin izan du horrek?

Fukushimako gertatu zenean, esaterako, hemen badago emakume bat beti *La atomika* deitu izan diona, baina inoiz ezer esan ez duena. Bada, orduan esan zuen: "¡A ver si cierran esto ya!". Gertatzen dena da hedabideek indar handia ematen diotela momentu batean, baina gero ahaztu egiten direla. Hortaz, jendea normaltasunean sartzen da eta ahaztu egiten da. Garoñako atearren aurrealdera urtero egiten dugu martxa bat eta ehun lagun besterik ez gara elkartzen. Horrelako indarrarekin zaila da eurei presio egitea. Esan behar da eurak oso lasai daudela. Gainera, Garoñako langileek guk baino hobeto egin dituzte gauzak: itxi behar zela esan zutenean mobilizazioak egin zituzten eta jende asko ekarri zuten kanpotik.

Diozu urtero egiten duzuela ekin-tzaren bat. Taldetan antolatuta zaudete?

Kaltetutako Bizilagunen Elkarte dago hemen, eta Ekologistak Martxan taldekoak ere etortzen dira. Jende gehien mugitzen dutenak Ekologistak Martxan taldekoak dira. Urteko ekintza nabarmenena martxa hori izaten da. Barcina del Barco herritik oinez joaten gara Garoñara, eta egun-pasa egiten dugu. Momentu konkretuak ere egon izan dira: Greenpeacekoak Garoñara etorri zirenekoak, adibidez.

Nolako herria da Revilla de Herran?

Oso herri txikia da, zortzi biztanle bakarrik gaude. Balderejoren magalean bizi gara, mendiz eta haritz inguratuta, errekatxoekin eta irturburuekin... leku ederra da. Nik esaten dut arazo txiki handi bat dugula. Gainontzean, leku lasaia eta polita da.

ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI
http://goiena.net/iritzia/



Aukera ezin hobea

Ospatu berri diren Arrasate Herri Eskolaren 10. urteurreneko jaialdietan guraso, irakasle eta neska-mutiko ugari bildu dira eta *Aukera ezin hobea* leloa zioen kamisetaren zeramaten hainbat partaidek. Hala ote da?

Izan ere, Espainia ardatz eta pedagogia zaharkitua zuen "Escuela nacional"-aren aurrean, ikastolak Euskal Herria ardatz zuen pedagogia berriarekin hasi ziren. Espainiartzeko asimilazio itzela jasan arren, ikastolek jendeari herri gisara antolatzekeo ilusioa eta borondatez jarduteko gogoia sortzea lortu zuten. Pedagogia aldetik munduan ziren mugimendu berritzaileak aztertu, aurrerapenak hartu, euskaratu eta euskal sena itsatsi zien, Elbira Zipitriak gidatutako irakasleek eta gurasoek osatutako hainbat talde trinkori esker. Mugimendu honen olatuak beste eskolak euskalduntzera bultzatu zituen.

Ikasleak egin behar duen ikasketa ibilbidean (curriculum), Espainiako Gobernuak arautzen du gaur egun Hego Euskal Herriko edukien %55 eta Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, berriz, euren eremuetan gainerako %45a. Ipar Euskal Herriko Frantziako Gobernuak arautzen du bere osotasunean. Horregatik, hezkuntza sare guztietan eta erakunde sozial eta politikoen guraso, irakasle eta herritar asko Euskal Hezkuntza Sistema propio baten alde lanean ari dira. Euskal Herriko sustraitzen den Euskal Eskola dute helburu, Frantziak eta Espainiak euren duten gisara. Espainiar nahiz frantziar kulturak beraien estatuek gaurkotuta, babestuta eta hedatuta daude; euskal kultura, ordea, oraindik ez da egoera horretara iritsi.

Derrigorrezko hezkuntzaren bukaerara iristean pertsona guztiek euren gaitasunak garatzeko baliabideak behar dituzte, euskal hiztunen komunitatean sustraituak izan eta naturaren oreka lortzeko sentsibilitatea.

Helburu hau kontuan hartuta, askotxo ez ote da ikastetxe bat "aukera ezin hobea" dela esatea?

"Ikastolek lortu zuten jendeari herri gisara antolatzekeo ilusioa sortzea"

USTEAK USTE

JULEN IRIONDO | jiriondo@goiena.com

Alderdien botere gosea

EAE n eta Nafarroan ikusi berri dugu nola apurtu diren alderdi sozialistek eskuinarekin zituzten gobernu akordioak. Eta, erkidegoan adibidez, PSE-EEk laster galdu zuen Legebiltzarrean lehenengo bozketa: Gaztedia Legea. PSE-PP akordioan oinarrituta, aste batzuk lehenago popularrek -ziurrenik- alde bozkatu zuten legeari ez zioten aurrerako biderik eman -abstenitu egin ziren-, momentuko estrategia politikoa horrela eskatzen duelako. Gaztedia Legearen egokitasuna baloratzen sartu gabe, beste adibide bat da hau erakusten diguna alderdiak mugitzen dituen -zenbait behintzat, eta sarri- ez dela herritarrentzat onena lortu nahia, botere gosea baizik.

KALE INKESTA

Zer deritzozu Debagoieneko udarako turismo eskaintzaz?



AMAIA
UGARTEMENDIA
OÑATI

"Hausnartu behar dena da jendea zer modutan nahi den ekarri. Turismora mugatzea gure etorkizuna triste da".




MIRARI
BIKUÑA
OÑATI

"Oñatin dagoen eraikin eta naturarekin garrantzitsua da jendeari udarako eskaintza egitea".



RUFINO
EGAÑA
OÑATI

"Garrantzitsua da eskaintza egitea, baina Oñatin dendak... itxita egoten dira eta datorren jendeak ez dauka ezer".



DANIEL
AGIRRE
OÑATI

"Kanpotik etortzen den jendeak, Oñatiko unibertsitatea, parrokia eta ezer gutxi ikusten du".

HANDIK ETA HEMENDIK

Ez da sasoi

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Gauzak ondo doazenean, ondo doazelako.

Kontua da auzi estruktural eta ideologikoen enbarazu egiten dutela, eta beti entzuten direla koruak eta konpartsak esaten dizutenak:

Oparoaldia gozatu ordez, hor ari zarete zuek zuen betiko matrakarekin!

Bazterrak endredatu eta toiloarena jo, ez dakizue besterik egiten!

Gauzak gaizki doazenean, gaizki doazelako.

Kontua da auzi estruktural eta ideologikoa aipatzea elkartasunik gabeko egoismo hutsa omen dela, eta koruek eta konpartsek orfeoi sekulakoa osatzen dute:

Jendea gorriak eta bi pasatzen, eta zuek, tema eta dema, zuen betiko kalaka zaharrekin!

Inoiz ez da sasoi ibilbide luzeko arazo sozialak eta politikoa mahai gainean jartzeko, egunerokotasunaren pertzepzioan beti egoten baita zerbait -oparaldia ez bada, izan dadila krisia- gai deserosoak baztertzera garamatzana.

Eta, gainera, sartu gara udan, oporretan pentsatzen hasteko da sasoi.

Ideologia ote... ala eskola besterik ez?

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatiño/

Bistan da Garoñak ez duela nork defendituko Araban.

Bistakoa, komunikabideetan albiste diren denak edo gehien-gehienak kontra dituela.

Baina, begien bistakoa ere, hainbatek Garoñaren aurka erabili ohi dituen argudioak ez direla, ene irudiko behintzat, aproposenak.

Bat etorri ala ez, salatu salatu daiteke Garoñako zentrala zaharkitu samarra dela eta honek gaituzte duela sorreran atxiki zitzaion iraungitze-data.

Ados izan ala ez, adierazi adierazi daiteke Garoñaren ekoizpena ez dela inondik ere espaniar energia-sistema auzitan jartzeko bestekoa eta bihar bertan itxi arren ezer gutxi gertatuko litzatekeela.

Hala ere, zer gerta ere,

esanak esan, ez dago Garoñaren jarraipena "herri-borondatearen kontrako erabakitza" jotzerik.

Behar bada arabarrik gehienak Garoñaren kontra egongo dira egon, baina Garoña ez dago Araban.

Eta, besterik frogatzen ez den artean, Garoñako zein inguruko alkate, zinegotzi eta biztanlerik gehienak bertako zentral nuklearrak indarrean jarraitzearen aldekoak dira.

Honetan guztian ni neu gehien kezkatzen nauena ez da zentrala 2013an edo 2019 itxi behar izanak, zenbaiten jarrerak baino.

Alegia, gu gara herria, besteak ez.

Guk daukagu arrazoia, besteak ez.

Gure jarrera interesbakoa da; besteena, aldiz, baldintzatu.

Guk geure buruaren jabe izan behar dugu geureak eta inorenak erabakitzeke.

Beste inor ez da ordea gauza euren nahia egiteko eta, are gutxiago, guk zer egin beharko genukeen esateko.

Normala litzateke pentsatzea jarrera horren atzekaldean nolabaiteko ideologia dagoela.

Eta... "eskola" soila besterik ez balitz?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna
Xabier Urtzelai
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetzea eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetzea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetzea@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ikus itzazu argazkiak, astero, asteleheneko Goiena paperean

UDAKO ARGAZKIEN VIII. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu
zure udako argazkiak

Bidali zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: goiena.net/blogak/argazkiak

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



YERA SANCHEZ. 2011ko Sari Nagusiaren irabazlea.



MAIER ERRASTI. 2011ko bigarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!



GAIZKA UNTZUETA. 2011ko hirugarren sariaren irabazlea.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 2tik irailaren 14ra (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate ARETXABALETA: Basabe poligonoa EOS, Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 1ean jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.

- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan, Facebook-en (www.facebook.com/udakoargazkiak) eta Twitter-en (www.twitter.com/udakoargazkiak) ere erakutsiko dira argazkiak.
- Epaimahaia Goienako kideek etabailarako argazkilaria profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela:
 - Twitter bidez, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda.
 - Facebook bidez, facebook.com/UdakoArgazkiak orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitatearik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

Sariak

1. saria

Canon EOS 1100 D reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.




- 12 megapixel.
- HD bideo-grabazioa.
- 2,7 hazbeteko pantaila.
- AF fokatze sistema, 9 puntukoa.
- ISO 100-6400 sentsibilitatea.
- EF eta EF-S objektibo guztiekin bateragarria.



2. saria: Cantabrian bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaiak-en eskutik.



3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



Herriarren saria: bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Debako AISIA hotolean.



Boto emaleentzat saria: Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

photoestudio

www.kbphotoestudio.com

Canon

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

aisia HOTELES

karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Sebastian Arantzabal | HB-ko Zinegotzia Elgetan 1991-1994 agintaldian.

- ▶ 1991tik 1994ra, Kirola, Gazteria eta Euskara zinegotzia
- ▶ 2002tik 2003ra bitartean ere egon zen udalean, EH-tik
- ▶ Zinegotzi batek dimititu eta haren ordezkari sartu zen udalean 2002an, kargu zehatz barik

"Nahiz eta desadostasunak izan, herriko kontuetan nahiko ondo konpontzen ginen"

MIREN ARREGI | ELGETA

1961ean jaioa, Sebastian Arantzabalek legegintzaldi oso bat eman zuen zinegotzi moduan Elgetan, Herri Batasuna alderdiko kide bezala. Gero, Euskal Herriarrok taldearen ordezkari moduan ere egon zen udalean. 80ko hamarkadan sartu zen politikaren alorrean eta hor jarraitzen du oraindik.

1991n sartu zinen udalean. Nola osatzen zen orduan udala?

Sasoi hartan Elgetak 1.007 biztanle zituen eta beraz, bederatzi zinegotzik osatzen zuten udala. Agintaldia bukatu genuenerako, 1994-rako, 993 biztanle ginen eta orduan 9 ordezkari izatetik zazpi izatera pasatu ziren. EAJk sei zinegotzi zituen orduan eta guk, berriz, hiru.

Nolako giroa zegoen orduan?

Hasiera gatazkatsua izan zen. Gure zerrendan hirugarrena zen Bittor Aierbe atxilotu egin baitzuten kargua hartu baino lehenago. Herri Batasunak hiru ordezkari lortu zituen agintaldi hartan Elgetan eta hirugarren barik hasi genuen lau-urtekoa. Hiru hautatuak izan eta bi hasi. Urte eta erdi pasatu zen haren ordezkaria sartu zen arte, Nerea Izagirre, hain zuzen ere. Egoera horretan, tentsio une handiak bizi izan genituen.

Nola eragin zuen horrek udalean?

Egoera hartan, tentsio une handiak bizi izan genituen. Guk Aierberen alde, babes mozio bat aurkeztu genuen eta EAJk atzera bota zuen. Horrek min handia egin zigun.

Euskal Herriko egoera politikoa ere gatazkatsua izango zen orduan.

Bai, Euskal Herriko egoera gatazkatsua zen eta horrek eragina zuen udaletxean ere. Hala ere, esan behar dut, herriko kontuei



Sebastian Arantzabal, areto futbol txapelketa jokatzeko tokian. | MIREN ARREGI

zegokienean, nahiko ondo funtzionatzen zuela udalak. Batzordeak irekiak ziren, parte-hartze handia zegoen eta nahiz eta EAJ egon udalean eta kasu askotan desadostasunak izan, herriari zegokionean nahiko ondo konpontzen ginen; adostasunera iristen ginen. Gobernu batzordea hiru kidek osatzen zuten, EAJko bik eta nik neuk eta hori beste

herrietan ez zen gertatzen.

Kirol, Euskara eta Gazteria batzordeei dagokienean, zer?

Hiruren batzordeburu izan nintzen ni. Garai hartan ez zegoen teknikaririk eta zinegotziok lan gehiago egin behar izaten genuen. Esaterako, arte futbol txapelketa bat antolatzen genuen herrian eta harrigarria da zenbat herriarrek hartzen zuten parte. 1994an

Elgetan 140 lagun aritu ziren areto futboleko. Partidu asko jokatzeko ziren astebururo, partiduetako aktak jaso behar izaten ziren eta lan handia egiten genuen. Polita zen horrenbeste herritarrek parte hartzen zuten proiektu baten parte izatea. Guk bultzatu genuen beste egitasmo bat izan ziren mountain bike irteerak. Garai hartako proiektu nagusia, baina,

hirigintza alorrean egin zen, Domingo Iturbeko etxebizitzak, alegia.

Udaletxe barruko funtzionamenduan euskara ere indartu zenuten.

1991an udaletxean sartu ginenean akta eta dokumentu ia guztiak gazteleraz ziren. Guk agiriak eta euskaratu genituen eta 1994rako gehiena euskaraz izatea lortu genuen.

Atzera begira, nola gogoratzen dituzu urte haiek?

Esango nuke gaur baino erraza goa zela udaletxeko lana, batez ere, jendeak asko laguntzen zuelako. Jaiak eta antolatzerakoan jende mordo aritzen zen. Ez du zer ikusirik gaur egungoarekin. Gaur udaletxeko ordezkariak bakardade gehiago sentitzen dutela uste dut. Gizartean aldaketa handia egon da eta hori isla izan du.

2002 eta 2003 urteetan ere izan zinen udalean.

Oso garai gatazkatsua izan ziren. Lizarra-Garazi hitzarmena apurtu berri zen eta legez kanpo utzi aurretik Ezker Abertzalea alderdi politiko bezala erakundeetan egon zen azken agintaldia izan zen hura.

Gaur egungo egoeraren aurrean, zer?

Gauzak aldatzen doaz eta esan behar da gaurko Elgetako ordezkariak demokratikoa bada ere, guztiak ez dutela izan zerrendak gura zuten jendearekin osatzeko aukera eta horrek islada bat daukala. Aurrera begira itxaropentsu nago; Sortu ere legezatu dute, baina zuzendaritzak barruan jarraitzen du eta hori ulergaitza iruditzen zait. Demokrazia behatua da hau.

2012 Koloore Collection Spring Summer

www.koloore.com
www.facebook.com/koloore

dendak

LORAMENDI KIROLAK

LORAMENDI KIROLAK

BELAR META

Maiatzaren Bata plaza

ARRASATE

Garibai 6-H

ARRASATE

Durana Kalea 20 behea

ARETXABALETA



HERRIAK



San Pedro eraberritzeko lanak egiten diharduen Zetabi enpresako Aitor Zubia kanpaia handienaren ondoan. | A. BARRUSO

DATUA

3.100

KILO

Kanpandorreko kanpai handienak 1.804 kilo pisatzen ditu; euskarriarekin berriz, hiru tonatik gora.

San Pedro eliza eraberritzearekin batera kanpaien jatorrizko mugimendua berreskuratu nahi izan du Zetabi enpresak: "Gaur egun programazio elektronikoei sasoia bateko kanpai-joleen lana egiten dute. Erabiliko dugu teknologiaren bitartez kanpaiak pixkanaka-pixkanaka alde batera eta bestera mugitzen joango dira buelta osoa ematea lortu arte. Horrek ahalbidetzen du torsio edo bibrazioirik ia ez sortzea eta horrela kanpandorreak ez du erasorik jasotzen".

Erromatar itxurako handiena

Kanpandorrearen lehenengo solairuan lau kanpai daude. "Handiena erromatar itxurakoa da -penintsulan ohikoena- eta badirudi erromatar erako bolteora dabilen munduko kanpai handiena dela". Bigarren solairuan berriz, zortzi kanpai daude. Horiek ez dira formakoak dira eta soinu zorrotzagoa dute. Eta soinuari dagokionean, ez dira berdinak orduaren berri ematen duten kanpaikadak edo hil-kanpaiak. Hori ere bereiztu ahal izango da. "Soinu bereziak behar direnerako mailu elektromagnetiko batek kolpatuko ditu kanpaiak".

Kanpaien inaugurazioa laster

Udako oporren bueltan San Pedroko kanpandorra zeharo eraberrituta egongo da eta hori ospatzeko herritarrek San Pedroko hamaika kanpaiak eraberrituta, sasoi betean eta bueltak entzun ahalko dituzte. "Festa herrikoia bat edo egun berezi bat aukeratu nahi izan dugu kanpaien inaugurazio moduko bat egiteko".

Eliza bera eraberritzeko lanak, bestetik, martxa onean doaz eta asmoa da 2013ko erdi alderako amaituta egotea.

BERGARA

San Pedro elizako kanpaien artean bitxikeria ugari

- ▶ Palentziako enpresa batek konpondu ostean bueltan dira Bergaran
- ▶ Kanpaietako bat erromatar erako penintsulako handiena da

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Hainbat hilabetez isilik egon eta gero pasa den astean San Pedro elizako kanpaiak entzun ahal izan ziren berriro ere. Palentziako enpresa batera bidali ostean, eta konpondu eta eraberritu ostean, bueltan dira berriro ere Bergaran eta azken egunetan hainbat proba egiten ibili dira.


Bada, dezente dira kanpai horien atzean ezkututzen diren bitxikeriak. Zetabi enpresako Aitor Zubia arkitektoak datu eta kontu interesgarriak eman dizkigu San Pedroko kanpandorreko aldarmioetan barrena gora egin ahala.

Buelta osoa emango dute


Bergarar askok akaso jakin ere ez dute egingo, baina San Pedroko kanpaiek duela urte asko utzi zioten buelta osoa emateari. Orain mugimendu hori berreskuratuko dute. "Garai batean eliza guztietako kanpaiek buelta osoa ematen zuten, baina urteekin kanpaiak zahartzen eta hondatzen joaten dira eta mugimendu hori lortzea gero eta konplikatuagoa eta arriskuagoa bihurtzen da. San Pedroren kasuan esaterako, aspaldi utzi zioten buelta emateri. Ez dut uste Bergaran kanpaiak bueltak gogoratuko dituen inor dagoenik", azaldu digu Zubiak.



Begarako San Pedro eliza kanpokaldetik. | A.B.



Kanpandorreko goiko solairuan zortzi kanpai daude. | A.B.



Kanpaien bi solairuak birako eskailera batek lotuko ditu. | A.B.



Kanpaiak mugitzeko makina. | A.B.



Berrerabilpenaren gunean Sin Desperdiciok jarritako postua. | J.A.



Kutxa Ekogunean harrera puntua jarri zuten, auto elektriko eta guzti. | J.A.



Eskulangintzak, bitxiak esaterako, herritarren arreta piztu zuten. | J.A.



Herritarrek interes handiarekin entzun zituzten saltzaileen azalpenak. | J.A.

BERGARA

Beste kontsumo mota bat posible dela erakutsi du EkoBira azokak

Kontsumo jasangarria sustatzen duten 25 postu jarri zituzten plazan



AIZPEA ARREGI
ANTOLATZAILEA

"Herritarren aldetik gero eta interes handiagoa dago halako produktuekiko; EkoBira azoka ere geroz eta entzunagoa da. Herritarrek gero eta gehiago nahi dute bertako produktuak ezagutzeko eta asko galdetzen dute".



GLORIA URKOLA
MEITAI MAITIE

"Ume eta amen gaiekin egiten dugu lan. Batik bat, ingurumenarekin oso lotuta dagoen haziera arduratsu eta alternatibo baten inguruan. Esaterako, telasko pardel sistema berri bat ekarri dugu eta kristalezko botila eta biberoiak".



JON ETXEANDIA
ETXEANDIA GARAGARDOA

"Era naturaldean egindako garagardoa da gurea, duela 200 urte egiten zen moduan egindakoa. Ez du gai kimikorik, bere osagarri bakarrak dira %100 malta, ura eta lupulua eta bost mota egiten ditugu".

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Kutxa Ekoguneak bultzatutako azoka jasangarriak herritar ugari erakarri zituen zapatuan Bergarako San Martin plazara. Kontsumo jasangarria bultzatzea da azoka ibiltari horren helburua eta zeregin horretan beste kontsumo eredu bat posible dela ikusi ahal izan zuten azokara hurbildutako herritarrek, bizi-modu jasangarria egiteko aukerak badaudela, azken batean.

Ekoizle ekologikoak, esku-langileak, material birziklatuekin lan egiten dutenak eta energia berriztagarrien sektoreko enpresek hartu zuten parte. 25 postu jarri zituzten guztira eta askotariko produktuak ikusteko aukera egon zen, zazpi ataletan banatuta. Esaterako, elikadura-rekin lotutako produktuen artean etxean egindako gozoak zeuden, eztiak, gazta, ogia, barazkiak eta baita garagardo artesanalak ere. Eskulangintzari dagokionez, zapata ekologikoak zeuden, hosto metalizatuak eta bitxiak. Ekoetxean, xaboi naturalak, umeendako arropa, tinte naturalaz egindako arropa eta pardel berrerabilgarriak; baita eguzki-energiak funtzionatzen duten jostailuak ere. Berrerabilpenari eskaintako gunean, berriz, Sin Desperdiciokoek egindako banderola publizitarioetatik eratorritako apaingarriak, altzari berrerabilgarriak eta bitxi berrerabilgarriak ikusteko eta erosteko aukera izan zuten herritarrek. Auto elektriko bat ere jarri zuten ikusgai.

Herritarrekin hartuemonak

Kutxa Ekoguneak bigarren antolatutako aurten azoka ibiltari hori eta herritarrekin harreman handiagoa izateko zenbait berrikuntza gehitu dizkiote aurten, Aizpea Arregi antolatzaileetako batek azaldu zuenez. Hori horrela, umetxoendako eskulan tailerrek eta postuetako arduradunek zein azokako gidariek emandako azalpenek osatu zuten zapatuko eskaintza. Zenbait zozketa ere egin zituzten eta Arregi pozik azaldu zen azokak izandako erantzunarekin.

OÑATI

Garagardo feria, aurten ere arrakastatsu

Eguenetik atzo gauera arte, asko izan dira Aloña Mendiren garagardo feriatik pasa direnak. Atzo arratsaldean Antton Intza Aloña Mendiko presidentek ferieren balorazio positiboa egiten zuen; bere esanetan, eguna uste baino jendetsuagoa izan zen eta zapatu gauean ere jende asko izan zuten. Atzo arratsalderako, 30 litroko 43 garagardo upel hutsik zeuden; eskatutako 630 oilasko kiloak agortuta zeuden, eta 800 kilo ukondotik 600 salduta zeuzkaten. Berrikuntza moduan, egunean, 15 kilo moxal eskaini zituzten, berehala agortu zirenak.



JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE

Eguraldia lagun, motor klasikoekin gozatu zuten eskuter klasikoekin bigarren topaketan

Antolatzaileak pozik lortutako partaidetzarekin; hainbat lekutatik etorritako 25 motorzale inguru batu ziren

EDU MENDIBIL | ARRASATE

Ikusmin handia piztu zuten zapa-tako motor klasikoekin. Mondraueko Dragoiak Scooter Taldieren eskutik, scooter klasikoekin bigarren topaketa egin zuten. Handik eta hemendik etorritako 25 bat motor batu ziren: Donostia, Gasteiz, Azpeitia, Andoain edo Zaragozatik etorri ziren partaideak.

Motor dotoreak benetan ekarri zituzten eta bat baino gehiago aho zabalik geratu zen haien kolore eta detaile politekin. Primeran zaindutakoak denak, zaleendako altxor bat edo beste tartean. Eguraldia lagun, 40 kilometro inguruko ibilbidea egin zuten motorzaleek eguerdi partean. Irteeraren aurretik, ibarreko informazio turistikoak, topaketaren *partxe* oroigarria, kamiseta bana eta edaria eta ogitartekoa jaso zuten *motorreroek*. Aramaio aldera joan eta gero, Untzilla, Etxaguen eta Zabolarari iritsi eta Aretxabaletatik Urkulurako bidea hartu zuten. Otala Zelain geldialdia egin zuten tortillak eta edariak konpartitze-ko.

Vespa eta Lambrettak

Antolatzaileak pozik geratu ziren bigarren ekitaldi honetan izandako partaidetzarekin. Iaz herri mailan ospatu zuten topaketa aurten bultzada handiagoa ematea zen helburua. Arrasateko Udalaren laguntza izan dute aurten antolatzaileek eta egun batez Vespa eta Lambretta motorren topaleku bilakatu zen Arrasate. Motor kontuak izan ziren protagonista egun osoan zehar eta musikarako tartea ere izan zen, nola ez. Motor klasikoekin soinu banda behar dute atzean. Topaketari amaiera borobila emateko, Saran bazkaldu zuten. lagunartean.



Motorzaleak eguerdian Seber Altuben batu ziren, motor eta jantzi eta dotoreekin. | JOSETXO ARANTZABAL



Ikusmina piztu zuten parte hartzaileen motor klasikoekin. | JOSETXO ARANTZABAL



LANDER GALDOS
ARRASATE

"Partaidetza polita lortu dugu aurten; 25 bat lagun etorri dira, toki askotatik, eta eguraldia ere laguntzen du motorrekin gozatzeko... Bost lagunek osatzen dugu Mondraueko Dragoiak Scooter Taldea".



PABLO MONTORO
ZARAGOZA

"Neska eta biok etorri gara Zaragozatik, bezperatik: hura autoan eta ni motorrean, bost bat orduko bidaiari. Gustuko ditut horrelako topaketak. Motorra orain dela bost urte erosi nion ezagun bati eta asko zaintzen dut, bai".



URTZI MADINABEITIA
ARRASATE

"Ezagun bati erosi nion nire motorra, Vespa PX 200 Iris bat. Abenduan 27 urte egingo ditu. 40 kilometro inguruko ibilbidea egingo dugu gaur eta ondoren, Sarako bazkarian, 35 bat lagun elkartzeko gara".

BERGARA

'Urdirroztarrek' topaketa egin zuten zapatuan

Urdirozko euskal udalekuan ibilitako 22 lagun batu ziren zapatuan Bergaran egindako topaketan. Soraluze, Arrasate, Eskoriatza, Bergara... eskualdeko zenbait herritako *urdirroztarrak* batu ziren 1982tik 2006ra funtzionatu zuten udaleku hartako bizipenak eta argazkiak partekatzeko. Sukaldari, laguntzaile eta begirale jardundakoak elkartu ziren eta zenbait dinamikaren bidez Urdirotzen bizi izandakoak ekarri zituzten gogora. Horiek guztiak jaso eta liburu eta DVDa egitea da asmoa.



MONIKA BELASTEGI

Kristina Zeziaga | Uribarri-Erguingo auzo alkatea

"Auzotarren inplikazio barik jaiak desagertu egingo dira"

Uribarri-Erguingo jaiak irailaren 14tik 16ra izango dira aurten eta egitaraua lotzeko auzotarrengana jo dute antolatzaileek, diru ekarpen eta ideien bila

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Bost urte daramatza Kristina Zeziagak Uribarri-Erguingo auzo alkate moduan. Aurten ere auzotarren inplikazioa eskatu dute auzoko jaiak antolatzeko; diru eta ideia falta da arazo nagusia. Uztailean bidali behar dute egitaraua inprentara; denboraz oso justu dabilta, beraz.

Auzotarrengana jo duzue laguntza eske jaiak antolatzeko. Zergatik? Aurtengoa laugarren urtea da auzotarrengana jotzen duguna. Lehen urtean komunitateetako jabeengana jo genuen baina ez genuen arrakastarik lortu. Auzotar askok esan ziguten ez zirela enteratu eta horregatik hurrengo urtean bizilagun guztiengana zabaldu genuen mezua. Diru

ekarpenak gora egin zuen baina jendeak ez zuen ideiarik bota eta inplikazioa ez zen espero genuena izan. Hala, aurten pentsatu genuen eskaerarik ez egitea baina diruz inoiz baino okerrago gabiltzanez azken orduan atez ate laguntza eskatu dugu.

Auzoko jaiak desagertzeko arriskuan daudela esan genezake?

Desagertzeko arriskuan ez oraindik, baina egia dena da hainbat ekintza

kolokan daudela. Egun dugun diruarekin egitaraua aurreikusita ditugun ekintza asko ezingo dira gauzatu. Krisia denondako da eta auzotarren inplikaziorik ez badago jaiak desagertu egingo dira.

Beraz, egitaraua oraindik lotzeko egongo da, ezta?

Lotuta dagoen bakarra dira umeendako jolasak. Gainerako guztia kolokan dago; adibidez, musika talde merkeren baten bila gabilta eta ez badugu lortzen beste ekitaldiren bat antolatzea pentsatu beharko dugu.

Suposatzen dut auzo askotan gertatuko dela guri gertatzen zaiguna. Baina badaude adibideak bizilagunak askoz gehiago inplikatzeko erakusten dutenak; Musakolako jaiak, esaterako.

"Umeendako jolasak bakarrik lotu ditugu, gainerako guztia kolokan dago"



Kristina Zeziaga Uribarri-Erguingo alkatez. | JOKIN BEREZIARTUA

Uribarri-Erguingo auzo berezia da...

Hala da. Zarugalde kaleko zati bat eta Munarreko beste bat gure auzoan daude baina eurak diote ez direla auzokoak. Arimazubiko beste bizilagun batzuk ere diote

eurak ez direla Uribarrikoak. Bestalde, San Bartolome jaiak abuztu amaieran ospatzen dira, Uribarriko baserri giroa dutena jatorri. Guk, berriz, irailaren 14tik 16ra ospatuko ditugu jaiak.

300 haur eta gaztetxo udalekuetako entzierroan

Bi entzierro egin zituzten, adinen arabera. Gogotik egin behar izan zuten korrika atzetik zituzten bost zezenek harrapatu ez zituzten. Izan zen lurlean bukatu zuenik ere, baina ez zen ezer larririk gertatu. Zapi gorria soinean, kantuan egin eta suzuria entzun ostean, zezenen aurretik irten ziren korrika, Iturriotz eta Erdiko kalen. Gora San Fermin!



TXOMIN MADINA

Udalari ordainketak egiteko modu berriak

J.B. | ARRASATE

Duela urtebete ingurura arte aukera zegoen ordainketak zuzenean Biztanleen Arreta Zerbitzuko diru makinan egiteko, efektiboan. Makinarekin hainbat gertakari izan dira: zehaztasun falta, ordainketak bikoiztea, segurtasun eza, herritarren hitza eta makinarena bat ez etortzea, besteak beste. Gertaera horien ondorioz, makina zerbitzuz kanpo uztea erabaki zuen Udalak.

Hiru modu berri

BAZeko diru makinaren aukera kenduta, ordainketak modu erosoan egiteko beste hainbat bide daudela gogora ekarri du Udalak.

BAZen bertan, leihatilan egin daitezke ordainketak. Txartel bidez egiten da eta ordainagiria eramatea derri-gorrezkoa da. Banketxeetan, bestalde, kutzazainetan nahiz leihatiletan egin daitezke ordainketak.

Beste aukera bat da ordainketa internet bidez egitea. Jaurlaritzako administrazioaren ordainketa pasabidearen bidez egin behar da; argibideak jarraituz erraz egin daiteke. Bigarren pausoa ordainagirik barra kodearen zenbakiak sartu behar dira. Txartel bidezko ordainketa da. Horrez gain, noski, norberaren bankuaren webgunearen bidez ordain daiteke.

Asteon botako dute Axerikoa zubia, berria eraikitzeko

Ur, argi eta telefono sareak kendu ostean, astean botako dute Axerikoa zubia berria eraikitzeko. Obra arduradunaren arabera, zubi zaharra mailua duen makina batekin botako dute, hau da, ez da lehegailurik erabiliko. Zubi berriak ez du arkurik izango: "Zulo hutsa izango da, ura azpitik pasa dadin". Sei hilabetez luzatuko dira lanak.



UBANE MADERA

Ander Arizaleta | Zaldibarko 24 orduko areto-futbol txapelketako antolatzailea

"Ea iazko talde kopurua gainditzea lortzen dugun"

Eguenera arte, hilak 12, eman daiteke izena zapatuan jokatu den 24 orduko txapelketarako; antolatzaileek "txapelketa polita" irtetea espero dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Lehenengoz hartu du Ander Arizaleta (Arrasate, 1993) Zaldibarko 24 orduko areto-futbol txapelketa antolatzeko ardura. Mondragon Unibertsitateko ikaslea da, Lidergo Ekintzaile eta Enpresa Berrikuntza graduari; txapelketa antolatzeak zerikusirik zuzena du ikasketekin. Zapatuan jokatuko da, hilak 14. Eguenera arte, hilak 12, eman ahaliko da izena. **Nola amaitu duzu 24 orduko txapelketako antolakuntzan?**

MUko ikasle talde bat gara eta ikasturteko helburuetako bat da sortzen gabiltzan enpresarendako dirua lortzea. Kaleko zurrumurruek bidez enteratu ginen Zaldibarko betiko antolatzaileek aurten ez zutela txapelketa hori antolatuko. Euren jarri ginen harremanetan eta kalean entzuten zena ziurtatu ziguten, aurtengoa antolatzeari gure eskuetan utzita.

Esan ziguten nekatuta amaitu zutela urte osoko txapelketa-ekin, eta begi onez ikusi zuten guk antolatzeko. Bileran egin genuen taldekideen artean, eta aurrera egitea erabaki genuen.

Iaz 16 taldek hartu zuten parte. Zenbat espero dituzue aurten?

Kopurua berdintzea ondo legoke, baina ea gainditzea lortzen dugun. Oraingoz, bost taldek bakarrik eman dute izena, baina ezagun askok esan didate taldea osatzeko asmoz dabilzala.

Badakigu halakoetan jendeak azken ordura arte itxaroten duela, baina uztailearen 12a da azken eguna. Egun horretatik aurrera ez dugu talderik onartuko.



Ander Arizaleta, Zaldibarko pilotalekuan, kartela eskuan. | JOKIN BEREZIARTUA

"Barra bat jarriko dugu edatekoarekin, harmailetan giro beroa egon dadin"

Zer egin behar da izena emateko?

Talde bakoitzak 60 euro sartu behar ditu honako kontu korronte zenbakian, taldearen izenarekin: 2101 0038 52 0128268802. Izena emateko azken egunaren ostean zenbat talde dauden ikusiko dugu eta horren arabera zehaztuko dugu partiduen taula. Horrez gain, edozein zalantza argitzeko, 637 78 74 41 telefono zenbakira deitu edo zaldibarko24or-

duak@gmail.com helbide elektronikora idatzi.

Parte hartzea erabat librea da, 16 urtetik gorakoendako. Herri osoa gonbidatu gura dugu parte hartzera.

Sariak ere izango dira, ezta?

Bai, horixe! Finalistendako eta jokalarionenarendako garaikurrak egongo dira. Gainera, irabazleek bildotsa eta urdaiazpikoa jasoko dute sari moduan, eta oraindik pentsatzen gabiltza txapelkunordeei zer eman.

Bestalde, barra bat jarriko dugu edatekoarekin, harmailetan giroa ahalik eta beroena izan dadin. Espero dugu jendeak ondo erantzutea; ea txapelketa polita irteten zaigun.

Uztailaren 30ean betiko esango du agur Ceciaga etxeak

Saltzen ez den arropa Caritasi eta gizarte lanean diharduten antzeko erakundeei emango diete

J.B. | ARRASATE

Otsailean eman zuten itxieraren berri, baina orduan ez zuten eguna zehaztu. Denda likidazioan jarri zuten, arrasatearrek azken erosketak egiteko aukera izan zezaten. Bada, orain badakigu noiz itxiko dituen ateak betiko Arrasaten instituzio bihurtu den Ceciaga etxeak: hilaren 30ean izango da. Oraindik ere dendara sartuz gero arropa asko dagoela pentsa daiteke, baina Rosarito Zeziagak aurreratu du saltzen ez dena gizarte lanean diharduten erakundeei emango diotela. Caritasi, mojei eta antzeko erakundeei, hain justu. Eta gero zer? Honakoa esan digu Zeziagak: "Denbora luzeagoa izango dugu

guretako, etapa berri bat izango da gure bizitzetan. Negozioarekin ez dakigu zer pasako den; ez dakit besteren batek hartuko duen, ikusi behar".

"Pena eman arren, ordua da"


Etapa berria, beraz: "Batzar bat zegoela? Ezin joan. Medikua-rengana joan behar nuela? 07:30ean joan behar, goizeko lehen orduan. Denda itxi ostean bestelako lasaitasun batekin biziko naiz", dio ugazabak. Bezeroenganako esker on hitzekin agurtu da Zeziaga: "Mila esker, guztioi. Pena handia ematen digu, baina nik dagoeneko 71 urte ditut eta adin honekin heldu da erretiratzeko ordua". Mila esker, zuei!



Ceciagako lantaldea, denda gaineko balkoitik begira. | JOKIN BEREZIARTUA

TXALOAK ETA TXISTUAK

Ordutegiak, gaztelaniaz bakarrik

 Irakurle batek jakinarazi digu ospitale ondoko autobus geltoki adimendunak ez dakiela euskaraz. Informazio orokorra eta guardiako farmazia zein den esaten du euskaraz, baina ez, ordea, Lurraldebusen autobus ordutegiak. Horren ordez, asteko egunak gaztelaniaz esaten ditu.



JOKIN BEREZIARTUA

Bakarrik bizi diren adinekoen etxetara jotzen duten iruzurgileen berri eman du Udaltzaingoa

Etxetara deitzen dute eta 60 urtetik gorako pertsonarik bizi den galdetzen dute, besteak beste: "Horrela jakiten dute adineko pertsonak zein etxetan bizi diren bakarrik, eta bertara joaten dira, osasunarekin lotutako produktuak saltzera. Adineko pertsona horri sinatu eragiten diote kontratu bat eta hurrengo egunean etxera etortzen zaizkio saldutako produktuak eta dirua kobratzeko asmoz", jakinarazi du Udaltzaingoa. Arrasaten oraindik ez dute salaketarik jaso; hala ere, abisua pasa dute.

Atez atekoaren kontrako sinadura bilketa hilaren 15ean amaituko dela gogoratu du Arrasate Garbik

Eskuorri gehiagoren eta informazioaren eskean "jasotako dei kantitate handiaren aurrean", Arrasate Garbi plataformak gogora ekarri gura du "birziklapenaren eta bosgarren edukiontzia alde baina atez atekoaren kontra" dauden arrasatearrei uztailearen 15era arteko epea dutela sinadura emateko. Honako helbidera bidali behar da sinadura: arrasategarbi@gmail.com. Edo modu digitalean <http://bit.ly/NbeCHX> helbidean sina daiteke. Gainera, telefono zenbakia ere eman dute: 688 88 68 87.

Bittor Alberdi, Pol-Pol Mendizale Taldeko presidente berria

Osasun onean dago mendizaleen elkarte, 700 bazkide ingururekin; Udal Pilotalekuan daukate lokala

EDU MENDIBIL | BERGARA

Maitzaren 23ko batzar orokorrean zuzendaritzaren berritzea izan zuten aztergai eta Bittor Alberdi *Satorretxe* da Pol Pol Mendizale Taldeko zuzendari berria. Harekin batera, Felix Maiztegik idazkari eta diruzain lanak beteki ditu eta Xabier Lijó, Jone Salegi eta Jesus Mari Zabaleta bokalak izango dira zuzendaritzako gainerako kideak.

Pol-Pol Mendizale Taldeak eta Bergara KEko pilota sailak lokala konpartitzen dute Udal Pilotalekuko lehen solairuan, maiatzaren hasieratik. Dagoeneko hasi da han lanean zuzendaritza berria. Bittor Alberdiren ustez, elkarte indartsu dago eta talde ezberdinen artean betaranoena da aktiboenetakoa agian. Domekan, uztailearen 15ean, Zugarramurdi eta Etxalar aldera irteera egingo dute mendizale betaranoek. Izen-ematea bulegoan egin daiteke.

Lokal berrian pozik

Bestalde, oraingo asteen Mendia Bizirik taldekoekin batzekoak dira zuzendaritzakoak eta, dato-



Bittor Alberdi Pol-Pol Mendizale Taldeko presidente berria elkartearen lokal berrian, Udal Pilotalekuan. | GOIENA

zen hilabetei begira, GPS ikastaroa eta mendi argazkien erakusketa dauzkate esku artean. Bittor *Satorretxe*-k adierazitakoaren arabera, Udal Pilotalekuko lokal berria pozik daude, baina euren asmoa da etorkizunean lokal propioa izatea.

700 bazkide inguru

Esan bezala, osasun onean dago elkarte. 700 bazkide inguru ditu Pol-Polek gaur eta aurten 30 bazkide berri lortu dituzte, jende gaztea gainera, *Satorretxe* azpimarratzen duen moduan. Jendearendako astelehenetik eguaz-

tenera dago zabalik Udal Pilotalekuko bulegoa, 19:00etatik 20:00etara. Telefono zenbakia lehengo berdina da: 943 76 48 51. Era berean, www.pol-pol.net webgunean ere elkartearen gaineko albisteak eta bestelakoak aurkituko dituzue.



Auzolandegietako zenbait gazte, Mizpirualdeko egoliar talde batekin. Eskumako argazkian, Bergarara etorritako gazteak Zabalotegin. | A.BARRUSO/LEIRE ELIZBURU



Hasi dira auzolandegietako gazteak Mizpirualden lanean

Astelehenean 24 gazte etorri ziren, lehenbiziko txandan: hirugarren urtez antolatu dituzte auzolandegiak

A. BARRUSO/E. MENDIBIL | BERGARA

Aurreko astelehenean hasi ziren lanean Estatuko hainbat tokitatik Mizpirualde Egoitzako auzolandegietara etorritako gazteak. Hamabostaldi bitan banatuta, 50 bat gazte etorriko dira gurera *Belaunaldi arteko trukaketa* auzolandegietan parte hartzera. Astelehenean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan egindako harre-raren ondoren, lehen txandako 24 gazte hasi ziren lanean. Soraluze, Leioa, Zarautz edo Hondarribikoak dira batzuk; Kordoba, Sevilla edota Ceutatik etorrita-

koak ere badira. Hirugarren urtez antolatu dituzte auzolandegiak Bergaran. Gazteek, esan bezala, Mizpirualde egoitzan jardungo dute, bertako egoiliarrekin dinamizazio lanetan: zaharrak paseatzera atera, eurekin kartetan jolastu eta bestelakoak egingo dituzte. Gaur egun 100 egoiliar dira Mizpirualden eta pozik jaso dute han gazteen etorrera.

Bi txandatan

Lehenbiziko txandan 18-25 urte bitarteko 24 lagun etorri dira. Ondoren, bigarren txanda baten,

beste 26 gazte etorriko dira, uztaileko bigarren hamabostaldian. Auzolandegien proiektua Bergarako Udala eta Eusko Jaurlaritzaren artean eraman dute aurrera. Hezkide eskola dihardu dinamizazio lanetan Bergaran eta lau begirale dira gazteekin: Estibaliz Etxaide, Leire Elizburu, Ana Perez eta Asier Peña.

Xabaloten lo

Mizpirualde egoitzatik gertu dagoen Xabalote Gaztelekuan lo egingo dute gazteek auzolandegiak iraun bitartean. Esan bezala, hirugarren

urtez etorri dira Bergarara auzolandegietan parte hartzera: 2009an izan ziren lehenbiziko aldiz eta iazkoa izan zen bigarren ekitaldia. Programa Europa mailakoa bada ere, gurera Estatukoak etortzen dira.

Mizpirualdeko nagusiekin jarduteaz gain, gure ingurua ezagutzeko aukera izango dute baita, eta herriko bizitzan murgilduko dira datozen asteotan. Hainbat irteera egingo dituzte; besteak beste, Gaztelugatxe eta Mundaka ezagutzera joango dira aurten.

Mikel Diez zenaren lana gogoratuz Aroztegin

E.M. | BERGARA

Mikel Diez zenaren margo erakusketa ikusgai dago Aroztegi aretoan. Margolaritzan zein txotxongiloen munduan Mikel Diezek (1967-1996) egindako lana jaso dute erakusketan Bearteko kideek. Uztailearen 29ra arte izango da zabalik Barrenkaleko aretoan, ohiko ordutegian.



Erakusketako lanetako bat.

OHARRAK

LABEGARAIETA KIROLDEGIKO TABERNA

Labegaraietako kiroldegiko tabernaren ustiaketa eta instalazioaren kontrola eta garbiketa lehiaketara atera ditu Udalak. Kontratuaren iraupena lau urtekoa izango da, beste bi urterako luzatzeko aukerarekin. Lizitazioarako gehieneko kopurua 16.475 euro izango da, BEZ kanpo. Informazioa eta oinarriak Agorrosingo kirolgunean, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara. Proposamenak uztailearen 20ra arte jasoko dituzte udaletxeko erregistroan.

HIPO ETA TOMAX EGUBAKOITZEAN MUNIBEN

Egubakoitzean, hilaren 13an, Hipo eta Tomax pailazo taldearekin emanaldia izango da Muniben, 19:30etik aurrera. Bereziki txikienei zuzendutako emanaldia da, baina adin guztietakoak daude emanaldira gonbidatuta.

KULTUR TALDEENDAKO LAGUNTZAK

Bergarako irabazi asmorik gabeko kultura talde eta elkartei 2012. urtean garatuko dituzten jardura eta egitarauetarako dirulaguntzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean daude eskuragarri. Era berean dirulaguntza eskaerak egiteko epea datorren uztailearen 23an, 13:00etan, amaituko da. Udalak jakitera eman duenez, edozein argibidetarako kultura etxera, bulego ordutegian, edo 943 77 91 58 telefono zenbakira jo dezakete interesatuek.



Txus Blues & Jose Bluefingers bikoteak bluesa eta umorea uztartzen ditu. Espoloian izango dira egubakoitzean. | GOIENA

Txus Blues & Jose Bluefingers Espoloian eta Orfeoikoak kaleetan eguenean

Berumuga programazioaren barruan, Bartzelonako bikoteak emanaldia egingo du egubakoitzean; bezperan, Orfeoiko kideek pintxo-potea alaituko dute

EDU MENDIBIL | BERGARA

Berumuga programazioarekin jarraituz, oraingo egubakoitzean, hilaren 13an, Txus Blues & Jose Bluefingers taldearen txanda izango da. Espoloian emanaldia eskainiko dute, 22:00etan. Bartzelonatik datoz Txus Blues & Jose Bluefingers eta bluesa eta umorea uztartzen dituzte; abesteaz gain, umorea erabiltzen dute ikus-entzuleak ondo pasatzeko.

Aurtengoa Berumuga programaren 12. ekitaldia da eta bost taldek eskainiko dituzte kontzer-

tuak, uztailean eta abuztuan. Joan den egubakoitzean izan zen lehenbiziko hitzordua Juan De Diego Trakas laukotearekin. Espoloian izango dira emanaldi guztiak, 22:00etan, doan.

Orfeoiko kideak, eguenean

Bestalde, Bergarako Orfeoiko kideak kalera aterak dira kantura eguenean, hilaren 12an. Beraz, pintxo-potea alaiagoa izango da oraingo astekoa. Orfeoiko kideak 20:00etan aterako dira eta kalez kale jardungo dute kantuan.

Zinema emanaldiak gaztetxean

Bestalde, gaztetxeko kanpoko patioan zinema emanaldiak izango dira uztaileko martitzenetan. Emanaldiak doanekoak izango dira, 22:30ean. Bihar, martitzena, Benoît Delépine zuzendariaren *Aaltra* emango dute eta hurrengo asterako, berriz, *Askatasunaren ibilaldia* iragarri dute. Julian Schnabelen *La escafandra y la mariposa* hilaren 24an iritsiko da eta azken emanaldia hilaren 30ean izango da: *La cortina de humo*, Barry Levinsonena.

Cespako lau langile indemnizatu beharko ditu Udalak

E.M. | BERGARA

Auzitegi Gorenako Gizarte Gaietarako 4. zenbakidun Salak ez du onartu Bergarako Udalak lehengo epaiaren aurka jarritako kasazio-errekurtsoa eta beraz zerbitzua azpikontratatuta egon zenean bertako hainbat langile indemnizatzen kondenatu dute Udala. Hain zuzen ere, Jose Mari Telleriarte, Felix Barrocal, Alfredo Najera eta Mari Carmen Garciak Udalaren aurka jarritako demanda dela-eta, aurreneko epaia irmoa dela aitortzen da, eta honako hauek dira ordaindu beharreko kalte-ordainak eta tramitazio-soldatak: Mari Carmen Garcia 46.260 euro kalte-ordainak eta 8.369 euro tramitazio soldatak; Jose Mari Telleriarte, 3.735 eta 1.275 euro; Alfredo Najera, 94.640 euro kalte ordainak eta 12.441 tramitazio-soldatak; eta Felix Barrocal 42.498 eta 8.685.

Ekainaren 11ko Gobernu Batzarreko aktan jasotzen denez, tramitazio-soldatak ordaintzea atzeratu egingo da epaitegitik informatu arte lanik egin zuten edo ez 2010eko irailetik abenduaren 15era. Tokiko Gobernu Batzarrak kalte-ordainak ordaindu eta "soldatak" aurrerago ordaintzea, Epaitegiaren erantzuna jakindakoan, erabaki zuen.

Uztaileko bigarren odol ateratzea, hilaren 25ean

Bergarako odol emaileen elkarteak jakitera eman duenez, uztaileko bigarren odol ateratzea ez dute egingo hilaren 18an, 25ean baizik. Beraz, anbulatorioan izango da dol ateratzea uztailearen 25ean, 18:00etatik 20:30era.no zenbakian.

Autoen bedeinkapena bihar San Kristobalen

Bihar, uztaileko 10, San Kristobal eguna ospatuko dute Aldai Egia auzoan, Angiozarrera bidean. Antolatutako ekitaldien artean, aspaldiko ohiturari eutsiz, eguerdiko mezaren ostean autoen bedeinkapena egingo dute.

San Martin jaietarako txosnen eskaerak, hilaren 21erako

San Martin jaien barruan, irailaren 15ean Udalak jarriko duen txosnaren esplotazioa adjudikatzeeko oinarriak argitaratu ditu Udalak. Bi txozna jarriko dituzte bata San Martin plazan, girotzen laguntzeko, eta bestea Muniben, besteak beste, taloak saltzeko.

Adjudikazioa zozketa bidez egingo dute uztailearen 23an eta eskaerak aurkezteko epea uztailearen 21era arte izango da zabalik. Bergarakoak izan eta irabazi asmorik ez duten kultura edo kirol elkarteek, talde herrikoiek eta elkarte benefikoez aurkez ditzakete eskaerak. Argibide gehiago udatean jaso ditza-kete interesatuek.

TXALOAK ETA TXISTUAK



Iralako bi jarleku, jolaserako oztopo



Irakurle baten deia jaso dugu, Irala kalean, Zabala farmaziako frontoi txikia zenaren ondoan jarri dituzten bankuak direla eta. Iralako urbanizazio lanak egin zituztenetik jolasterako espazio polita egokitu zuten bertan, baina Udalak gune hori ezabatzea erabaki du bi jarleku bertan kokatuta. Irakurlearen ustez, aipatutako jarlekuak ez daude leku egokienean, eta beste irtenbide bat posible zela dio hark.



Mizpirualdeko egoiliarrak Altzasun

Mizpirualde Egoitzako egoiliarrek Altzasu elkartera irteera egin zuten orain dela pare bat aste. Ohikoa bilakatu da Altzasuko bazkideen gonbitea eta hara bazkaltzera joan ziren Mizpirualdeko 60 bat lagun. Ondo baino hobeto hartu zituzten Altzasun eta giro onean bazkaldu zuten. Gonbidapena eta emandako tratua eskertu dute Mizpirualdeko arduradunek. Egoiliarrak ere poz pozik itzuli ziren. Irudian Mizpirualdeko egoiliarrak Altzasuko ordezkariekin eta egoitzan boluntario lanak egiten dituztenekin. Guztien lana, txalogarria.



Lau pilotari iazko txapelketako kadete mailako lehia jokatzeko | GOIENA

Plazako pilota txapelketa bertan behera utzi dute

12 urteren ondoren antolatzaileek erabaki dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendik antolatu izan duen plazako pilota txapelketa bertan behera utzi dute. 12 urteren ondoren, aurten ez ditugu harrobiko pilotariak ikusiko jokoan. Pilota sailak, nekatuta, txapelketa ez antolatzea erabaki du. "Lan handia egin dugu urtez urte txapelketa bizirik mantentzeko. Punta-puntako pilotariak ekarri ditugu, baina zaleek huts egin digute. Beti betikoak egoten ginen: antolatzaileak, neska-mutiko banaka batzuk eta jokalarien senitarteak. Zaleen gainbehera ikusita, aurten ezer ez egitea erabaki dugu", esan digu pilota saileko Julian Doradok.

Oraingoz, behin behineko erabakia da. Plazako txapelketa berrituz eusteko aukera bakarria, zaleek haren falta sumatzea da.

"Ikusiko dugu. Akaso, partidurik ez dagoela konturatzen direnean, zaleak etorriko zaizkigu galdezka. Hala bada... Dena den, ezkorrak gara, eta pena handia daukagu, 12 urteko bidea egin ondoren, errotutako txapelketa delako", dio Doradok.

Kadete eta gazte mailetako bikoteek jokatu izan dute plaza-

ko txapelketa. Urtero, Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako eta Errioxako pilotariak egon izan dira. Iaz, adibidez, 36 bikotek parte hartu zuten, eta irabazleak izan ziren, Intxausti eta Imaz segurarrak kadete mailan, eta Calvo eta Gartzia najerarra, gazte mailan.

Aire libreko frontoiak

Aloñako pilota sailak antolatu izan duen txapelketak bi helburu nagusi izan ditu: kadete eta gazte mailetako pilotarien denboraldia luzatzea, eta aire libreko pilotaleku gutxi daude. Herrikoa bultzatu eta pilotariendako partiduak antolatzeko ipini genuen martxan txapelketa. Jokalariek estimu handia diote frontoiari eta txapelketari", dio Doradok.

ESANAK

"Txapelketa errotuta zegoen, baina zaleek ez dute erantzun"

JULIAN DORADO | PILOTA SAILEKOA

Jai egitarauko azala aukeratzeko deialdia egin du Kultura Sailak

Eskaerak aurkezteko azken eguna: uztailak 13

M.B. | OÑATI

Bi hilabete geratzen dira San Migel jaietarako, baina, urtero moduan, oporren aurretik, jai egitarauko irudia aukeratzeko deialdia egin du Kultura Sailak.

Aurtengoa lehiaketa berezia izango da, neska-mutikoen parte-hartzea bultzatzeko, euren oinarri bereziak egin dituzte: 12 urte artekoendako da, eta teknika librea erabili ahal izango dute, besteak beste, argazkia, pintura, marrazkia edo collage-a. Interesatuak hilaren 13a baino lehen entregatu behar dute lana kultura etxean. Irabazleak oparia eta

lanaren argitalpena jasoko ditu sari gisa.

Paperean edo CD baten

Epe bera izango dute nagusien mailakoek. Oñatiarra izan edo Oñatin bizi den edonork parte har dezake. Teknika librea erabili, *Oñatiko Jaixak 2012* testua izan beharko du irudiak. Lanak paperean edo CD baten aurkeztu ahal izango dira.

Lehen saria lortzen duen irudia San Migeletako egitarauko portadan publikatuko dute. Gainera, egileak, 350 euro jasoko du.

Erretiratuendako argazki ikastaroa Ulmarekin

M.B. | OÑATI

Ulma Fundazioak erretiratuendako argazkilaritza digital ikastaroa antolatu du. Ilunpetan argazki taldekoek emango dute ikastaroa hilaren 19an, 09:00etatik 13:00etara arte. Izena 943 25 03 00 telefonon edo fundacion@ulma.com helbidean eman daiteke.

Ikastaroaren helburua erretiratuek argazkilaritzari buruzko oinarriko ezagutzak jaso, argazki kamera digitala eta ordenagailuaren arteko konexioa ezagutu eta erretiratuak egitea da. Erretiratu onenak saria jasoko du.

Tourrera doan autobuserako izena emateko epea zabalik

M.B. | OÑATI

Markel Irizar, Aitor Garmendia eta Jon Odriozolaren lagunartek Tourreko bi etapa ikustera joateko autobusak antolatu dituzte. Dagoeneko egin dute deialdia, eta izena emateko epea zabalik dago: interesatuak hilaren 13ra arte eman dezakete izena, Oñatiko Lizarralde kirolak dendan (943 78 29 86). 12 urtetik beherakoek 75 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek 150 euro. Prezio horren barruan daude autobusa, janaria eta edaria. Lo egiteko lekuak eta beste, norberak eroan beharko ditu. Izena ematerakoan ordainketa egin beharko dela.

Autobusak Oñatiko Olakua tabernaren aurrealdetik irten go dira hilaren 17an, 14:30ean, eta leku mugatuak daudenez, lehenbailehen izena ematea komeni da.

Hilaren 16koa eta 17koa

Pirinioetako bi etapa ikustera joango dira; hain justu ere, hilaren 16koa (Tourreko 18. etapa) eta hilaren 17koa (19. etapa).

18. etapak 197 kilometro ditu eta Pau eta Bagnères-De-Luchon artekoa da. Ziklistek Aubisque, Tourmalet, Aspin eta Peyresourde igoko beharko dituzte. Azken hori helmuga baino 16 kilometro lehenago.

Hurrengo eguneko etapa, Bagnères-De-Luchonen hasi eta Peyragudesen bukatuko da, eta 142,5 kilometro ditu, eta mendi gainean bukatuko da, 1.603 metroan. Aurretik beste hainbat mendate igoko beharko dituzte; hain justu ere, Mente, Ares, Burs, eta Bales.

Etapa hori bukatuta, etxerako buelta hartuko du Oñatiko *marea laranja*.



2010eko Tourreko tropela maldan gora. | MIKEL LIZARRALDE

San Kristobal eguna ospatuko dute herriko gidariek bihar, martitzena, autoak lorez apainduta

Bihar, uztailak 10 San Kristobal eguna da, eta herriko gidariek euren zaindariaren eguna ospatuko dute. 19:00etan dute hitzordua, santuaren ermitan, Olabarrieta auzoan. Handik bata bestearen segidan joango dira, ibilgailuak lorez apainduta dituztela, parrokiaraino. 19:30ean meza izango dute eta auto guztiak bedeinkatuko dituzte. Afaria Etxe-Aundin egingo dute, 21:00etan.

Udako kirol kanpainako bigarren txanda gaur hasiko dute eta hainbat eskaintzatan lekua dute

Udako kirol kanpainako bigarren txanda gaur bertan hasiko dute, eta hilaren 20ra arte egingo dute. Hainbat ekintzatan lekua dute: mendi bizikletan, minitensean, tenisean, badmintonean, squashean, patinajea, jolasetan, pilotan, erraketa kirolan eta eskaladan. Bestalde, abuztuko bi txandatarako (abuztuaren 1etik 14ra eta 21etik 31ra) izena eman daiteke oraindik. Abuztuaren kirol eskaintza txikiagoa da: uretakoak eta erraketarekin egitekoak.

Jai parte-hartzaileak bultzatzeko batzarra egingo du jai batzoardeak, bihar, martitzena 18:00etan

San Migel jaiak herritarren proposamenekin antolatu gura du Kultura Sailak. Hori horrela, batzar irekia egingo dute bihar, martitzena, 18:00etan, kultura etxean. Proposamen edo ekarpenen bat egin gura duten herritar guztiak gonbidatu gura dituzte. Hirugarren batzarra izango da: lehena orokorra izan zen, eta bigarrena Herri Egunaren gainekoa. Parte-hartze prozesuaren ondorio nagusienak hil bukaeran aurkeztuko dituzte.



Eskoriatzako udaletxea izan da lehiaketa honetako lehen fasean puntuazio altuena lortu duen eraikina. | KZGUNE.NET

ESKORIATZA

Udal eraikinetan eta erabilera publikoa daukaten eraikinetan, lehiaketa

Helburua da eraikin horiek jasangarriago egitea eta pixkanaka-pixkanaka ingurumena zaintzeko kontzientzia herritar guztiengana zabaltzea

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Udalak erreferente izan nahi du ingurumena zaintzen eta baita herritarrek kontzientziazten ere, eta lehiaketa bat bideratu du udal eraikinetan eta erabilera publikoa daukaten eraikinetan jasangarriago izateko.

Lehiaketan parte hartu dute udaletxeak, Teleskok, liburutegiak, Arizmendi-Almeneko eraikinetan, zaharren egoitzak eta kultura etxeak. Azken lau asteetan astero galdetegi bat bete behar izan dute. Gaiak hauek izan

dira: zaborra, ura, energia, papeira eta erosketak, besteak beste. Galdetegiak jaso eta hurrengo astean galdera sorta berriarekin batera bidali zaie aurreko galdetegian zenbat puntu lortu zuten eta aurreko asteko gaiaren gaineko gomendio batzuk, zer hobetu behar duten jakiteko.

Horrekin Udaletik nahi izan dute lortzea inkesta hori betetzen zuten pertsonak jakitea zein gomendio hartu behar dituzten kontuan eraikin hori jasangarriagoa izateko. Etaaldi berean,

Udaletik jaso duten informazioaz lortu dute eraikin bakoitzaren diagnostiko txiki bat egitea. Hauxe esan digu beñat Herce alkateak: "Nahiko ondo egon da, parte-hartzea ez da izan guk espero bestekoa eta aurkitu ditugu zenbait gauza hobetu beharrekoak, baina jarraitzeko asmoa daukagu".

Lehiaketaren lehenengo fasean puntuazio altuena lortu duen eraikina udaletxea izan da eta bigarren fasea, udako oporren ostean, irailean jarriko dute martxan.

ARETXABAETA

Portasolgo jaiak antolatzeko diru beharrean

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Hilaren 20tik 22ra ospatuko dituzte Portasolgo jaiak, Araba ibilbidea eta Loramendi inguruko kaleetan. Bertako merkatari eta ostalariak dagoeneko hasi dira jaiak antolatzen eta dirua behar dute egitarau txukuna gertatzeko. Horregatik auzotarrengana jo dute laguntza eske.

Auzotarren laguntza eske

"Gero eta egun gutxiago gertzen dira jaietarako, horregatik zuon, auzotarron, laguntza behar dugu", egin dute dei jai batzordeko kideek. Orain egun batzuk dirua jasotzeko kartazalak banatu zituzten auzoko atarteetan, eta bizilagunak jaietarako dirua emateko gertu egonez gero kartazal horiek lehenbailehen bueltatzeko eskatu dute. Okindegira edo Brasileña kafetegira eroan behar dira. "Eskerrrik asko auzotar guztioi, dirua eman duzuenoi eta gainerakooi, zuen laguntza oso garrantzitsua delako", adierazi dute antolatzaileek.

Zozketa abian

Era berean, jai batzordetik gogorarazi nahi izan dute hirugarren zozketa dutela abian. Oraingoan 125 euroko bi sari banatuko dituzte, eta diru hori izango da jaietako egitarauaren publizitatea egin duten komertzioetan erabiltzeko.

Liburuxka bat argitaratu dute Loramendikoek

Loramendi elkarteak antolatutako literatura lehiaketan saritutako lanekin liburuxka bat argitaratu dute eta liburuxka horiek dagoeneko herriko liburutegian daude maileguan hartzeko moduan. Aurtengo literatur lehiaketako liburuxkak atera dituzte eta horietan 2011 eta 2012ko literatur lehiaketetan sarituak izan ziren lan guztiak daude argitaratuta. Loramendi elkartearen ere badituzte ale batzuk eta Arrasateko liburutegian ere aleren bat utzi dute. Beraz, Loramendikoek ateratako liburuxka nahi baduzue, badakizue nora jo.

Ezohiko osoko bilkura egingo da gaur, Aretxabaetan

Gaur, astelehena, ezohiko osoko bilkura egingo da Aretxabaetan arratsaldeko 18:30ean pleno aretoan. Bertan aztergai hauek izango dituzte berbagai: alde batetik, 2012ko ordenantza fiskalen aldaketa, hau da, kiroldegi berriko tasak izango dituzte hizpide lehenik; bestetik, alkatearen erabateko dedikazioaren aldaketari buruz ere egingo dute berba ezohiko osokoan; eta azkenik, askatasun sexualaren egunari buruzko Bilduren mozioa aurkeztuko dute. Hiru gai horiei buruz hitz egingo dute, beraz, gaur arratsaldean Aretxabaetan egingo den ezohiko osoko bilkuran.

ESKORIATZA



AITOR AGIRIANO

Gora San Fermin!

San Fermin jaiak hasi aurretik, egunean, ospatu zituzten San Fermin jaiak Eskoriatzako udalekuekako 220 gaztetxok. Guztiak zuriz jantzita eta zapi gorriarekin joan ziren udalekuekara eta entziera berezian korrika egiteko aukera izan zuten. Primeran pasa zuten udalekuekako gaztetxoek.

ARETXABAETA/ESKORIATZA



TXATXILIPURDI

Udaerorekin gaztetxoak ederki dabilta dibertitzen

Udaero, Aretxabaeta eta Eskoriatzako gaztelekuetako uztailko programatik, gaztetxoek bi irteera egin zituzten joan zen astean. Eguaztenean Lekunberriko Baigorriko abentura parkean ibili ziren 17 gazte. Egunean, berriz, Ozaeta eta Landara joan ziren goiko argazkian ikusten den moduan eta 28 gaztetxoko taldeak egun ederra pasa zuten. Kartetan jolastu, ginkana egin, Landan bainu bat hartu... denetarik egin zuten. Gaur, astelehena, surf egitera joango dira eta datozen egunotarako ere badituzte hainbat ekintza aurreikusita.

ARAMAIO

Alex Mendikute | Aramaioko Ondarea Berreskuratzeko Taldeko (AOBT) kidea

"Sorpresa atsegina eraman nuen, jende gutxi egoten da-eta auzolanerako gertu"

Murugaingo indusketen bigarren faserako auzolandegiak datorren astean hasiko dira; 36ko gerrako material beliko gehiago aurkitzea espero dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Bost urte pasa bete ditu dagoeneko Aramaioko Ondarea Berreskuratzeko Taldeak (AOBT). Hasiarik taldeko kide da Alex Mendikute (Aramaio, 1958) eta orain Murugaingo indusketen bigarren fasean buru-belarri dabilta, Aramaioko ondarea ahanzturan gal ez dadin lanean.

Hasteko, nola baloratzen duzu AOBTren orain arteko ibilbidea?

Herritxiki bat gara eta mugitzen garenok saltsa guztietan ibiltzen gara. Urtero antolatzen dira lan batzuk eta gutxinaka gauzatzen dira. Gaur egungo bizimodua nolakoa den ikusita lanez lepo eta alde batetik bestera prisaka gabiltza egun osoa, ezin gara kexatu, poliki-poliki lanak aurrera irteten dira-eta.

Orain bertan Murugaingo indusketak dituzue begiz jota. Badirudi herritarren interesa piztu dutela.

Murugaingo indusketek herritarren interesarekin piztu dutela agerikoa da, hori ere iaz ikusi genuen. Hala ere, hasieran asko kostatzen da jendea mugitzea eta lehen bilera horretan agertu zirenekin sorpresa atsegina eraman nuen. Bospasei lagun agertu ziren eta egia esan behar badut jende gutxiago espero nuen, oso gutxi izaten dira-eta auzolanerako gertu egoten diren herritarrek. Hala, koak justifikatzea ez da erraza izaten, boladak izaten dira; orain badirudi bolada ona hartu dugula, eta aprobetxatu behar.

Nik uste jendeak erantzungo duela; lehen bilerak utzitako tentsazioak behintzat oso onak dira. Ateak erabat irekita ditugu lan egin gura duenarendako.

Zeintzuk dira indusketen bigarren faserako dituzuen aurreikuspenak?

Lubakietan aurki daitekeen material belikoa da erakargarriena jendearendako. Material gehiago aurkitzea espero dugu. Espainiako Gerra gertu dago oraindik eta



Alex Mendikute plazan, auzolanak antolatzeko bileraren ostean. | J. BEREZIARTUA

isilpean eta sufrimenduz eraman dute askok. Hori da interesa piztu izanaren arrazoietakoa bat.

Oraindik enteratu ez denarendako: zer egin behar da indusketetan parte hartzeko?

Kartelak jarriko ditugu kalean, baina errazena da udaletxera jo eta han informatzea. Jendearen asmoen arabera zehaztuko ditugu indusketa eremuak, beti ere Ondare Babesako langileen gidaritzapean. Lan egitera datorren jendea ondo etorria izango da, bai horixe.

"Lubakietan material beliko gehiago aurkitzea espero dugu"

Auzolana, adituen ondoan

Ondare Babesa arkeologia enpresako langileak bigarren hamabostaldi osoan arituko dira lanean Murugainen. Hori bai, bigarren fasean auzolanean oinarrituko dira lanok. Joan den asteko lehen bileran zehaztutako moduan, honakoak dira auzolanerako egunak: hilak 18, 21, 25 eta 28.

Aurkikuntzak jaso eta emaitzak sailkatu ostean asmoa da irailean aurkikuntzen aurkezpena egin eta bisita gidatuak egitea, Murugainen bertan.

jaietako programa. Ikusgai duzue antzuela.com webgunean.

Ibarreko I. Txakolin Eguna

Domekan, Debagoieneko Txakolin Eguna izango da. Mankomunitateko Turismo Sailak XI. Jardunaldi Gastronomikoen barruan antolatu du. Izan ere, jardunaldiotan, eskualdean txakolina ekoizten dutenak ere hasi dira elkarlanean. Hala, ibarreko hiru ekoizle hartuko dute parte: Arrasateko Jabier Arregik, Kataide txakolinarekin; Arrasateko Felix Etxagibeleg, Otxiarekin; eta Oñatiko Juan Zelaiak, Upainekin. Helburua da eskualdean ekoizten den txakolina ezagutaraztea.

ELGETA

Eguaztenerako deitu dute jaien balorazioa egiteko batzar irekia

Kantsatzekek, berriz, hilaren 14an Mutriku zeharkatzeko proposamena egin du

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Eguaztenean, hilak 11, batuko da Jaien batzardea Ferixa Nagusiko jaien balorazioa egiteko. Batzar irekia deitu dute, eta ongi-etorriak izango dira bertaraten diren herritar guztiak. Batzarra 19:00etan hasiko da, udaletxean. Gogoratu behar da, bestalde, jaien inguruko iritzia eman nahi izanez gero aukera dagoela. Udalak ferixanagusixak@elgeta.net helbide elektronikoa ahalbidetu du horretarako, eta bertan, herritarrei jaiak zer iruditzen zaizkien, zer kenduko luketen eta zer igarri duten faltan jasoko lukete gustura. Jasotako erantzunak eguazteneko batzarrean aztertuko dira.

Irteera Mutrikura

Kantsatzeke mendi taldeak, bestetik, irteera proposatu du hilaren 14rako, zapatua. Mutriku zeharkatzeko plana egin dute, eta aurreikusten dute bost bat orduko ibilbidea izango dela. Interesatek hilaren 12a baino lehen eman behar dute izena udaletxean edo kantsatzeke@gmail.com posta elektronikoa. Bada, bi aukera daude Mutrikutik bueltatzeko; izan ere, han bazkaldu nahi duenak aukera izango du horretarako. Izena ematen dutenei bost datu eskatuko zaizkie: izen-abizenak, telefono zenbakia, egun horretan autorik duen edo ez eta Mutriku bazkalduko duen edo ez. Prezioa bost euro da.



Bi neskatila buruhandiarengana gerturatzen. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Ehizaren plan teknikoa onartu du Udalak

Ekaineko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak eta orain Aldundiaren oniritziaren zain dago

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Ehizaren gaineko plana egin beharra zeukan Udalak hala aginduta Jaurlaritzak, eta dagoneko eginda eta onartuta dauka. Ekainaren 26ko ohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, eta orain Aldundiaren oniritzia jaso behar du. Horrek ere onatzen emanez gero behin betiko onartuta geratuko da.

Ehiza larria aurten

Eusko Jaurlaritzaren 2011ko ehiza legeak hala eskatuta egin behar izan du plan tekniko hori Udalak, eta 4.000 euro bideratu zituen horretarako aurtengo aurrekontuan.

Urri inguruan hasiko den ehiza denboraldiari dagokionez aldaketa bakarra egongo da. Orain arte ez bezala ehiza larria egin ahal izango da Gatzagan,

hau da, basurdeak, orkatzak eta antzekoak ehizatu ahal izango dira. Hala jaso dute onartutako plan teknikoan, eta aurtengo udazkenean jarriko dute abian.

Federazioaren eskuetan

Bestalde, Gatzagako basoetan dauden postu kopurua ez dute aldatuko aurten. 75 inguru dira guztira; horietatik 18 herrikoen eskuetan daude, eta gainerakoak Gipuzkoako ehiza federazioak kudeatzen ditu.

Udalak 2009an deitu zuen azken lehiaketa, eta lau urterako hartu zuen ardura federazioak. Hala, datorren urteko udazkenean kontratua bukatuko zaie, eta Udalak berriro deituko du lehiaketa. Baliteke postu kopuruan aldaketak egotea orduan.

ANTZUOLA

Eguenean hasiko dira jaiak, udalbatzaren aurrekuarekin

Uztailaren 12tik 15era bitartean ospatuko dira herriko festak; egitaraua prest dago

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Oinarinek lagunduta udalbatzaren aurrekua izango da eguenean, 19:45ean. Ondoren, kale afaria izango da herriko plazan, eta 00:00etan hontzari ongi-etorria. Zapatuan, Mairuaren Alardea izango da. Eguazten honetan, aldiz, entsegu orokorra izango da parte-hartzaile guztiekin, 20:00etan, plazan.

Musikariek ere ez da falta izango. Zapatuan Gozategik girotuko du txosnagunea; Joselu Anaiekin, aldiz, erromeria izango da plazan, urteroko ohiturari eutsiz.

Domekan, larrain-dantza. Gogoratu behar da bihar, uztailak 10, izango dela azken entsegu eskolan, 20:00etan. Aipatu ere dagoeneko banatu dela etxe etxe

UZTAILEKO SARI SORTA


Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

JOKUA
Bidali KLUBA JOKUA
[Bazkidearen zenbakia]
zenbaki hauetara:
SMS bidez 215800
WhatsApp bidez
688 69 00 02



Argia

DVDa
Bidali KLUBA DVD
[Bazkidearen zenbakia]
zenbaki hauetara:
SMS bidez 215800
WhatsApp bidez 688 69 00 02



PAMIELA

LIBURUA ETA DVDa
Bidali KLUBA INTXORTA
[Bazkidearen zenbakia]
zenbaki hauetara:
SMS bidez 215800
WhatsApp bidez 688 69 00 02



Intxorta 1937 Kultur Elkartea

DVDa
Bidali KLUBA GOIKOBALU
[Bazkidearen zenbakia]
zenbaki hauetara:
SMS bidez 215800
WhatsApp bidez 688 69 00 02



Goikobalu Abesbatza

KOLOORE KAMISETA ETA IZERDI-JERTSEA

KOLOORE kamisetak eta izerdi-jertsea
Bidali KLUBA KOLOORE
[Bazkidearen zenbakia] zenbaki hauetara:
SMS bidez 215800
WhatsApp bidez 688 69 00 02.



koloore
www.koloore.es
ESKAERAK:
koloore@koloore.es

IZENADUBA BASOArako SARRERAK

IZENADUBA BASOA, Euskal Herriko lehen parke mitologikora joateko sarrerak*
Bidali KLUBA IZENADUBA
[Bazkidearen zenbakia] zenbaki hauetara:
SMS bidez 215800
WhatsApp bidez 688 69 00 02.



Landetxo Goikoa
MUNGIA
94 674 00 61
www.izenaduba.com



*Iraila bukaera arte eta abuztuaren ixita

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Atera etekina

goienakluba 2012

%15 eko deskontua

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan
MULTIOPTICAS
OPTIKA
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75

• **%15eko deskontua produktu guztietan.**
(ez metagarria beste eskaintza batzuekin).

LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAL

AQUARIUM

Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99

Argia

ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03

AVIA

AVIA MECA
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39

BEGONDO

BEGONDO
optika
Aretxabaleta, 943 79 98 21

GAHIR

GAHIR
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41

Esko Sport

ESKO SPORT
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96

GAES

GAES
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55

GUZTIZ EDER

edertze zentroa
Oñati,
943 78 01 46.

IKER

SUKALDEAK
IKER
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48

lastai

LASTAI
haurtzaintza eta atseden gunea
Gasteiz, 945 35 85 59

LILURA

EDERTZE INSTITUTUA
LILURA
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71

JAIXAK

JAIXAK
denda
Bergara, 943 76 31 45

NAREN

NAREN
fisioterapia zentroa
Aretxabaleta,
943 08 21 89

RENAULT AUTOBERRI

RENAULT AUTOBERRI
kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72

TXURI URDIN

izotz jauregia
Donostia,
943 46 44 00

eureka!

zientzia museoa
EUREKA!
zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78

Urteko kuota: 50 €. | Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



IZENADUBA BASOA

IZENADUBA BASOA
parke tematikoa
Mungia, 94 674 00 61

KIROLA

GATZAGAKO XVI. IGOERA

Arakistain eta Ardions oñatiarra garaile Arlabango igoeran

- ▶ Irteeran 64 pilotu eta ikuskizun ederra Arlabanen
- ▶ Ibilbide berriarekin pozik gidariak eta antolatzaileak

EDU MENDIBIL | ESKORIATZA

Aitor Arakistainek eskuratu zuen garaipena zapatuan jokaturako Arlabango igoeran. Joseba Iraola eta Ruben Nogueiras oñatiarra bigarren eta hirugarren tokian sailkatu ziren, hurrenez hurren, hirurak ere Silver Car S2 autoa gidatuta. David Ardions izan zen turismoen artean onena, laugarren, eta Urrakiko probaren faltan, oñatiarrak txapelketa ia eskuan dauka dagoeneko.

Nobedade nagusia ibilbide aldaketa zen aurten: Gatzagako errepide zaharretik igo beharrean, Arlabanen jardun zuten pilotuek. Igoera berriak sei kilometro ditu eta esan bezala Arakistain izan zen onena, 3 minutu, 18 segundo eta 839 milareneko denbora egin da. Joseba Iraolak 03:21:26 egin zuen eta Ruben Nogueirasek 03:26:49.

Ikusle ugari Arlabanen

Ikusmin handia piztu zuen lasterketa eta antolatzaileak, gidariak zein ikusleak pozik azaldu ziren ibilbide berriarekin. Beroari aurre eginez, ikusle ugari batu

DATUA

64

PILOTU IRTEERAN

Aurtengoa Gatzagako probaren 16. ekitaldia zen eta 64 pilotu lehiatu ziren, antolatzaileen aurreikuspenak gaindituz.

ziren Arlabango bihurtuneetan proba jarraitzeko. 64 pilotu izan ziren irteeran, tartean Debagoieneko ordezkari dezente. Haiendako izan ziren animo eta txalorik handienak ikusleen partetik.

Zabaletak motorra hautsi

Faboritoen artean Aitor Zabaleta bergararrak motorra hautsi zuen zapatuko entrenamendu saioan eta ez zuen parte hartzerik izan. Bezperan motor berria ekarria zuen Zabaletak Lola BMW barketarendako baina zortetik

ez zuen izan, eta amorratuta utzi zuen lasterketa.

Ibilbide berriarekin, gustura

Eskomotor taldeko antolatzaileak pozik azaldu ziren Arlabango igoerak emandakoarekin. Hainbat urtez Gatzagako Igoerak utzitako hutsunearen ostean, duela bi urte hasi ziren ostera ere lasterketa antolatzen; aurtengoa 16. ekitaldia izan da. Dena ondo ateratzen zuten zapatuan eta pilotuek ere oniritzia eman zioten ibilbide berriari. Arakistain irabazleak eta Joseba Iraolak, esaterako, hitz onak besterik ez zituzten ibilbide berriarendako. Arakistainen kasuan, aurtengo lehen garaipena izan zen zapatukoa eta pozik zegoen aspaldian Zumaian bizi den eibartarra. Haren hitzetan, "ondo moldatu naiz ibilbidera eta, egia esan, sorpresa handia izan da garaipena eskuratzea. Gustura jardundut bi txandatan gaur". Bigarren txandan ia segundo baten hobetu zuen lehenbiziko denbora.

Turismoen sailkapenean, David Ardions izan zen irabazlea,



Ruben Nogueiras oñatiarra, zapatuko proban. Lasterketa bikaina egin zuen Nogueirasek,

Mitsubishi EVO VII gidatuta. 3:38:755ko denbora egin zuen oñatiarrak, helmugan ia 10 segundoko aldera ateraz Asier Mugarza herrikideari. Lehia polita izan zuen Mugarzak Jon Etxeberriarrekin, biak ere Renault Clio Sport autoarekin. Azkenean oñatiarrak nagusitu zuen bigarren posturako borrokan, bi segundogatik. Mugarza klase 4 deituriko sailkapenean izan zen nagusi.

Idigoras eta Frutos

Lasterketaren ondoren, sari bana-keta egin zuten Eskoriatzako plazan. Sari nagusiez gain, Gorka Idigorasek herriko onenari zegokion saria jaso zuen: Opel

Astra GSia gidatuta, 19. tokian sailkatu zen Idigoras, 04:00:61 denborarekin. Klase 3 delakoan Idigoras izan zen irabazlea, Egoitza Mujika klase 2an eta Joseba Frutos eskoriatzarra klase 1ean. Frutos junior mailako gidaririk onena izan zen baita zapatuan eta, azkenik, historikoen sailkapenean Rafa Diezek eskuratu zuen garaipena.

Euskadiko Automobilismo Federazioko zein Eskomotor taldeko kideek balorazio positiboa egin zuten. Euskadiko txapelketako hurrengo proba Urrakikoa izango da, urriaren 21ean. Bien bitartean atsedena hartuko dute pilotuek eta zaleek.

DAVID ARDIONS | TURISMOETAN GARAILEA

"Banekien bigarren txandan lortu dudan denbora aurkariak hobetzea zaila izango zela"

Turismoen sailkapenean David Ardions oñatiarra nagusitu zen zapatuan. Sailkapen orokorrean, berriz, laugarren postua eskuratu zuen Ardions. Bigarren txandan egin zuen denborarik onena, 3:38:755 denborarekin. Hirugarrenean, 3:39:478 markatu zuen. Pozik zegoen oñatiarra probaren amaieran. Lagunen eta zaleen zorianak jasotzen zituen bitartean eta podiumera igo aurretik izan ginen harekin.

Imajinatzen dut gustura egongo zarela egin-dako lasterketarekin...

Bai, oso lasterketa polita izan da, luzea ere bai... Hala ere, autoarekin primeran moldatu naiz eta emaitzarekin ere pozik. Gaur lortutako emaitza-

rekin gainera txapelketa eskuan daukat [Federazioaren arabera, oraindik ere Urrakiko igoera erabakigarria gerta daiteke] eta beraz, ospatzeko modukoa gaur egindakoa.

Bigarren txandan egin duzu zure denborarik onena.

Bigarren txanda bukatutakoan banekien nire aurkariak zaila izango zutela denbora hori hobetzea eta ia-ia garaipena eskuan izango nuela. Zorionez, hala izan da eta hirugarren txandan ez dut horrenbeste estutu.

Urrakiko igoera falta orain txapelketari amaiera emateko.

Urriari ospatuko da Urrakiko igoera eta gaurko



David Ardions, Mitsubishi EVO VII autoaren ondoan. | E.M.

emaitzaren ostean hara lasaiago joan ahal izango naiz. Bukatzea eta autoa osorik etxera ekartzea izango dira helburuak Azpeitiko proba horri begira.

Autoak ondo erantzun dizu beraz gaur, ala?

Bai, lehen esan bezala, ondo moldatu naiz autoa-

rekin eta ez dut inolako arazorik izan. Zorionez, dena ondo joan da.

Oraindik goiz hurrengo denboraldiari buruz jarduteko...

Ea gauzak ondo joaten diren eta gero ikusiko dugu. Momentuz autoa salgai daukat. Beraz, norbaitek auto on bat behar badu, badaki...

TXIRRINDULARITZA | Mikel Aristi bergararra Antzuolan bigarren, Jon Ander Insaustiren atzetik | 24



hirugarren postua eskuratuz. | JOSETXO ARANTZABAL

SAILKAPENA

1. Aitor Arakistain	3:18:839
2. Joseba Iraola	3:21:226
3. Ruben Nogueiras	3:26:499
4. David Ardions	3:38:755
5. Asier Mugarza	3:48:132
6. Jon Etxeberria	3:50:250
7. Aitor Ramirez	3:50:849
8. Ander Corcuera	3:51:426
9. Juan Ignacio Zelaia	3:51:690
10. Dany Estevez	3:54:020
11. Joseph Duperou	3:54:970
12. J. Ignacio Erdoizta	3:55:299
13. J. Manuel Prieto	3:56:582
14. Pablo Pelaez	3:56:834

Ibarreko pilotoak, fin

Debagoieneko pilotu dezentek hartu zuten parte zapatuko Arlabango igoeran eta zaleak eta lagunak alboan, lan bikaina egin zuten gehienek. Zalantzarik gabe, haiendako izan ziren animo eta txalorik handienak proba osoan zehar, 15:00etan entrenamendu saioak hasi zirenetik. Ruben Nogueiras oñatiarra izan zen onena, 3. tokian, eta Ardions, Asier Mugarza eta Aitor Ramirez oñatiarren ondotik, Ander Corcuera arrasatearra eta Juan Ignacio Zelaia oñatiarra sailkatu ziren. Igor Orobengoa arrasatearra 15.a izan zen; Idigoras eskoriatzarra, 19.a; Aitor Arnaiz oñatiarra, 23.a; Iker Murillo bergararra, 26.a; eta Joseba Frutos eta Ander Lezeta eskoriatzarrak, 35.a eta 51.a hurrenez hurren.



Juan Ignacio Zelaia 9. tokian sailkatu zen. | J.A.




Aitor Zabaletak motorra hautsi zuen. | J.A.



Aitor Arakistain irabazlea, probaren ostean, Eskoriatzan. | E.M.



Turismoen podiumean, oñatiarrak nagusi: Asier Mugarza, Ardions, Jon Etxeberria eta Aitor Ramirez. | EDU MENDIBIL



Gorka Idigoras, lehen eskoriatzarra. 19. tokian sailkatu zen. | E.M.

ANTZUOLA SARIA

Bizikleta bateko aldeagatik nagusitu zitzaion Insausti Bergarako Mikel Aristiri

- ▶ Esprintean erabaki zen lasterketa
- ▶ Jon Riverok lepauztaia apurtu zuen, lurrera erorita

XABIER URTZELAI | ANTZUOLA

Atzo korritu zuten Antzuola Sarian azken urteotan baino pareago egon ziren indarrak. Iaz Debabarrenako Aitor Gonzalez bakarrik helmugaratzen ikusi genuen, eta atzo gutxiatik ez zion haren taldekide Mikel Aristik erreleboa hartu. Antzuolako kale estuak txiki geratu zitzaizkien esprintean sartu ziren sei lagunei. Azken 60 metroetan, ikusita Jon Ander Insaustiren (Bidelan) eta Mikel Aristiren (Debabarrena) hankak indartsuegiak zirela, atzeko lau lagunek amore eman zuten. Plazara iritsi aurretik, baina, Aristiri une batez salto egin zion kateak, eta horrek ez zion lagundu. Gertaera hori, baina, ez zuen aitzakia moduan erabili: "Gehiago izan da, ez dago besterik".

Lasterketako irabazle Jon Ander Insaustik, berriz, ez zuen esprintean sartzeko esperantzarik: "Azken taldetxoan bi taldekide gindoazen, eta esprintean sartzeko bestea zen hautagaia. Baina, eraso batean indar dezente xahutu du, eta hustuta zetorren. Hala edo nola sartu naiz azken borroka horretan, eta irabaztea lortu dut".

Irabazleak aipatzen duen sei laguneko talde horrek Antzuolara iritsi aurreko azken maldan egin zuen aurrera: "Azken kilometroetan sekulako egurra egon da, Epeletik Antzuolara bitartean 25 laguneko taldea gindoazen, eta ihesaldi ahalegin mordoan egon dira. Hala, ihesaldi ahalegin horiek guztiak zapuzteko lanean ibili ostean ez dakit zergatik, baina azken malda horretan tropelak ez du erantzun, eta aurrea egin dugu", zioen Aristik.


Hasieran, abiadura bizian

Urtero moduan, Antzuolatik Oñatirako joan-etorri biak abiadura bizian egin zituzten txirrindulariek, lehenengoa, batez ere: "Ondoren lasaitu egin gara apur bat", zioen Hodei Orobengoak. Laster-



JON ANDER INSAUSTI
BIDELAN

"Lehenengo itzuliak oso azkarrak izan dira, Deskarga aurrean pasatu ahal izateko denok nahi izaten dugulako ihesaldi ona hartu. Ondoren ihesaldi ahalegin asko egon dira, eta azken kilometroan aurrean egon ahal izan dut esprintean sartzeko. Asmoa zen nire taldekidea sartzea esprintean".



AITOR GONZALEZ
DEBABARRENA

"Mendiko saria irabazi dut, eta etxera esku hutsik joatea baino hobea da. Baina, iaz txapelaldun izanda aurten ere hortxe egon nahi genuen. Orain, baina, kontrarioek gehiago zaintzen naute, eta zailagoa da ezustea ematea. Pena Mikel Aristik esprintean ez duela zortetik izan, baina bigarren egin du, postu ona da hori".



ALEX ARANBURU
KANPANZAR HARROBIK

"Gatzagan erori ostean atzo gauean bertan erabaki nuen Antzuolako lasterketa korritzea, erritmoa hartzeko. Baina, Deskarga igotzen hasi garenean ezin izan diot tropelaren erritmoari eutsi. Aretxabaletako lasterketa ondo prestatzeko asmoa dut".

keta bertan behera utzi behar izan zuten berak eta Eneko Lizarralde, epaileek hala erabakita: "Oso tarte txiki azken zaituzte lasterketatik kanpo, eta pena da, talde handia ginelako, eta besteak hor hor zeudelako". Eurenkin batera erretiratu ziren, baita ere, Kanpanzar Harrobiak taldeko ordezkari debagoiendarrak: "Atzo gauean erabaki nuen lasterketan parte hartzea, eta entrenatzeko asmoz etorri naiz", zioen joan den astean Gatzagako lasterketan lurrera joan zen Alex Aranburuk.

Atzean geratu zirelako erretiratutakoak baino okerrago zegoen Jon Rivero bergararra, lehenengo kilometroetan eroriko bat saihestearren motorraz kolpatu eta lurrera erori zen. Bizikletako kurpilaren itxurak erakusten zuen zelako kolpea izan zuten. Lepauztaia apurtuta, hila-bete batzuk beharko ditu ondo errekupezatzen.

Kontrara, Mikel Aristik eman zuen eguneko albiste ona. Joan den astean Tolosan lasterketa ederra egin eta zazpigarren sailkatu zen; orduan pozik etxeratu zen. Atzokoa izan zen hobea, nahiz eta amorratuta joan zen Bergara aldera. Amorratuta, garaipena esku-eskura izan zuelako lehenengo urteko amateur mailako ziklistak. Handia izango litzateke kategoriara salto egin eta palmaresa estreinatzea. Baina esprintean Insausti azkarragoa izan zen, metro bategatik azkarragoa. Hala ere, zutoinean jo osteko golek zapo-re hobea izaten dute.


"Deskargan denok nahi izaten dugu talde ona hartu"

"Epaileek azkarregi kanporatzen gaituzte"

"Azken kilometroetan sekulako egurra egon da"



Ihes gindako taldea, Bergarara bidean. | JOSETXO ARANTZABAL



Lasterketako irabazle Jon Ander Insausti. | JOSETXO ARANTZABAL

MIKEL ARISTI | DEBABARRENAKO ZIKLISTA

"Postu oso ona da, baina eguna borobiltzea falta izan zait"

Afizionatu mailan lehenengo urtea du Mikel Aristik, eta aurrealdean dabil; atzo esku-eskura izan zuen garaipena, baina esprintean gehiago izan zen Insausti. **Irribarretsu zaude, barrutik doa prozesioa.**



Mikel Aristi. | GOIENA

Postu oso ona da, eta egun osoan lasterketa barruan egon naiz. Alde horretatik pozik nago, baina hor daukat pena, eguna ezin izan dudala biribildu. Taldearen denboraldiko lehenengo garaipena izango litzateke, aukerak nituela ikusten nuen, baina ezin izan dut lortu. Pena. **Taldeko lehenengo garaipena izango litzateke, eta baita zurea ere. Kategorian lehenengo urtea duzula jakinda, galanta izango litzateke.** Bai, niretako lorpen handia izango litzateke. Orokorrean lasterketetan

emaitza onak lortzen nabil, baina oraindik ez dut garaipenik lortu eta...

Baina lehenengo urtean ez gara garaipenak eskatzen hasiko! Ala? [Barre] Ez, ez, garbi dago oso zaila dela, baina garaipena buruan dugula irteten

gara egunero, eta aukera badago, aprobetxatu egin behar da.

Esango nuke esprintean arazoren bat izan duzula kateaz. Bai, baina horri ez diot buelta gehiagorik eman nahi. Ni baino gehiago izan da esprintean, ez dago besterik.

Datozen asteotara begira, ze asmo duzu?

Oraindik ez daukat ezer zehaztuta, datozen asteotan lasterketa mordoan daude eta ea hurrengoan ere halako aukera bat izaten dugun, eta orduan hobeto aprobetxatzen dugun.

DATUA

47

KILOMETRO ORDUKO

Antzuolatik Oñatirako lehenengo joan-etorria 47 kilometro ordura egin zuten txirrindulariek; bigarrenen lasaitu ziren.

ARETO FUTBOLA

Labegaraietako 25. finalean, Akabaoak onenak

TXOMIN MADINA | BERGARA

Harmailetan inoiz baino jende gehiago zegoela, atzo jokatu zuten Labegaraietako areto futboleko torneoaren finala UD Akabaoak eta Desastre Team taldeek. Final borrokatua izan zen eta azkenean, 4-3 emaitzarekin, UD Akabaoakentzat izan zen tornea.

Akabaoak izan zen partiduko lehen gola egin zuena, baina Desastre Teamek aurrea hartu zion gero. Desastrek bi penalti bikoitz huts egin ostean, hirusunako berdinketarekin heldu ziren azken segundora. Orduan, penalti bikoitza sartu zuten UD Akabaoakekoek, tornea poltsikoratuz.

Torneoko hirugarren postua Beti Gorrrentzat izan zen, finalaren aurretik jokaturako partiduan La12ri 6-5 irabazi ostean.

25. urteurrenako omenaldiak
Labegaraietako areto futboleko torneoak 25 urte bete ditu aurten, eta egungo antolatzaileek atzoko

finala aprobetxatu zuten hainbat pertsona omentzeko. Hala, Jose Pescador *Pesca* eta Pedro Rico *Pana* omendu zituzten antolakuntzan urtetan zehar egindako lanagatik; baita Labegaraietako tabernaren ardura izandako Jabi Roige eta bere emazte Edurne eta hogeitau urtetan zehar talde bateko babes-

le izan den Errotagain enpresa ere. Antolakuntzatik eskerrak eman nahi izan zizkioten era berean torneoaren martxan jarri zuen Jabi Burgosi.

Liga erregularreko sariei dagokienez, golegile onenarena Usabiaga taldeko Brahim Hadadirentzat izan zen; atezain onenarena, Desastreko Igor Maniegarentzat; eta talde erregularrenaren saria, Desastre Teamentzat izan zen azkenean.



Hegaleko jokaldian, baloia menperatzeko keinua egiten.



UD Akabaoak taldekoek lau gol sartu zituzten; argazkian, sareratze bat.



Azkenean torneoko txapeldun izan ziren UD Akabaoak taldekoak, neurketa hasi aurretik.



Jabi Roige eta emazte Edurne omendu zituzten antolakuntzakoek.



4-3 emaitzak erakusten duen moduan, finala borrokatua izan zen.



Desastre Teamekoek ezin izan zuten finala irabazi. | JOSETXO ARANTZABAL

ATLETISMOA

Malen Ruiz de Azua arrasatearrak jubenil mailako Espainiako pertika txapelketa irabazi du

Eguenean mundu mailako txapelketan ariko da Maialen Axpe taldekidea; Bartzelonan da honezkero

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Arrasateko atletismo taldeko harrobian pozik egoteko arrazoi bat baino gehiago dute egunotan, eta atzo, Malen Ruiz de Azua pertika-jauzilariak arrazoi bat gehiago eman zuen; Euskadiko errekorra hautsi berri, Espainiako txapelketa irabaztea lortu zuen. Atzo arratsaldean lehiatu zen Aranjuezen (Madril) jokatu-tako jubenil mailako Espainiako txapelketan, eta berea izan zen marka onena: 3,75 metro, hain zuzen ere.

Txapelketak luze jo zuen —17:30etik 20:30era— eta beroak asko baldintzatu zuen jauzilarien lana. Ruiz de Azuak 3,61 metroko jauzia egin zuen lehenengo; bigarrena ere —3,75 metro— gainditu egin zuen. "Azken jauzian 3,91 metroko langa ipini du bere marka onena eta Espainiako errekorra gainditzeko saiakera egiteko, baina nekatuta eta beroak jota zegoela argi ikusten genuen denok", adierazi du Jonathan Perez entrenatzaileak. Txapelketako bigarren atleta onenak 3,41 metroko jauzia egin zuen.

"Oso pozik gaude", adierazi du Jonathan Perez entrenatzaileak.



Maialen Axpe eta Malen Ruiz de Azua, atzo Madrilen. | JONATHAN PEREZ



Ruiz de Azuak Euskadiko errekorra du (3.86). | J.P.

leak. "Bai Maialen bai Malen Espainiako txapeldun dira. Emaitza oso ona da".

Istar Dapena zortzigarren

Atzokoan Arrasateko beste ordezkariak, Istar Dapenak, ez zuen

bere marka pertsonala gainditzea lortu. 3,95 metroko markarekin zortzigarren sailkatu zen arrasatearra. "Arazo asko izan ditu gustura jauzi egiteko: eguzkia, itzala... Beroak ere bere eragina izan du", esan du Perezek.

Orain Bartzelonan

Espainiako txapelketako lanak amaituta Bartzelonan jokatu den mundu mailako junior txapelketan ipiniko dute orain arreta guztia arrasatearrek. Lehian izango da Maialen Axpe, eta fina-

lerako sailkatzea du helburu. Eguen goizean lehiatuko da, baina egunotan entrenamendu saioak egingo ditu gainerako taldekin. Gaur bertan elkartuko da eurekin; Jonathan Perez entrenatzailea alboan izango du.

Axpe sentsazio onekin joan da Bartzelonara

Asturiasen lau metroko jauzia egin, eta junior mailako Espainiako txapelketa irabazi ostean asteon mundu mailako txapelketan ariko da Maialen Axpe arrasatearra. Finalera sailkatzeko helburua du Axpek, baina txapelketa horretan ariko diren lehen mailako gainerako kirolariak ezagutzea ere.

Eguen goizean lehiatuko da Axpe, baina entrenatzen emango ditu hiru egunok. "Sentsazio oso onak ditugu, eta Maialen oso pozik dago", esan du Perezek. "Asteko entrenamenduak oso ondo joan dira, eta denboraldia ere nahi genuen moduan irten da. Ea mundialean zerbait egiteko aukera duen. Gogoz dago Maialen".

PILOTA

Haurren finalak irailaren 2an

L.Z. | ARRASATE

Zazpi norgehiagoka jokatu zituzten atzo, domeka, Gatzagakako pilotalekuan, tartean Gatzagakako pilota txapelketako lau finalerdi.

Kadete mailako lehenengo finalerdia Amurrioko bikoteak irabazi zuen Aramaioko bikotearekin 22-19 irabazita. "Pena handia hartu dute", adierazi du Mauri Zubillagak. "Aramaion

pilotak indar handia hartu du eta merezi zuten aurrera egitea". Kadete mailako bigarren finalerdian, berriz, Arrasateko bikoteak egin du aurrera berargarrei 22-16 irabazita. Benjaminetan zein jubeniletan Arrasatekoek egin dute aurrera; benjaminen 22-20 irabazi zioten Amurriokoei, eta jubeniletan 22-16 berargarrei. Haurren finalak irailaren 2an jokatu dira.

TXIRRINDULARITZA

Irizarrek erlojupeko ona Austrian

L.Z. | ARRASATE

Austriako itzulia amaitu berri du Markel Irizar oñatiarrak. Esan beharra dago RadioShack taldeko txirrindulariak zortzigarren denborarik onena egin zuela egubakoitzean jokatu-tako erlojupekoan.

Itzuliko zazpigarren etapa izan zen; 24,1 kilometroko ibilbidea Podersdorf eta Neusiedler aintziraren artean, eta Oñatiko

txirrindulariaren denbora 28.42.04 izan zen. Marco Pinotti italiarra izan zen azkarrena 27.42.95 denborarekin. Hala, Pinottik Irizarrek baino 59:09 segundu gutxiago behar izan zituen.

Atzo, domeka, amaitu zen Austriako itzulia eta RadioShack taldekoek badute pozik egoteko motiborik. Jakob Fuglsang taldekideak jantzi du garaipenaren elastikoa Vienako helmugan.

OHARRAK

ARETO FUTBOLA

ZALDIBARKO TXAPELKETA
Hilaren 14an jokatu da Zaldibarko 24 orduen txapelketa. Izenematea zabalik dago, eta prezioa taldeko 60 euro da. Edozein zalantza argitzeko 637 78 74 41 telefono zenbakira deitu daiteke edo zaldibarko24orduak@gmail.com posta elektronikora idatzi.

SQUASH TXAPELKETA

TXAPELKETA ARRASATEN
Uztailaren 21ean jokatu da Musakolako kiroldegian Debagoieneko Squash txapelketa absolutua. Interesatuek hilaren 17a baino lehen eman behar dute izena. Prezioa 10 euro da. Argibideetarako deitu 656 736 017 telefono zenbakira edo idatzi iuribetxeba@akesquash.com posta elektronikora.

MENDIA

IRTEERA BESAIDEREKIN
Uztailaren 22rako, domeka, antolatuta du hurrengo irteera Arrasateko Besaide elkarteak. San Lorentzora egingo dute irteera. Interesatuek hilaren 16an, 17an edo 19an, 19:30etik 20:30era eman dezakete izena Garibai kaleko bulegoan. Argibide gehiago www.besaide.org webgunean edo 943 77 30 66 telefono zenbakian



SARI BANAKETA

EDURNE BALZATEGI

UDAK jokalarik 'oso osoak' saritu ditu

Egubakoitzean bete egin zen Aretxabaletan Arkupe aretoa; UDAk denboraldiko kirolari onenak saritu zituen. Sari bereziak dira, izan ere, kirolariak egindako ibilaldia saritzen dute, ez lortutako emaitzak. UDAk bere baitan hartzen

dituen diziplina bakoitzeko sari bana banatu zuten; futbola, areto futbola, gimnasia erritmikoa, karatea eta pilota. Ez ohiko batzarra ere egin zuten. Estatutuak aldatu dituzte aurrerantzean diziplina berriak abiarazteko.

Beñat Arnaiz | Lagunak-Saltoki taldeko atleta

"Lehiatzen jarraituko dut, baina beste lehentasun batzuk izango ditut"

- ▶ Aurtengo denboraldiaren balorazioa positiboa da
- ▶ 4 urteren ostean Atxintxika taldera itzuliko da

MAIALEN REGUEIRO | ARRASATE

Beñat Arnaizekin (Aretxabaleta, 1980) izan gara. Izan ere, joan den asteburuan Aritzalekuko distantzia luzeko triatloia egin zuen eta laugarren amaitu zuen (4:46:58). Horrez gain, Nafarroako Txapeldun ordea eta Euskal Herriko Txapelduna izan zen taldeka. Atzo, berriz, zazpigarren egin zuen Monegrosen. Lasterketa ostean izan ginen Aretxabaletakoarekin.

Aritzalekuko distantzia luzeko triatloia egin berri duzu. Nola joan zen?

Egia esan, triatloietan oraindik "nobatoa" naiz eta hori dela-eta, urduritasun puntuarekin egoten naiz eguna iritsi arte. Aritzalekuko aurtengo bigarren triatloia luzea izan da, eta espero baino hobeto irten zen. Banekien ondo nengoela, baina ez nuen pentsatzen podiuma jokatzeko moduan egongo nintzenik.

Nolakoa da proba hau?

Oso gogorra da. 1.900 metroak Lerateko urtegiaren egiten dira, 950m-ko bi bira. Espero baino hobeto egin nuen eta uretatik irtetean neska-lagunak lehen 20etan nengoela esan zidan. Ondoren 93 kilometro egin behar genituen bizikletan. 31kilometrotako

3 itzuli. Horiek oso gogorrak ziren eta gainera, haizeak oso gogor jotzen zuen. Azken lan-saioan 21km egin behar genituen korrika. Lehenengo itzulian gaizki pasa nuen eta gorputzari buelta eman ostean, indarrarekin amaitu nuen laugarren eginez.

Lehen aldiz korritu duzu proba hau?

Bai, lehen aldia da; aurtengo denboraldian egiteko asmoa nuen, eta gustura geratu naiz. Urtea ere ondo doa.

Espero zenuen horren aurrean ibiltzerik?

Banekien fisikoki ondo nengoela eta aurrean ibiltzeko moduan ikusten nuen neure burua, baina ez horren aurrean.

Distantziak ere ez dira makalak.

Zifrak ikustean nekatu egiten zara. Egia esan, gogorra da, baina behin metara iritsita eta ikusita gai zarela horrelako proba bat bukatzeko, lasterketan pasatokoak ahaztu egiten dira.

Nafarroako Txapeldunordea eta Euskal Herriko Txapelduna, taldeka. Ez dago txarto.

Triatloietan zail ikusten nuen lasterketa dominatzen ibiltzea. Ondo sufrituta bigarren postua lortu nuen nire taldekide Raul Amatrianien atzetik. Taldeka

Euskal Herriko txapeldunak izan ginen, lehen hamar sailkatuetan bost triatleta sartu genituen-eta.

Eta gaur [atzo] Monegrosen lehiatu zara. Zer moduz?

Nahiko ondo, zazpigarren sailkatu naiz. Igeriketa proban ibili naiz justuen, neopreno barik igeri egitera behartu gintuzteten; Ura 22 gradutik gorako tenperaturaren badago epaileek erabaki hori har dezakete, eta igerilari hain trebeak ez garenontzat neurri kaltegarria da; dena dela, bizikletako saioan postuak errekupepatzen hasi naiz eta korrika proba ere ondo bukatu dut, gustura.

Denboraldiaren balorazioa?

Egiten dudun balorazioa oso positiboa da. Duatloietan aurrealdean ibili naiz garaipen batzuk lortuz. Triatloian, berriz, nahi nuen aurrerapauso hori eman dut.

Jakin dugu hurrengo urtean elitea "utziko" duzula eta lasaiago ibiliko zarela. Ze asmo daukazu?

Ni ez naiz elite barruan sartzen. Egia da Atxintxika taldea utzi nuela Lagunak taldearengatik. Momentu horretan, mundu hau gehiago ezagutu nahi nuen eta Nafarroako taldeak horretarako aukera ematen zidan. Lau urteren ostean, nire etxeko taldera bueltatzea erabaki dut, Atxintxikara. Lehiatzen jarraituko dut, baina egunerokoan beste lehentasun batzuk izango ditut.

"Aritzalekuko distantzia luzeko triatloia oso proba gogorra da"

"Fisikoki ondo nengoen, baina ez nuen nire burua podiumean ikusten"



Beñat Arnaiz metara iritsi berri. | BEÑAT ARNAIZ



Beñat Arnaiz podiumean. | BEÑAT ARNAIZ

Terapiak daude hizkuntza edo mintzaira garapen geldoagoendako

Maider Egino logopedak argibide interesgarriak egin ditu 'Guraso.com'-en

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Ohikoa izaten da hizkuntzaren edo mintzairaren garapen geldoagoa duten seme-alaben gurasoen artean kezka sortzea. "Hizkuntzaren eta mintzairaren garapenean normala zer den edo zer ez den jakitea garrantzitsua izaten da zure haurraren garapena egokia den edo ez jakiteko", azaltzen digu, lehenengo eta behin, Maider Egino logopedak.

Gurasoei irizpide batzuk emateko, mintzairaren eta hizkuntzaren garapen normalaren inguruko xehetasunak ematen ditu, baina eskatzen du mintzaira eta hizkuntza ondo desberdintzeko. "Mintzaira hizkuntzaren espresio

berbala da; hitzen artikulazioan datza. Hizkuntza, berriz, mintzaira baino askoz ere zabalagoa da. Komunikazio berbala, ez berbala edo idatziaren bitartez norberak ulertzen duena, eta norbera ulertua izatean datzan komunikazioa da", azaltzen du.

Beraz, hizkuntza arazo bat duen haurrak ez du zertan arazorik izan hitzen artikulazioan, baina arazoak izan ditzake esaldien eraketan. Era berean, haur batek hitz egiterakoan posiblea da jendeak ezer ez edo hitz gutxi ulertzea, ahoskera ezegokia duelako, baina bere hitzen eta esaldien konbinaketak guztiz egokiak izan daitezke.


Logopedaren lana

Gurasoek eta pediatrik arazoren bat dagoela sumatzen badute logopedarengana jo behar dutela dio, "haurra ebaluatu eta arazorik dagoen edo ez jakiteko".

Beste aspektu askotan bezala, haurraren konstituzio genetikoak zerikusi handia izango du hizkuntza garapenean; hala ere, garapen honetan, haurraren inguruak garrantzi handia izaten du. "Haurra ondo estimulatu dugu etxean? Laguntzen ari al gara haurraren hizkuntzaren eta mintzairaren garapenean?". Arazoren bat nabaritzen badugu, garrantzitsua izaten da onartzea, eta horri laguntza egokia eskaintzea.



Haur txikia. | CELESTE MARINA



Bi gazte elkar musukatzen. | CESAR PICS

Jaiak eta nerabeen arteko sexu-harremanak

Erantzukizunez jokatu afektibitatea eta sexualitatea gehiago azaleratzen dugun honetan

L.Z. | ARRASATE

Jose Luis Gartzia sexologoak kontuan hartzeko zenbait gomendio eman ditu Radio Euskadiko *Boulevard* saioan asteon egindako elkarrizketa batean. Lehenengo eta behin, alkoholaren eragina nabarmendu du. "Jaietan alkohola oso faktore garrantzitsua da, eta, neurrigabe kontsumituz gero, laguntzaile eskasa izango da, arrisku egoeretara eraman baitezake". Gartziak dio azken urteotan asko aldatu direla jarraera afektiboak eta sexualak. Askoz

errazago hurbiltzen gara gustuko dugun horrengana, eta harremanetarako oztopo gutxiago ditugu, baina zerbaitek kale egiten du. "Nola da posible gaur egun oraindik ere jendeak horrelako egoeretan kondoirik ez erabiltzea? Gazte guztiek dakite zer den kondoa, baina nola erabili behar den ere, baina hortik kondoa erabiltzera saltoa dago, eta hor dago akatsa", esan du.

Gartziak nabarmendu du gure eskoletan hezkuntza sexual sistematu eta derrigorrezkoa

falta dela oraindik ere, eta familietan gutxi hitz egiten dela sexualitateari buruz. "Espainiako Estatuan soilik familien %15k hitz egiten dute sexualitateari buruz, eta gehienetan ama-alaben artean hitz egiten da. Mutilak abandonatuta daude, eta Internetez edo porno filmen bidez ikasten dute, horrek dituen ondorioekin; sarketaren nagusitasuna, zakil tentaren eredu..."

Kondoak beti poltsikoan

"Zaindu alkohol kontsumoa eta ez galdu kontrola; eraman beti pare bat kondoi poltsikoan, eta egoera gertatzen bada, erabili. Azkenik, kondoirik ez badaukagu, jakin itzaroten. "Sexualitatea oso zabala da, eta asko goza daiteke elkar musukatzen, ukitzen edo masturbatzen. Sarketa ez da ezinbestekoa", esan du.

Brazelton: "Ez kontrolatu haurra, erakutsi auto-kontrola"

L.Z. | ARRASATE

Pediatria modernoaren aita-tzat daukate T. Berry Brazelton; izan ere, iraultzaileak izan ziren haren teoriak orain dela urte batzuk. Gurasoei, esaterako, garrantzi handia ematen die: "Gurasoak dira seme-alaben gainerako benetako adituak. Ezin diogu guraso bati semearekin edo alabarekin zelan jokatu behar duen esan. Gure lana euren iritzia eskatzea da, eta batera haurra behatzea", defendatzen du.

Diziplina, ez zigorra

Haurraren pertsonalitatea lan daitekeela defendatzen du Brazeltonek. Jarrerak diziplinarekin lantzen direla dio, baina zehazten du diziplina ez dela zigortzea, baizik eta erakustea.

Brazeltonek egindako beste aurkikuntza bat hazteko erritmoekin lotuta dago; harena da Touchpoints metodoa. "Haurrak ez dira modu uniforme eta erregularrean hazten", dio, eta azaltzen du haztea oso estresagarria dela. Modu erregularrean egiten ez denez, haurrek une bereziak bizi izaten dituzte. "Haurrak hazteko prozesua ezagutzen duten helduak baditu inguruan, eta heldu horiek konfiantzazkoak baditu, hobeto haziko da", ziurtatzen du adituak.

Gomendatutako zesarea kopuruaren barruan dago EAE

Zesarea kopurua gorantz doa munduan, eta horrek badu bere arriskua. Osasunerako Mundu Erakundeak 2011n argitaratutako datuen arabera, haurren %15etik gora zesarea bidez jaiotzea ez da gomendagarria. Asko dira zifra hori gainditzen duten lurraldeak Europan. EAE %13-14 bitartean dago eta Nafarroa, berriz, %15en.

Jaime Funes: "Zoriontasuna eta nerabea eskutik doaz"

Hik Hasi aldizkarian elkarrizketa egin diote nerabeekin 30 urte baino gehiago lanean diharduen psikologo, hezitzaile eta kazetari kataluniarrari. "Gurasoen lana ez da alferrikakoa izaten. Epe laburrean ez bada nabaritzen ere, ez dute inoiz etsi behar, lanak emaitza onak izaten ditu-eta", dio. Elkarrizketa oso webgunean duzue irakurgai.

Adopzio prozesuetako adin-tartearen baldintza ezbaian

Adingabeak adoptatzeko prozesuak arautzen dituen dekretua aldatu nahi du Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak. Guraso adopzio-hartzaileen eta haur adoptatuen arteko adin-tartearen baldintza baztertzaila gisa hartzen dute, eta tarte hori deuseztatzea erabaki dute. Arartekoak ere erabakia babesten du.



KULTURA

Markezekin eta Martikorenarekin, bikain hasi da aurtengo Errekan Gora

- ▶ Bi bakarlariek indarrak batu zituzten egubakoitzean Eskoriatzan emandako kontzertuan
- ▶ Gau giro bikaina egiten zuela, bete egin zen HUHEZI fakultateko klaustroa

FITXA

MUSIKA

AURTENGO ERREKAN GORA EKIMENAREN LEHEN SAIOA

Estiloa: Musika herrikoa:

Non: Huheziko klaustroan.

Eguna: Egubakoitza.

Iraupena: Ordu eta hiru laurden. inguru

TXOMIN MADINA | ESKORIATZA

Aitzorrotz kultur elkarteak aurten bosgarren urtez antolatu duen Errekan Gora ekimenak euskal kantagintzako bi izen handi batu zituen lehenengo hitzorduan: Mikel Markez eta Erramun Martikorena. Ospe handiko izenak, egubakoitzean Eskoriatzan emandako kontzertuan hutsik egin ez zutenak. Askotan horrelako ekimenen etsai izan ohi den eguraldiak ere lagundu zuen; gau giro bikaina egiten zuten HUHEZIKo klaustroan, eta gau giroari lekuaren beraren xarma batuz gero, gutxi gehiago eska zitekeen.

Emanaldiak iraun zuen ordu eta hiru laurden inguruan bana-bana zein binaka aritu ziren bi abeslariak, Martikorena bera ia beti Markezen gitarrak eta aho-tsak lagunduta. Bi abeslarietz gain, ezin ahaztu lagun izan zituzten Arkaitz Miner, gitarra eta biolinarekin; eta Pello Ramirez, akordeoi eta biolontxeloarekin.

Bakarka eta elkarrekin

Aspaldi ikasitako bertso zaharrak abestuz hasi zuen emanaldia baxenafarrak, eta bere ibilbidean zehar ezagun egindako hainbat doinurekin jarraitu zuen Errenteriakoak, besteak beste Jokin Sorozabalen hitzak dituen *Olenzero Business Center* edo Beñat Sarasola bertsolariak idatzitako *Osten dira*. Umore ukituak ere ez ziren falta izan Markezen aldetik, euskara eta gaztelera uzartzeko dituen Aiako abesti herrikoiei bat kantatu zuenean, esaterako. Txistu egiteko zein kantatzeko, baina publikoaren laguntza ere eskatu zuten behin baino gehiagotan.

Bertsioak ere ez ziren falta izan kontzertuan zehar, Benito Lertxundiren *Erribera* edo Markezekin eta Martikorenarekin *a capella*



Markez eta Martikorena batera aritu ziren abesti askotan. | JOSETXO ARANTZABAL



HUHEZIKo klaustroa bete egin zen egubakoitzean. | JOSETXO ARANTZABAL

abestu zuten Pier Paul Bertzaizen *Baratze bat*, esaterako. Baita abesti berririk ere: Markezekin Uxue Alberdiren hitzak dituen *Konplize ditut-eta* doinua aurkeztu zuen, emakumei eskainia eta oraindik ere diskoetan agertzen ez dena.

Doinu ezagunenak, ezin falta
Azken txanpan bi abeslarien doinu ezagunenetakoak entzun ziren, biek elkarrekin abestu zituztenak. Hamabost urte zituenean idatzitako kantua bezala aurkeztu zuen Markezekin *Zure begiek*, eta ordutik denbora pasa den arren, publikoak

oraindik ere ondo asko gogoratzen duela argi geratu zen Eskoriatzan. Gauza bera esan daiteke Xabier Leteren *Xalbadorren Heriotzean* piezaren inguruan: Martikorenaren ikurretako bat bihurtua, lehen notak entzun orduko ikusleak txaloka hasi ziren. Abesti ezin apro-

ERREKAN GORA 2012

UZTAILAK 13

22:30 Tom Tom Makuts Gernika plazan.

UZTAILAK 14

22:30 Mikel Urdangarin Azkoaga Enea hotelean.

UZTAILAK 20

22:30 Vientos de Saudade Bolibar elizatean.

UZTAILAK 21

17:00 Gazteluko piztipuinak atxorrotzeko tontorrean.

UZTAILAK 28

19:00 Nafarroako kantaldia Santa Marinar hainbat musikariren eskutik

posagoa erabili zuten kontzertua amaitzeko: *John Zaharra*, letrak berak dioen moduan, etxerako bidea alaitzeko kanta. Eta seguru horrelaxe, alai eta gau ederra pasa izandako sentipenarekin irtengo zirela kontzertutik bertara joandako ikus-entzuleak.



Ume eta heldu askoren begiradak erakarri zituen egubakoitzeko dantza ikuskizunak. | JOSETXO ARANTZABAL

Kontaktu fisiko handiko koreografia du *Carni di prima qualità*-k. | JOSETXO ARANTZABAL

Haragia haragiaren kontra, musika gabeko dantzaren magia Udazabal hasteko

Carne di prima qualità dantza ikuskizuna egin zuten kalean egubakoitzean

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Egubakoitz arratsaldea, Arrasateko Seber Altube plaza. Giro bikaina aprobetxatuz, arratsaldean jende ugari dabil kalean. Aipatutako plazaren erdian agertoki bat dago. Inguruan ume pila bat, zer gertatuko den zain. Eta bat batean, bi dantzari salto egiten dute agertokira. Hobeto esanda, euren buruak agertokira botatzen dituzte. Batera. Orduan hasten da Natxo Montero dantza taldearen *Carne di prima qualità* dantza ikuskizuna, Udazabal ekimeneko aurtengo lehen hitzordua.

Bi dantzari, borroka bakarra

Berezia da benetan ikuskizuna. Ez dago musikarik, ez klasikorik, ez bestelakorik. Dantzarien euren janzkera ere deigarria benetan: barruko arropa beltzak bakarrik. Hogei minutu inguru irauten dituen ikuskizunean zehar, bi dira agertoki gainean dabilzan dantzariak: Natxo Montero bera eta Patricia Fuentes. Bi dantzariak dantza bor-

titza erakutsi zuten tarteka borroka, tarteka maitaleen arteko jolasa zirudiena. Dantza bortitza bai, baina Monterok berak dioen moduan ez biolentoa. Gorputza gorputzaren gainean, kontra, azpian, segika, korrika... Musikarik ez, baina erritmoa soberan erakutsi zuten dantzariak, baita kolpeekin eta zaplastekoeekin soinu errepikakorak lortu ere.

Bisualki apustu deigarria da *Carne di prima qualità*, gurean ohikoak diren dantza ikuskizunetatik urruntzen dena. Eta akaso horregatik beragatik, baina ez ziren gutxi izan dantza-saioa jarraitu zuten heldu eta gazteak.

Euskal Herrian, ikuskizuna aretoetan beharrean kalean egiten zuten lehen aldian izan zen Arrasatekoa. Baliteke kalean izatea ikuskizunaren kontra joan izana, begira zeuden gaztetxo zurrumuru eta zaratak etengabeak izan ziren-eta. Kontuak kontu, argi geratu zen, egun, dantza, *Beltxargen aintzira* baino askoz gehiago dela.

UZTAILEAN

UZTAILAK 12

22:30 Monteron parkean kontzertua Travellin' Brothers Big Band taldearekin

UZTAILAK 13

20:30 Biteri plazan, H,02TOPOZ kale antzerkia

UZTAILAK 19

20:30 Jose Letona plazan kontzertua Aupa Quartetekin

UZTAILAK 20

20:00 Seber Altube plazan Jon Zabalen magia ikuskizuna

UZTAILAK 24

22:30 Monteronen folklore jaialdia Venezuela eta Arrasateko dantza taldeekin

UZTAILAK 27

20:00 Herriko plazan Xabi Larrearen UP!!! ikuskizuna



Espoioian jo zuten Juan de Diego eta bere taldekideek. | JOSETXO ARANTZABAL

Jazz beroak hartu zuen egubakoitzean Espoioia

Juan de Diego tronpeta jotzaile bilbotarrak eta bere taldeak kontzertua eskaini zuten Bergaran

TXOMIN MADINA | BERGARA

Atzo Getxoko Nazioarteko Jazz Jaialdian jo aurretik, Katalunian bizi den Bilboko tronpeta jotzaile Juan de Diegok eta Trakas bere taldeak Bergaran egin zuten geldialdia egubakoitzean Espoioikoan kontzertua emateko.

Jazza, jaun eta jabe

Erbestea du izena Juan de Diegoren azken diskoak, eta bertako abesti guztiak jo zituzten kontzertuak irau zuen ordu eta hogei minutuetan zehar. Bertsiorik ere jo zuten, baina horretarako bisetara arte itxaron behar

izan zen. Txukun eta soinu onarekin aritu ziren de Diego eta bere taldekideak, hau da, Jordi Matas gitarrarekin, Caspar St Charles bateriarekin eta Abel Boquera *Hammond* organoarekin. Ederki uztartzen ditu taldeak instrumentu guztiak, eta euren jazz beroa ezin aproposagoa izan zen egubakoitzeko bezalako gau baterako. Egon zen diskoa erostera animatu zenik ere.

Berumuga programaren barruan izan zen egubakoitzeko kontzertua. Hurrengoa, ostiral honetan izango da Txus Blues & Jose Bluefingersekin.



JOSETXO ARANTZABAL

Behi Bi Blues Arrasateko Iluntzen

Egubakoitz gauean blues ukitu nabarmena zuten doinuak izan ziren nagusi Arrasateko Iluntz tabernan Gaizka Azkaratek eta Azkater Peloxek osatzen duten Behi Bi Blues bikoaren kontzertuari esker. Emanaldiak irau zuen bi ordu pasatxoan Elvis Presleyren edo Credence Clearwater Revivalen doinuak bertsionatu zituzten, baita Azkater Peloxen *Zamburleiker* diskoko bost abesti jo ere.

Hemendik At taldearen *Eskutitza* dantzaten, eskuan gitarra-eta guzti. | I.G.

'Erlauntzen sekretua' ipuin musikatuaren amaieran, udalekuetako ume guztiak taula gainean abesten. | IRATI GOITIA

'Erlauntzen sekretua' ezagutu genuen, haurren ahots eztietatik

Udaleku musikaleko umek ipuin musikatua egin zuten egubakoitzean

IRATI GOITIA | BERGARA

Bergarako Musika Eskolak antolatuta udaleku musikalak egin dituzte laugarrenegoz aurten. Guztira lau eta hamar urte bitarteko 25 haurrek hartu dute parte udalekuetan.

Musika, dantza eta antzerkia

Egubakoitza izan zuten azken eguna eta amaiera ekitaldia egin zuten horretarako propio sortutako ipuin musikatu batekin. Zehazki, *Erlauntzen sekretua* izeneko ipuinarekin. Hala, erleak, baserritarrak, ardiak eta sorgina ikusi genituen taula gainean. Ipuinaren testua Joxe Iturralde idatzitakoa da eta musika David Azurzak sortutakoa.

Antzerkia, dantza eta kantua uztartu zituzten gaztetxoek emanaldian. Izan ere, horietan izan dira udalekuetan landu dituzten arloak: dantza, Patxi Monterorekin; ahotsa, Miren Garikanorekin; eta antzerkia, Sara Cozarrekin. "Udalekuak izanik, ondo pasatzea da helburua. Bestalde, baina, haurrek musikarekin beste kontaktatu bat izatea lortu nahi da: ludikoagoa eta dibertigarriagoa", adierazi zigan Monterok egubakoitzean.



UDALEKU MUSIKALEKO NESKA-MUTIKOAK
BERGARA

"Asko entseatu dugu gaurko emanaldirako eta ez gaude batere urduri. Denetarik egin dugu udalekuetan: dantza, abestu, antzeztu, margotu... Adibidez, *Txinkirikixin* eta zortzikoa ikasi ditugu. Batzuek ezagutzen zituzten aurretik, zeren, aurreko urteetan ere ibiliak ziren udaleku musikaletan, baina beste batzuek orain ikasi ditugu. Primeran pasa dugu".



UDALEKU MUSIKALEKO NESKA-MUTIKOAK
BERGARA

"Ondo pasatzeaz gain, asko ikasten dugu udaleku hauetan. Beraz, oporretan ere ikasi egiten dugu. Besteak beste, dantzak eta abestiak. Bestalde, gaurko ipuin musikaturako beharrezko gauzak ere egin ditugu, esaterako, kartoiarekin gitarrak egin ditugu Hemendik At taldearen *Eskutitza* abestiraiko. Denetarik egin dugu".

Barre eta ikara, Panta Rheiko munstroekin

Panta Rhei antzerki taldeak *Monsters Show* ikuskizuna egin zuen egubakoitz arratsaldean Aramaioko plazan. Txotxongilo ikusgarrien bidez kontatzen den istorio sakona da antzerki taldearen azken lana: haur esplotazioaren gainekoa. Hala ere, dinamika handiko saioa da eta baditu umore ukituak ere. Beraz, gustura egon ziren emanaldia ikustera joan ziren haur zein helduak Danan protagonista ameslari eta bihurriaren gora-beherez disfrutatzen. Barreak ere eragin zituen.



JOSETXO ARANTZABAL



JOXE MARI AZPITARTE

Dirua batzeko kontzertuak Oñatin

Zapato arratsaldean kontzertuak izan ziren Oñatiko Gaztelekuan. Antolatzailea Oñatiko Buru-Hilketa talde gaztea izan zen. Helburua zen materiala erosi ahal izateko dirua batzea. 150 lagun elkartu ziren eta pozik ziren taldekideak. Kontzertuak eskaini zituzten: Aitor Regueiro bakarlarriak, eta El Trio Calaverak eta Buru-Hilketa taldeek.

POLTSIKOAN

Goiena.net prest sakelako telefonoan!


- ▶ Albisteak
- ▶ Blogak
- ▶ Gaiak
- ▶ Gida komertziala
- ▶ Iritziak
- ▶ Irratia
- ▶ Parte hartzeko atala
- ▶ Telebista

Deskargatu!

Beheko QR kodea irakurrita, aplikazioa jaitsi daiteke Google play edo App Store dendetan.




m.goiena.net




PARTE HARTU Parte hartu zorion agurrak, eskalak eta ezkon-zorionak bidaltzen.



HERRIAK Albisteak, herrika eta gaika antolatuta. Etxeko ordenagailuan bezala



AGENDA Edozein unetan dataren, herriaren edo ekintza motaren arabera bilaketa.



GIDA KOMERTZIALA Ukitu batekin nahi dugunari telefonoz deitzeko aukera.

GURE MUSIKA TALDEAK

TURBOSHIT



Juanmi, Mikel, Mikel eta Iñigo dira Turboshit. | JUANMI CABALLERO

"Euskaraz abestutako kantuak taldearen nortasunaren erakusle dira"

- ▶ Talde bergararrak bi disko eta 20 abestiz osatutako lana kaleratu du
- ▶ Hasierako urteetan ingelesez egiten zituzten abestiak; orain, euskaraz

ANDER MONEDERO | BERGARA

Bergarako Turboshit hirukoteak 2007an hasi zuen ibilbidea, eta, 2011n bigarren gitarra jolea sartu, eta *Turboshit* izeneko diskoa grabatu zuten. Diskoa 2012ko maiatz bukaeran kaleratu zuten eta orain, lan berria aurkezten dihardute. Taldearen hurrengo kontzertua zapatuan izango da, Bergarako Kai tabernan.

2007an hirukote moduan hasi zineten eta 2011n bigarren gitarra jole bat sartu zenuten. Taldearen soinuaren eragina izan al du?

Bigarren gitarrak eragin handia izan du. Bi gitarren arteko jokoarekin abestiek asko irabazi dute eta, gainera, abesteko orduan askatasun handiagoa dut.

Taldearen lehenengo lau urteetako lanaren ondorioa da *Turboshit* diskoa.

Disko bikoitza da eta bertan taldearen eboluzioa entzun daiteke. Hasieran, ingelesez egiten geni-

tuen abestien letrak eta orain, gaztelaraz eta, batez ere, euskaraz abesten dugu. Lehenengo diskoan hasierako abestiak daude, ingelesez abestutakoak. Bigarren diskoko abestiak, berriz, berriagoak dira, eta gaztelaraz eta euskaraz abesten ditugu. Euskaraz abestutako kantuak taldearen nortasunaren erakusle dira.

Entzuleek abesten duzuen ulertzea eskertzen dute?

Bai, euskaraz abestutako abestietan ikusleek estribilloak kantatzen dituzte eta hitzekin identifikatzeko aukera gehiago dituz-

"2011ko uztail eta abuztuan grabatu genuen diskoa"

te. Gainera, guk egiten dugun musika, normalean, ingelesez eta gaztelaraz entzutera ohituta gaudete, eta euskaraz abestuta taldeak nortasuna hartzen du.

Abestiak ingelesez egitetik euskaraz egitera pasatuta, salto handia al dago?

Hasiera batean, arraroa egiten zitzaigun; normalean entzuten ditugun abestiak ingelesez dira, eta hori imitatzea errazagoa da. Baina abestiak egiten joan ahala, sentitzen duguna adierazteko erraztasuna lortu dugu eta emaitzarekin oso gustura gaude.

Diskoa non grabatu duzue?

Bergarako DB Uhinekin grabatu dugu, Elosuko abade-etxean. 2011ko uztail eta abuztu bitartean grabatu genuen eta emaitzarekin pozik gaude.

Ingelesez abestutako diskoko kantuak hirukote zinetenean konposatu zenituzten.

2007tik 2010era bitartean egindako

ZERTZELADA



TURBOSHIT

Estiloa: Punk-rock.

Egilea: Turboshit (Bergara, 2012).

Argitaletxea: Autoargitaratua.

Iraupena: 81 minutu.

Turboshit-en eboluzioa 20 abestietan

Talde baten lehenengo urteak taldearen estiloa definitzeko balio izaten dute, eta askotan, hasierako materiala alde batera utzi eta abesti berriengatik apustu egiten dute. Hori ez da Turboshit-en kasua; taldearen lehenengo lau urteetan egindako abestiak grabatu eta 20 abestiz osatutako disko bikoitza kaleratu dute. Turboshit-ek lau urtetan izandako bilakaeraren isla da, punk-rock azkarretik melodikoago batera pasatu dira. Kontrastez beteriko lana da: lehenengo diskoan 90. hamarkadako Europa iparraldeko taldeen eragina nabaria da (Gluecifer, Flaming Sideburns...) eta bigarrenean, berriz, bertako punk-rock soina du, gaztelaraz eta euskaraz abestutakoa.

ANDER MONEDERO

abestiak dira. Gero, 2011n, taldean Juanmi sartu zenean, bi gitarretara moldatu genituen: abestietan konponketak egin, eta zenbait gauza aldatu genituen. Bigarren diskoko abesti gehienak, berriz, laukote moduan egin genituen. **Diskoak Euskal Herriko punk-rock taldeen eta 90eko hamarkadako**

Europa iparraldeko soinuaren oinarri.

Ingeleseko abestiek Eskandinaviar ukituak dituztela esan digute. Hizkuntzak asko egiten du, gure gustuko musika da, estilo hori asko entzun dugu, eta normala da ukitu hori izatea. Abestiak egiteko orduan bi estilo horietan oinarritzen gara.

Amarga sensación abestian bi ahotsetara abestu eta pianoa sartu duzue.

Genero biolentziaren aurkako abestia da, eta ahotsak eta pianoak ukitu desberdina eman diote. Bi ahotsetara grabatzea erabaki genuen, eta Leire Ibarzabalaren ahotsak indar handia eman dio. Pianoa sartzearena estudioan erabaki genuen, Fernando Laskurain gonbidatu eta pianoaren konponketa egin zuen. Abestiaren emaitzarekin oso gustura gaude.

Rock industria abestian irratia forma kritikatzeko duzue.

Irrati formularen eta musika industriaren irizpideen aurka gaude, abesti berdina behin eta berriz errepikatzen dituzte, eta musika alternatiboa sistematikoki baztertzen dute. *Rockaren industria zapaltzeko jaiotako gara* kantatzen dugu, industria irizpide ekonomikoetan gidatzen da, eta ez musikaletan.

Zertan oinarritzen zara abestien letrak egiteko orduan?

Era askotara egiten ditugu abestien letrak: batzuetan, esaldi bat asmatu eta hortik abiatzen gara; beste batzuetan, musika egin eta gero egiten ditugu... Ez dugu metodorik jarraitzen.

Nola banatu duzue diskoa?

Diskoa Bergarako eta inguruko herrietako tabernetan salgai jarri dugu. Irailean Internetez promozioa egingo dugu eta irratia libretara diskoaren demoak bidaliko ditugu. Gure helburua Euskal Herrian ahalik eta kontzertu gehien jotzea da.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Pisu salgai Matie-
nan, kultur etxe arean. Altzariz
hornitua. Bizitzera sartzeko
prest. 3 logela, bainua. 27 m²-ko
garaje itxia alokatzeko aukera.
Ikustera etorri konpromisogabe.
615-73 85 52.

Arrasate. Etxebizitza salgai
edo alokagai. Duplexa, erdial-
dean. Hiru logela, ikasgela,
egongela, sukaldia eta komun.
110 metro koadro. Igogailu gabe.
Hozkailu eta plater garbigailu
berriak. Leihoak berritzak
150.000 euro saltzeko eta 600
euro errentan. 665-72 66 58.

Arrasate. Etxebizitza salgai.
Egungo egoerara egokituriko
prezio interesgarria. Eraberitua,
guztia altzariz hornitua eta oso
eguzkitsua, denak kanpoaldera
ematen du. Hiru logela, komun,
egongela eta sukaldia. Hiru
igogailu eta gas naturala. Deitu
650-01 05 15 zenbakira.

Atxondo. 75 m². 3 logela,
sukaldia, egongela, komuna,
balakoa. Oso eguzkitsua. Kanpo-
ra ematen du etxe guztiak.
Berogailua. Berritzatua eta
altzariz hornitua. Deitu konpro-
misu barik eta ikusi. 180.000
euro. Tel.: 655-73 74 47.

Bolibar. Etxe zaharra salgai
Bolibarren 34m² x 3. Teilatu
berria eta proiektuarekin. Hiru
gela eta 40m²-ko terraza. Hor-
tu txiki bat. 150.000 euro.
660-35 80 67.

Durango. Sasikoa kalean. 3
logela, saloi-jangela handia,
sukaldia eta bainua. Bi balkoi,
kamarotea eta garajea. Pazio
paregabea. Tel.: 679-38 23
69.

Elorrio. Elorri etxebizitza
salgai. Eraikuntza berria, erdigu-
nean kokatua, igogailua, hiru
logela, bi bainugela, sukaldia
ekipatua, bi armairu enprotatuak
eta trasteleku. 75m². 230.000
euro. Garajea aukeran. Tel.: 634-
45 72 01.

Garai. Oarbeaskoa baserria
salgai. 10.000 m²-ko lursaila.
Garaiko San Miguel auzoa, 6.
8.500 m²-ko belardi sorra,
nahiko laua. 200 m²-ko baratza,
frutalak. Nekazal turismoa edo
nekezal turismoa edo bidali
mezua llanpoo@hotmail.com
helbidera.

Mañaria. Hiru gelako etxea
balkoi handiarekin alokagai.
Pezio onean. 94-682 41 08
(goizez).

Ordizia. Ordiziako erdigu-
nean, logela bakarreko etxebizitza
alokairuan. Berritua. Berogailu
elektrikoak eta sukaldia buta-
noa. Jantzitza (altzariekin, etab.).
Bigarren solairuan dago eta
igogailurik ez du. Mugikorra:
648-72 34 74 (21:00etatik
aurrera)

Oropesa del Mar (Castello).
Marina Dorren 4-6 pertsonen-
tzako apartamentu berria aloka-
gai. Udan eta urte osoan zehar.
Aste bat, hamabostaldia edo
hilabete baterako. Itsasora
begira, hondartzatik 150 metro-
tara. Egongela, 2 logela, komuna,
sukaldia, terraza handia. Gara-
jea. Igerileku handia eta umeen-
tzako txintxaunak. Leku lasaia.
Ez dira animaliak onartzen. 670-
21 49 24. Marjio

Puerto Rico (Gran kanaria).
Apartamentu bat alokatzen dut
gran kanariako puerto rico
herrian. Bista oso politak ditu
itsasora. Astebeterako edo 15
egunerako alokatzen dut. Oso
merke. Abuztutik 2013ko mar-
txora arte. Deitu 670-31 12 23
telefono zenbakira.

103. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Bi logeladun etxebi-
zitza ematen da errentan. Igo-
gailuarekin. Berritua. 645-00
89 97/645-70 80 26.

Aretxabaleta. Erdigunean
estudio txikia ematen da erren-
tan, emakumezko batentzat.
616-75 41 30.

Aretxabaleta. Etxebizitza
jantzia ematen da errentan
erdialdean. 636 73 54 94

Arrasate. Etxebizitza ematen
da errentan alde zaharrean. Hiru
logelakoa. Guztiz hornitua eta
berokuntzarekin. 669-66 54
99.

Arrasate. Ikasleentzako hiru
logelako etxebizitza errentan
ematen da. 635-73 27 74.

Atxondo. Pisu alokagai Atxon-
don. Berria eta guztiz jantzia. 3
logela, 2 komun, egongela eta
sukaldia. Tel.: 680-42 77 02.

Bastida. Oporretako pisua
alokatzeko pisuzinarekin. Torre-
-otxandi urbanizazio pribatua.
Urbanizazioak igerileku eta
saskibaloi pista ditu. 2 logela,
bainugela, sukaldia eta egon-
gela, guztiz apainduta. Paisaia
eta bista ikusgarriak. Urte osoan
eskuragarri. Hamabostaldia eta
hilabetea alokatzen da. Deitu
620-62 92 45 telefonora.

Berriz. 3 logela, 2 komun,
egongela eta sukaldia. Guztiz
jantzia. Animaliarik ez. Tel.: 663-
39 75 88.

Durango. Pisu alokairuan
durangon. Leku lasaia. 3 logela
eta 2 komun. Berogailu zentrala.
Garajea eta trasteleku. Anima-
liarik ez da onartzen. 625-70 41
12.

Durango. Logela individuala
alokatzeko da Landako Etorbi-
dean. Kontratuarekin. 648-20
03 70 (Carmen).

Elorrio. Nizeto Urkizu kalean
etxea alokagai. Sukaldia, egon-
gela, komuna, bi logela altzariz
hornitua eta berritzatua eta
ganbarahandibatekin. 550 euro.
Tel.: 645-73 54 42.

Elorrio. Elorri etxebizitza
alokagai. Eraikuntza berria,
erdigunean, igogailua, bi logela,
bi bainugela eta trasteleku. 600
euro Tel.: 634-45 72 01.

Isleta del Moro. Cabo de Gata/
Almería. Apartamentua ematen
da errentan. 607-66 02 44.

Llanes (Asturias). Bi pertsonen-
tzako apartamentua alokagai
Llanes (Asturias), deitu mese-
dez 13.30etatik aurrera 637-91
68 92 telefonora edo bidali
mezua llanpoo@hotmail.com
helbidera.

Mañaria. Hiru gelako etxea
balkoi handiarekin alokagai.
Pezio onean. 94-682 41 08
(goizez).

Ordizia. Ordiziako erdigu-
nean, logela bakarreko etxebizitza
alokairuan. Berritua. Berogailu
elektrikoak eta sukaldia buta-
noa. Jantzitza (altzariekin, etab.).
Bigarren solairuan dago eta
igogailurik ez du. Mugikorra:
648-72 34 74 (21:00etatik
aurrera)

Oropesa del Mar (Castello).
Marina Dorren 4-6 pertsonen-
tzako apartamentu berria aloka-
gai. Udan eta urte osoan zehar.
Aste bat, hamabostaldia edo
hilabete baterako. Itsasora
begira, hondartzatik 150 metro-
tara. Egongela, 2 logela, komuna,
sukaldia, terraza handia. Gara-
jea. Igerileku handia eta umeen-
tzako txintxaunak. Leku lasaia.
Ez dira animaliak onartzen. 670-
21 49 24. Marjio

Puerto Rico (Gran kanaria).
Apartamentu bat alokatzen dut
gran kanariako puerto rico
herrian. Bista oso politak ditu
itsasora. Astebeterako edo 15
egunerako alokatzen dut. Oso
merke. Abuztutik 2013ko mar-
txora arte. Deitu 670-31 12 23
telefono zenbakira.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokaia Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. - Profesionalen modulua.

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: **iragarkilaburrak.com**

Ribadesella (Asturias).

Etxebizitza ematen da errentan udako denboraldirako. Hiru logelakoa. 695-78 22 47.

Torreveja (Alacant). Torre-
vejan bungalow bat alokatzen
dute. 3 logela, egongela terraza-
gaz, 60 m²-ko solariuma,
urbanizazio pribatua, eremu
berdeekin eta igerilekuarekin.
615-77 96 22.

Villarcayo (Burgos). Etxea
alokatzeko da Villarcayon. Bigela,
sala, sukaldia eta komuna. Tel.:
610-61 52 60.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Errentan hartzeko
etxebizitza txiki baten bila nabil.
Logela batekoa edo bikoa, estu-
dio moduko bat. 653-72 43
19.

Arrasate. Gizon arduratsua
logela behar du errentan. 683-
42 87 04.

Debagoiena. Etxebizitza behar
dut errentan. Hiru logelakoa.
667-34 89 40.

Durungaldea. Durungaldean
alokatzeko pisu bila. Tel.: 628-
00 22 17.

Durango. Pisu bila Durangon.
Hiru gela. Hilabeterako, ekaina-
ren 22tik uztailaren 21era. Tel.:
670-85 93 16.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Gizon arduratsua
logela behar du errentan. 683-
42 87 04

Arrasate. Kaixo, hiru neska
euskaldun gara eta Arrasaten
pisukide bila gabiltza gela bat
betetzeko (neska zein mutil).
Pisua alde zaharrean dago,
handia eta argitsua da, 4 logela,
2 komun, sukaldia eta egon-
gela handi eta eguzkitsua ditu.
Alokairua, wifi, telefonoa eta
gastuak, 220-230 euro pertso-
nako dira hilabetea. Animatu
eta deitu! 608 57 97 70edo
665 71 69 10

Arrasate. Pisu osatzeko per-
sona baten bila gabiltza. Uztai-
letik aurrera. Kontratuarekin.
657 72 51 65

Arrasate. Etxea osatzeko gela
bat dugu errentan. Deitu: 653-71
44 57.

Bergara. Logela ematen da
errentan Matxiategin, etxeko
alde komunak erabiltzeko auke-
rarekin. 662 26 71 41

Berriz. Logela alokagai, baserria
konpartitzeko. Orainsu berriz-
tatua, lur sailarekin eta leku
paregabean. Aukeran, nahiago
emakumea. Deitu 619-66 58
57 telefonora.

Durango. Logela bat alokagai
Durangon. 650-73 87 24.

Durango. Pisu konpartituan
logela bat alokatzen da Duran-
goko alde zaharrean. Pazio
merke eta giro atsegina. 650-29
42 20.

Durango. Pisukide bilagabiltza.
Durangoko erdigu-
nean, pisu
berria eta egoera onean. Garajea
aukeran. 250 euro + fiantza.
635-73 19 24.

Elgoibar. Logela daukat erren-
tan emateko. 699-60 91 90.

Oñati. Etxebizitza osatzeko
persona bat behar da. 653-74
87 51.

Orozko. Logela bi alokatzen
ditut Orozkon. Giro familiarra.
Autobus geltokitik gertu. Pazio
ekonomikoa. Tel.: 660-62 64
86 edo 659-20 16 45.

106. BESTELAKOAK

Trukea. Orozkon (Bizkaia) dau-
kadan baserria eta pinudiak trukatu
nizuzke Arrasateko etxebizitza
bategatik. 2006an
berritua, gorbeia inguruan. Bilbo-
tik 25 minutu. 678 72 75 72

Trukea. Saloun (Pineda) dau-
kadan etxebizitza trukatu nuke
Arrasateko etxebizitza bategatik.
Erdi berria. Urbanizazio pribatua.
Hondartzatik 300 metrora. 943
79 45 74 edo 606 76 11 37

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje itxia salgai
Burdinatan. 607-34 16 62.

Berriz. Garaje itxia salgai Berriz-
en. 42 m². Ate automatikoa,
komuna, sukaldia, txokoa eta
bodega txikia. Ura eta argia. 3
auto sartzeko. 615-75 21 36.

Durango. Garajea salgai Duran-
goko Askatasun Etorbidea 12an.
660-20 18 30.

Durango. Trasteleku salgai
Astepe auzunean (Durango). 18
m² eta bi altuera, leihoa eta ate
berria. 9.500 euro. Tel.: 665-70
75 35.

Elorrio. Elorrioko Berrio-Otxoa
kalean garaje itxia saltzen da.
Interesa baduzu eta informazio
gehiago nahi baduzu, deitu! Tel.:
658-75 92 64.

203. ERRENTAN EMAN

Berriz. Learreta-Markinan,
lurpeko garaje itxia alokagai
(erosteko aukerarekin). Tel.:
666-34 14 02 (Mike).

Durango. Garajea alokagai
Durangoko Askatasun etorbi-
dean. 50 euro hilean. Tel.: 675-
71 95 54.

lurreta. Garajea alokairuan
lurretan, Eleixalden. Tel.: 636-
22 07 96.

Oñati. Moiuja kalean garaje
individuala errentan ematen da.
Deitu 943 25 07 61 telefono
zenbakira.

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Abadiño. Abadiño lokal bat
alokatzeko da. 661-45 18 51.

Bakaiku. Enkantearen hasie-
rako prezioa 2.000 eurokoa
izango da lokal handiarentzat
eta 1.000 eurokoa txikiarentzat.
Epearen bukaera uztailearen 13an
gaueko 21:30ean. Kontakua
Kontxi 948-56 26 56.

Durango. Durango erdi-erdian.
42 metro karratu erabilgarriak.
Kanpora ematen du. Altzariak
eta batzar gela. Pazioa: 550
euro/hilean. 656-78 02 15.

304. ERRENTAN HARTU

Lokala errentan hartu.
Gutxienez 60 metro karratu
inguruko lokal bat alokatuko
genuke Bergaran garaje eta bil-
tegi bezala erabiltzeko. 685 72
51 58

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume arduratsua
etxeko lan egiteko prest (gar-
biketa, plantxa, sukaldaritzak,
portalak...) 10 euro ordua. Erre-
ferentzi onak. 943-79 04 69
(Ana).

Arrasate. Bergara edo Arrasa-
te. Emakume prest etxe zein
atarietako garbiketa lan egiteko
edo lisatze lanetarako. 671-80
18 29.

Arrasate. Arrasate edo Aretxa-
baleta. Neska euskalduna,
ardurtsua, pertsona nagusiak
zaintzeko gertu. 645-00 75 24.
Eli.

Arrasate. Mutila gertu naga-
siak zaintzen lan egiteko. Espe-
rirentziaduna. Tabernan lagun-
tzaila gisa ere bai. Deitu 662-08
22 03 zenbakira.

Arrasate. Bertako emakume
lanerako gertu: ume edo naga-
siak zaindu, etxeko garbiketarako
eta abar. 943-79 60 89.

Arrasate. Emakume lanerako
gertu: zerbitzari, garbiketarako
eta abar. Juana Martinez. 662-25
99 64.

Arrasate. Emakume gertu
asteburuetan lan egiteko, gar-
biketarako, etxean bizi izaten edo
bestela. 699-09 46 26.

Arrasate. Emakume gertu
garbitasun lan egiteko. Ordu-
ka zein egun osoz. Deitu 672-70
71 25 zenbakira.

Arrasate. 13:00etatik 17:00e-
tara bitartean lan egiteko nuke.
Legezko paperak ditut. Deitu
678-10 02 00 edo 632-31 18
70 telefono zenbakietara.

Arrasate. Bergara edo Arrasa-
te. Gizonezko prest adineko
pertsonak zaindu edo lorezaintza
lanetarako. 617-02 54 72.

Arrasate. Aretxabaleta. Haur
hezkuntza ikasi duen 22 urteko
neska, prest haurrak zaintzeko.
Esperientziaduna. Deitu zenba-
ki honetara: 688-88 39 57.

Bergara. Neska euskalduna,
goiz eta arratsaldez umeak
zaindu edota eskolara eramate-
ko prest. 676-69 56 20.

Bergara. Neska gazte euskal-
duna gertu udan umeak zaintze-
ko. 617-80 87 85.

Bergara. Umeak zaintzen edo
nagusi laguntzen zein garbitasu-
nak egiten lan egiteko nuke. Espe-
rirentziaduna. 610-34 97 88.

Bergara. Neska euskalduna
haurrak zaintzeko prest ekaina
eta uztailean. 686-80 96 28.

Bergara. Mutil gazte euskal-
duna umeak zaintzeko prest.
Edozein ordutegitan ahal dezake.
Ingeleseko maila altua. 650-52
83 42.

Debagoiena. Neska gertu
interna, orduka zein gauetan lan
egiteko, nagusiak zaintzen.
Atariak garbitu, lisatu eta aba-
rretan ere bai. 689-95 12 83.

Debagoiena. Esperientziadun
neska gertu, geriatria eta erizain-
tza formakuntzarekin, nagusiak
zaintzeko. Gaixoak eta umeak
ere bai. Etxean bizi izaten edo
ordua. 634-62 41 26.

Debagoiena. Etxeko lanak
egiten edo nagusiak zaintzen
lan egiteko nuke. Etxean bizi
izaten edo bestela. Legezko
paperak ditut. 636-77 44 24.

Debagoiena. Gauetan edo
asteburuetan nagusiak zaintzen
lan egiteko nuke. Deitu 699-60
91 90 telefonora.

Debagoiena. Erizaintza lagun-
tzaila tituludun bikotea, perso-
na nagusiak zaintzeko prest.
Bertan bizitzeko aukera. 697-35
62 49.

Debagoiena. Neska arduratsua
lan bila: nagusi edo umeak zain-
tzen eta garbiketarako. Deitu 699-
07 99 69 telefonora.

Debagoiena. Neska etxeko
lanak egiteko, umeak zein hel-
duak zaintzeko gertu. Auxiliar
tituluarekin. 655-96 18 22.

Debagoiena. Neska gertu
nagusi edo umeak zaintzeko eta
garbitasun lanetarako. Egunean
zehar, gauak edota asteburuak.
618-1471 34.

Debagoiena. Neska gertu
tabernan lan egiteko, sukaldian
edo barran. Garbiketa zein bes-
telako lanetarako ere gertu
engoke. Legezko paperak ditut.
603-25 12 34.

Debagoiena. Gizona gertu
nagusiak zaintzeko, baita ospita-
lean ere. 654-94 87 26.

Debagoiena. Lanaldi osoz,
arratsaldez, zein ordua, garbi-
keta lanak egiten, pertsona naga-
siak zaindu edo bestelako
lanetarako emakumea prest.
630-99 11 85.

Debagoiena. Neska arduratsua
umeak zaindu, orduka garbiketarako
egin edo nagusiak zaindu zein
pasean laguntzeko. 943-71 53
74/695-73 87 95.

Debagoiena. Gizon boliviarra
gertu nagusiak zaindu, gidari,
iturgin, lorazain zein bestelako
lanetarako. Gidabaimenarekin.
622-40 66 61.

Debagoiena. Neska euskalduna
eskaintzen da umeak zain-
tzeko. 626-32 19 75.

Debagoiena. Neska euskalduna
gertu ume zein nagusiak
zaintzeko, etxeko lanak egiteko
edo ospitalean gauak egiteko.
Esperientzia eta informezko dau-
kat. Autoa eta gidatzeko baimena
ere bai. 671-35 22 60.

Debagoiena. Neska gertu gar-
bitasun lanak egiteko edo naga-
siak eta umeak zaintzeko. Geriatria
titulua. 662-26 71 41.

Deb

Debagoiena. Emakume arduratsua, geriatria tituluduna eta erizaintza laguntzaile titulua ikasten dagoena, pertsona nagusiak eta haurrak atenditzeko prest. 646-05 58 88.

Debagoiena. Neska boliviarra gertu etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten zein bestela. Legezko paperak ditut. Deitu 633-66 52 45 zenbakira.

Debagoienan. 54 urteko emakumea gertu umeak zaintzeko, etxe, atari zein tabernak garbitzeko, edo jatetxean lan egiteko. Esperientziaduna. 647-10 58 72.

Debagoiena. Emakume arduratsua geriatria tituluduna eta erizaintza laguntzaile titulua ikasten dagoena, pertsona nagusiak atenditzeko prest baita ospitaletan gauak pasatzeko ere. Erreferentziak. 664-63 54 55.

Debagoiena. Neska gazte euskadun arduratsua udan umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. 688-69 59 40.

Debagoiena. Neska lan egiteko gertu. Etxean, garbitasun lanetan edota ume zein nagusiak zaintzen. Etxean bizi izaten edo bestela. Autoa eta gidatzeko baimena daukat. Deitu zenbaki honetara 697-20 00 86.

Durungaldea. Pertsona euskalduna, udan, nagusiak zein umeak zaintzeko prest, uztaila eta abuztuan. Deitu zenbaki honetara 690-76 03 16.

Durungaldea. Interna bezala pertsona nagusiak zaintzeko prest. 602-12 22 45.

Durungaldea. Neska gazte euskalduna ekainean eta uztailan haurrak zaintzeko prest. 686-80 96 28.

Durungaldea. Etxeko lanterako prest, baita ume eta nagusien zaintzarako, bulego edo tabernengarbitzarako... Esperientzia eta erreferentziak. Paperekin. Tel.: 648-84 55 54.

Durungaldea. Interna, externa edo ordurako garbitzetarako prest. Tel.: 634-07 27 38.

Durungaldea. Etxe, portal, taberna, denda, bulegoen garbitzarako lan bila. Baita ume edo nagusien zaintzan. Orduka, jardunaldi osoan, erdian, gauz edota asteburuetan. Paperekin. Deitu 670-67 46 41 edo 638-46 93 83 zenbakietara.

Durungaldea. Emakume bat, pertsona nagusiak, garbiketa lanak eta sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko prest. 9:00etatik aurrera. Deitu zenbaki honetara: 686-19 00 24.

Durungaldea. Emakumea, pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko lan bila. Gauz eta asteburuetan. Deitu zenbaki honetara 648-20 03 70. Carmen

Durungaldea. Esperientzia duen pertsona, erreferentzia onakin eta papelekin, asteburuetan, 24 orduz edo egunez, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Bizkaia osoan. Deitu zenbaki honetara 660-71 67 89.

Durungaldean. Garbiketa lanak edo pertsona nagusi zein umeak zaintzeko prest. Orduka tel.: 638-43 79 01 (Jova)

Durango. Durangon, irailetik aurrera umea zaintzeko emakumezko bat behar da. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 606-21 62 17.

Durungaldea. Etxeko lanetarako zein zaintzarako prest, 18:00etatik aurrera eta asteburuetan. 608-50 40 43.

Durungaldea. Sukaldean, garbiketan edota zaintzan lan bila. Esperientzia gerokultora, sukaldari, sukaldari laguntzaile eta garbitzaile lez. Jardunaldi osoa, erdia edota orduka. Tel.: 653-33 06 05 edo 94-466 82 12. Genevieve.

Durungaldea. Nagusien edo umeen zaintzarako lan bila. Gauz, arratsalde edo asteburuetan. 696-75 35 30. Purificación

Durungaldea. Edozein lantegitan lan egiteko prest. Eraikuntza izan ezik. Tel.: 672-58 47 58 (Thomas) 644-07 49 14 (Enock)

Durungaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzen lan egingo nuke. Garbiketan ere bai. Interna edo externa. Asteburuetan ere. Tel.: 660-64 20 89.

Durungaldea. 24 orduz, egunez edo orduka lan egiteko. Garbiketarako edota pertsona nagusiak zaintzeko. Durango eta inguruetan. Esperientzia eta erreferentziak. Paperekin. Tel.: 628-65 50 31.

Durungaldea. Etxean, portalen, tabernen... Garbiketarako, ume edo nagusien zaintzarako lan bila. Externa, interna edo orduka. Paperekin. Esperientzia eta erreferentziak. Deitu zenbaki honetara 650-17 24 33

Durungaldea. Neska arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko prest. 24 orduz edo egunez. Tel.: 632-11 77 23.

Durungaldea. Neska arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko prest. 24 orduz edo egunez. Tel.: 602-00 83 58.

Durungaldea. Gauz, arratsaldez, goizez edota asteburuetan garbiketa lanetan edota ume edo nagusien zaintzan aritzeko prest. Esperientzia eta erreferentziak. 690-68 73 95.

Durungaldea. Interna edo externa modura nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketarako aritzeko prest. Esperientzia eta erreferentziak. Paperekin. Tel.: 638-52 39 22.

Durungaldea. Nagusien zaintzarako lan bila. Jardunaldi osoan edo gauetan. 678-80 96 01.

Durungaldea. Nagusien edo umeen zaintzan edo garbiketarako lan bila. 12:30etik 16:30era, edota gauz. Erreferentzia onak. Tel.: 650-61 01 94. Rosa

Durungaldea. Nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketarako lan bila. 24 orduz, egunez edota asteburuetan. Deitu zenbaki honetara 632-34 18 82.

Durungaldea. Neska astearte eta asteazkenetan edo orduka lan egiteko eskaintzen da. 672-69 91 52.

Durungaldea. Garbiketan, ume edo nagusien zaintzan aritzeko lan bila. Erreferentziak. Tel.: 646-85 54 32.

Durungaldea. Umeen zaintzarako lan bila. Goizetan 14:00 arte eta 16:00etatik 22:00etara. 681-21 82 30.

Durungaldea. Etxeko lanetarako prest. Nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketarako. Egunez, gauz edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 618-29 55 13.

Durungaldea. Edadeko pertsonak zainduko nituzke. Umeak ere bai. Erreferentziak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617-05 01 87

Durungaldea. Nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketarako aritzeko lan bila. 24 orduz, egunez edota orduka. Erreferentziak eta esperientzia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632-51 68 61.

Durungaldea. Egun osoz, egunez, gauz edo asteburuetan lan egiteko prest. Nagusien edo umeen zaintzan baita garbiketarako ere. Esperientzia eta erreferentziak. 628-00 22 17.

Durungaldea. Sukalde laguntzaile edo erikuntza laguntzaile modura lan bila. Tel.: 686-58 67 69.

Durungaldea. Mutil arduratsua fruta-saltzaile, tabernari edo supermerkatuetan lan egiteko prest. Esperientzia eta gidatzeko baimena. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 651-54 80 99.

Durungaldea. Durango. Nagusien zaintzan, garbiketarako, segurtasunean, lorezaintzan, okintzan, gudi-garraiolaria... Lan bila. Interesatuok deitu zenbaki honetara: Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622-47 39 41. Julian.

Durungaldea. Nagusi edo umeen zaintzan edota garbiketarako lan bila. 602-85 05 13.

Durungaldea. Nagusi edo umeen zaintzan edota garbiketarako lan bila. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602-12 22 45.

Durungaldea. Neska arduratsua eta esperientziaduna pertsona nagusi zein umeen zaintzarako lan bila. Jardunaldi osoan edo orduka. Garbiketarako lan bila. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 651-54 80 99.

Durungaldea. Ume edo nagusien zaintzan edo garbiketarako lan bila. Goizetan 09:00etatik 13:00etara. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632-72 43 23.

Durungaldea. 24 urteko neska etxeko lanetarako, edota ume edo nagusien zaintzarako lan bila. Tel.: 660-62 64 86 edo 659-20 16 45. Silvia

Durungaldea. Neska arduratsua eta erreferentziaduna gauz, arratsaldez edo asteburuetarako lan bila. Nagusien zaintzan edota garbiketarako. 632-99 96 92.

Durungaldea. Gauzetarako edo asteburuetarako lan bila nagusien edo umeen zaintzan edota erreferentziak. 646-42 97 41.

Durungaldea. Emakume esperientzia eta erreferentziaduna nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketarako orokoretarako lan bila. Egunez edo 24 orduz, gauz, orduka edota asteburuetan. 646-20 72 71.

Durungaldea. Geriatriako auxiliarra nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketarako lan bila. Esperientzia sukaldean, garbiketarako, plantxan, josturan... 678-23 02 66.

Durungaldea. Nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketarako lan bila. Egunez, 24 orduz, orduka... Esperientzia eta erreferentziak. 94-620 04 49.

Durungaldea. Emakume arduratsua lan bila. Erreferentziak daukat. Pertsona nagusiak zaintzeko edo sukaldean laguntzeko prest. Egunez, gauz, 24 orduz, asteburuetan. Deitu 608-65 90 55 edo 632-29 27 26 zenbakietara eta Nievesengatik galdetu.

Durango. Neska gazte euskalduna, haurrak zaintzeko prest uztailan, haur-hezkuntzako ikasketak burututa, eta esperientzia. Deitu: 615-71 62 32.

Durango. Uztailan umeak goizez zein arratsalde zainduko prest dagoen neska euskaldun bat naiz (24 urte). Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 646-53 83 90.

Durango. Neska gazte euskalduna, haurrak zaintzeko prest uztailan, haur-hezkuntzako ikasketak burututa, eta esperientzia. 615-71 62 32.

Elorrio. Irailetik aurrera, arratsaldetan, umeak zaintzeko prest (Elorrixon). Esperientzia handiarekin. Informazio gehiagorako deitu 688-64 06 04.

Eskoriatza. Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasate. Neska euskalduna, uztail edo abuztuan goiz eta arratsalde umeak zaintzeko prest. 660-60 83 36/943-71 40 45.

Iurreta. Emakume euskalduna pertsona nagusiak, ezinduek eta gaixoak zaintzeko prest. Urte askotako esperientzia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699-74 57 23.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. DBH laugarren mailako ingeles eskolak emango dizkidan norbait behar dut, ingelesa ondo menperatzen duena. Irene. 679-31 62 72.

Bergara. 6. maila bukatu duen mutikoari euskara eta gaztelekarako hiztegia landu eta laborpenak egiten laguntzeko norbait behar dut, uztailan, bi asterako. 637-52 89 83.

Debagoiena. Aleman eskolak jasotzeko prest nago, udako hilabeteetan. 666-71 69 79.

502. EMAN

Abadiño. Magisteritzan diplomatu, Matienan eta Durangon klase partikularrik emateko prest, Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Tel.: 618-06 87 49.

Arrasate. Ingeleseko eskolak ematen dira. Maila guztietarako. Ordelegia norberak aukeratu du. 688-64 12 56.

Durungaldea. Euskal filologian lizentziatutako neska euskara klase partikularrik emateko prest, maila guztietan. Gazte zein helduei. Esperientziaduna. Tel.: 686-809 628

Durungaldea. Psikologo euskaldun ikasteko teknikak eskaintzen ditu. Tel.: 679-38 23 69.

Durungaldea. Hizkuntza eskola ofizialeko tituluduna, inglesa hobetzeko klase partikularrik emateko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 637-29 24 65.

Durungaldea. Alemaniarazko klaseak ematen ditut. Metodo atsegina. Adin guztiak. Informa zaitetz: 670-79 33 12.

Durango. Telekomunikazio ingeniari teknikoa, gaur egun goi mailako ingeneritza bukatzen, matematika eta fisikako partikularrik emateko prest. Bi urteko esperientzia Batxilergoko 2. mailako ikasleekin, baina gazteago direnentzako ere partikularrik emateko prest. Tel.: 656-78 68 10. hamarpaul@hotmail.com. Paul.

www.inmosalbide.com

Salbide
SALBIDE
Higiezin zerbitzuak

Aia. Eraikuntza berriz. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m²ko terraza. Oso prezio onean 39.000,046 pezeta!

Aia. Baseria berritu berria. 125 m²-ko bi solairu ditu. 25 m²-ko terraza. Terrenoa, 110.000 m². 50.000.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.

Arroabea. Duplex eraiki berriz, zoragaria (154m²). Segituan bizitzeko jartzeko moduan. Bi solarium (44m²). Garajea eta trasteleku. Prezioa: 47.919.168 pezeta. Aukera aparta!

Bergara. Askaruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldea, berokuntza sistema garezekin. 150.000 euro !!

Bergara. San Lorenzo auzoan. Duplex bat, estreinatzeko, garaje plaza eta guzti. 48.000.000 pezeta.

Iraeta. Etxe berria, 2 logela, terraza eta lorategia. Garajea handia. Komunitateko igerilekua. 39.000.000 pezeta.

Getaria. Herriari kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Oso prezio onean. 39.000.000 pezeta.

Zarautz. Itxasmendi. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela eta terraza. Argitsuak. Prezio berria: 46.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Aharia salgai. Lau urteko bi ahari salgai Matienan. Tel.: 670-40 77 65.

Astoak salgai. 2 asto eme salgai. 3 urtekoak eta txikiak. Tel.: 616-91 90 61.

Bildotsak eta ahuntzak salgai. Gorbeia zelaian hazitakoak. Ardi latxa arrazako bildotsak, jaioberriak. Ahuntz azpigorriak. 94-633 05 74 edo 690-73 27 01. Maximo

703. EMAN

Arratoi txakurrak opari. Arratoi txakurrak oparitzen dira. Tel.: 656-74 34 57

Txakurkumeak opari. Txakurkumeak oparitzen dira. Tel.: 633-87 05 51.

8. DENETARIK

801. SALDU

Almirante trajea salgai. Jaunartzea egiteko mutiko trajea salgai. Behin bakarrik erabilia. Traje osoa, zapatak izan ezik. 10 neurrikoa. 100 euro. 618-00 08 28.

Arkoa. Egoera onean dagoen izozkailu salgai. Fagor markakoa. Sakonera 65cm, altuera 90cm eta zabalera 1,50m. Tel.: 94-681 37 84 (guez).

Habia ohea salgai. Habia ohea salgai. Berria eta polita. 4 kaxoiekin, 2 lastairu (bat erabili gabe) eta eskailera txikia. Dena: 490 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656-75 48 64.

Kanpadendasalgai. Marechal markako kanpadenda salgai. Behin bakarrik erabilia. 4 pertsonarentzat. Aukera ezin hobea! 100 euro Tel.: 615-00 72 16.

Kayaka salgai Debagoienan. 3d perception modelo. Txalekoa, txubaskeroa, arrauna eta abar. 800 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 690-81 64 39.

Koltxoiak salgai. 135 zm-ko 3 koltxoi salgai. Banan-banan ere saltzen dira. Bakoitzak 100 euro. Tel.: 636-04 63 18.

Lehorgailua salgai. Debagoienan hiru kiloko lehorgailua salgai. Ia berria. 659-34 31 43.

Marshall JCM 2000 TSL602. Gitarra amplifikagailua salgai, 60 watio, balbulekin eta 12 bozgorailu birekin. Hiru kanal ditu: clean, crunch eta lead. Hrd-case kuxarekin. 697-28 59 48.

Mostradoreak. Dendako bi mostradore salgai debagoienan. Ia berriak. 696-84 19 51.

Nintendo 3DS + Super Mario 3D Land. Gabonetan erositako nintendo 3DS eta super mario 3D land salgai. Berria bezala, 200 euro. Bergara. 696-24 84 90.

Piano elektriko salgai. Yamaha Clavinova CLP 150 piano elektriko salgai. Kontakta: 650-17 22 85 edo strato-kaster@gmail.com

Quinny zapp extra. Kapota beheko otzara, bi burbuila, karroarentzat boltsa, maxicosierentzat akoplejokoa berriz. Gutxi erabilia. Berme epearen barne. 94-603 02 62.

Silfoia eta perkusioa salgai. Honsuy markako silfoia edo perkusioa salgai. Prezio ona: 50 euro. Tel.: 94-681 25 58. Ander.

Stokke sleepi, mini eta sehaska, salgai. Zuria. Egoera oso onean, gutxi erabilia. 350 euro. Deitu 19:00ak eta 20:00ak artean 648-20 37 75 telefono zenbakira.

Trialeko botak. Debagoienan. Botak hebo zuriak dira, egoera onean eta gutxi erabilia. 37 zenbakia. 60 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630-66 07 19.

Xbox 360. Xbox 360 salgai. Orain dela bi urte erositako, baina erabili gabe. 250 GB. Urtebete bermearrekin. 175 euro. 943 79 39 35.

Xurgagailua. (aspiradora). Akaroen aurkakoa eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabilia. 659 62 02 49.

Xurgagailua salgai. Orbegozo AP7010 modelo. 2000 watiko. 50 euro. 686 37 52 39, 606 78 30 30

802. EROSI

Bugaboo Donkey aulki bikoitza. Bugaboo Donkey aulki bikoitza, egoera onekoa, erosiko genuke. Deitu 635 70 05 14 telefono zenbakira.

Lursaila erosiko nuke. Lursaila erosiko nuke Bergara, Oñati edo Eskoriatza artean, erleak ipintzeko, hektarea bat eta lau artekoa. Salgai baduzu deitu 626 01 19 07 telefono zenbakira.

804. HARTU

Liburuak. Arizmediko LH 6. mailako liburuak hartuko nituzke. Emateko badituzu deitu 605 46 19 26 telefono zenbakira.

806. GALDU

Mendiko bastoiak. Ekainaren 28an mendiko bi bastoi gorri galdut nituen Durura bideko aparkamentuan. Gustora berreskuratuko nituzke. Aurkitu badituzu deitu 943 53 32 91 edo 656 30 86 56 telefono zenbakietara.

808. BESTELAKOAK

Espiritu Santuari eskerrik asko jasotako mesedeagatik. JG.

Espiritu Santuari eskerrik asko jasotako mesedeagatik. MG.

9. HARREMANAK

903. DEIAK

English Book Club. Aretxabaletan biltzen den irakurle talde baten parte hartu gura badozu deitu zenbaki honetara edo idatziz goienabookclub@yahoo-group.com helbidera. New readers welcome! Deitu 656 75 41 34 telefono zenbakira.

904. BESTELAKOAK

Laguntasan bila. 35 urteko neska polita, sentibera eta ezkongabeak, laguntasuna gura luke 30-40 urte bitarteko neska femenina batekin. Utzi mezua zenbaki honetan: 615750990 (Marian)

Bazkide bila Durangon. Bazkide berrien bila gabilza, Salabari elkartean parte izateko (Mendizabal auzunean). Interesatuok deitu 650-49 90 74 zenbakira. Kopuru mugatua.

Etxebila
higiezinak

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

IKASLEENTZAKO ALOKAIURAK
AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Bistak. Terraza. 750 €
AMARA: 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela. 1.100 €

SALMENTAN
PASAI ANTZO: 75m². 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igozailua. 126.000€
PASAI DONIBANE: terraza, kaira begira. 55 m²-ko lofta. Baimenakin. Proiektua eginda. 107.000
AMARA: 5 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela. Eguzkitsua. 290.000€
AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Terraza. Altua 270.455€
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igozailua. 200.000
AMARA:

Abuztura arte itxaron beharko da Twitter guztiz euskaratuta izateko

- Dagoeneko %90ean dute euskaratuta erabiltzaileek
- Katalanez ere abian da sare sozial arrakastatsua aurrerantzean

MAIDER ARREGI | ARRASATE
Maiatzaren 17an iragarri zuten Twitterrek, azkenean, onartu zuela bere interfazea euskarara itzultzea. Eta egunerako espero zen Twitter euskaraz martxan jartzea. Baina itzulpen lana luze jotzen ari da eta sare sozialeko arduradunek beste data bat jarri-

ko dute Twitter euskaraz erabili ahal izateko. Hain zuzen ere, oraindik euskaratu beharreko informazioaren %11 falta da euskaratzeko. Hori horrela, Twitter euskaratzen diharduten erabiltzaileek abuztura arte itxaron beharko dela diote Twitter euskalduna abiatzeko; hori aurrei-

kusi du, behintzat, Lander Arbelaitz #twittereuskaraz ekimenaren sustatzaileetako batek. Beraz, itxaron egin beharko da dena euskaratu arte, eta hori lortu ondoren izango da Twitter euskaraz erabiltzeko aukera, esan bezala abuztutik aurrera, ziurrenik eta dena ondo bidean badoa.


Dena den, erabiltzaile batzuek itzulpenak egiten lagundu dutenak nagusiki dagoeneko erabil dezakete Twitter euskaraz. Konpainia estatubatuarrek maiatzean iragarri zuenez, sei hizkuntza berri gehitu ditu bere hizkuntza zerrendara, euskara barne. Hala ere, atal batzuk euskaratu gabe daude oraindik eta edozein erabiltzailek dauka lan horretan laguntzeko aukera abiatu duten kanpainaren bitartez, Twitter Translator zerbitzuarekin. Eduki guztiak itzultzea lortzen bada, abuztuan Twitter euskaraz kudeatzen hasiko gara.

%90ean euskaratuta
Twitter.com-en %90 euskaratu dute dagoeneko erabiltzaileek,

baina zenbait arazo daude azken txanpan. Itzulpenak egiteko Twitter Translator zerbitzua dago, baina atariak ez omen du oso argi adierazten zer euskaratu behar den eta zer ez. #twittereuskaraz traolan, erabiltzaileak itzulpenak egiteko izaten ari diren hainbat arazo aipatzen ari dira.

Batzuek diote arazo teknikoak dituztela terminoak euskaratzeko, eta Twitterren itzulpena egiteko tresna ez dagoela erabat prestatuta uste dute.

Esan beharra dago katalanez ere erabili ahal izango dela Twitter aurrerantzean, baina euskaraz gertatzen den arazo bera dute katalanek, eta oraindik ez dute lortu %100ean itzultzea.



Horace Dediu analistaren grafikoa. | APPLEWEBLOG.COM

saltzen den Mac bakoitzeko 17 PC saldua. Egia da Apple etxeak diseinua hobetzeko esfortzu handia egin duela. Eta bere hardware eta softwareak salmenta kopurua handitzen lagundu diotela. Egun, Mac ordenagailua munduko edozein txokotan ikus dezakegu; lehen arrotza egiten zitzaiena orain eguneroko bilakatu zaigu, gainera.

Onartu beharrekoa da, baina, PCaren nagusitasuna oraindik ere nabarmena dela. Baina tendentzia garbia eta positiboa da Maca egiten dutenendako.

Ipada goraka

Garrantzitsua da azpimarratzea grafikoa PCaren etas Macaren arteko aldea erakusten duela. Izan ere, Ipada sartuz gero, grafikoren tendentzia oso bestelakoa izango litzateke. PCa duten askok Ipada dute. Gainera, beste askok PCa iPadarengatik ordezkatu dute.

Hori bai, bi etxeen produktu guztiak kontuan hartuta, Apple etxearen nagusitasuna merkatuan garbia da. Izan ere, iPhonea, iPod eta aipatu berri dugun Ipada une honetan gehien saltzen diren gadgetak ditugu.

Apple eta Google etxeek pantaila betaurreko iraultzaileak aurkeztu berri dituzte

M.A. | ARRASATE
Applek aurkeztu berri dituen betaurreko horiei esker, modu pertsonalean edukia kontsumitzeko aukera izango da, zuzenean, bakoitzaren begietan. Pantaila betaurrekoak ez dira oso zabalduta dauden kontsumo produktuak, baina pantaila eta betaurreko ekoizle handiak animatu egin dira. Hortxe ditugu merkatuan, besteak beste, Carl Zeiss Cinemizer eta Sony

etxearen Visor 3D; biak 3Dn erreproduzitzeko aukerarekin. Baina Applen betaurrekoak haratago doaz. Izan ere, kompetenziaren betaurreko kontzeptua aldatzera datoz. Horretarako, flotatu egiten duten irudiak eskaintzen dituen teknologia eramango dute betaurrekoen bi pantailek. Horri aurre egiteko, Googlek Project Glass kaleratu du, e-postara konektatzeko aukerarekin.



Cinemizer betaurreko arrakastatsua. | 20MINUTOS.COM


PC eta Mac ordenagailuen arteko ratioa txikitu egin da

Bien arteko ratioa txikia izan arren, PCaren nagusitasuna merkatuan nabarmena da

M.A. | ARRASATE
Horace Dediu analista ospetsuak egindako ikerketan, 80ko hamarkadatik gaur arte, PC eta Mac ordenagailuen arteko ratioa zein den azaldu du. Hau da, saltzen diren PC ordenagailuko, zenbat Mac saltzen diren erakutsi du

grafiko batean. Grafiko horren arabera, 2004an ikus dezakegu puntu garaiena.

Saltzen ziren 60 PCko Mac bakararra saltzen zen-eta. Baina urte hartatik aurrera, Apple etxea errautsetatik berpiztu eta indarra hartuz joan da. 1990ean moduan,



FITS.ME

Fits.me aldagela birtuala

Arropa on line erosten dutenei neurria probatzen laguntzen duen asmakizuna dugu Fits.me. Modu horretan, internautari erosten duen arropa neurrikoa duen egiaztatzen laguntzen dio. Interneteko erosleek kopurua gehitu eta erosketen itzulpenak gutxitu egin dezakeela uste dute egileek. Oraindik, baina, asmakizuna azken fasean dago eta zenbait proba egiten dihardute erabiltzaile jakin batzuekin.

Internet Askearen Aldeko Deklarazioa egin daiteke

Deklarazioak bost lan-ildo finkatzen ditu, prozesu garden eta parte-hartzailea babestuz

M.A. | ARRASATE
Zenbait erakunde, aditu eta internautek sinatu dute dagoeneko Internet Askearen Aldeko Deklarazioa. Acces, Global Voices, Amnesty International, Free Press... erakundeek sinatu dute, besteak beste. Deklarazio labur eta zehatza, Internetek izan behar lukeena defendatzeko. Ekimena Interneteko zentsuraren, kontrolaren eta manipulazioaren aurka doa, ACTA, SOPA eta Espainiako Sinde-Wert Legeen aurka, adibidez. Internet librea eta irekia

defendatzen du Internet Askearen Aldeko Deklarazioak. Prozesu garden eta parte-hartzaileak babesten dira Interneterako politikak formulatzeko, baita bost oinarri edo lan-ildo finkatu ere: ez zentsuratu Internet; sarbide unibertsala eta azkarra bultzatu; Internet sare ireki moduan mantendu; baimenik gabe sortu eta eraberritzeko askatasuna babestu; pribatutasuna defendatu. Norberak sinatzeko aukera ere badu, www.internetdeclaration.org/freedomwebgunean.

iPhonearen bosgarren bertsioa irailean merkatura daiteke

Teknologia adituek dagoeneko esan dute 2013ko gailu salduena iPhone 5a izango dela. Zurrumurruek arabera, irailean merkaturatuko dute. Baina iPad eta Mac ordenagailuen salmentek behera egingo dutela diote; bada, jendea produktu berriaren zain dago.



iPhone 5. | APPLE.COM

TELE-BEGI

AMAIA
PAVONPsycho pelikularen
preuela

Alfred Hitchcock zuzendariaren jarraitzaile zarenontzat albiste interesgarria duzue honakoa! Nahiz eta etxeko telebistan ikusterik ez dugun izango (oraingoz ez behintzat) Universal Television ekoizte-txea Psycho pelikularen preuela ekoizten ari da A&E telebista kate estatubatuararentzat, eta 2013an estreinatuko da.

Internet bidez datorren urtetik aurrera, beraz, aukera izango dugu telesail berri honen lehenengo denboraldia ikusteko. 10 kapitulu dituen preuela honek Norman Bates pertsonaiaren haurtzaroa izango du hizpide, eta Bates Motel-ean Normanek izandako bizipenak kontatuko ditu, pertsonaia nola zoratzen den ikusi arte. Precuelaren teknika erabili izan da beste hainbat kasutan, hau da, ekoiztuta dagoen istorio baten aurreko testuingurua kontatzen da ekoizpen berri baten. Horren adibide dira 1999ko Star Wars pelikularen trilogia, bertan 1977ko trilogiako egitateen aurrekoak kontatzen dira; edota Smallville telesaila, Superman-en haurtzaroan kokatzen dena.

Denak ere, esperientzia interesgarriak narratibaren aukera anitzak ezagutzeko.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 9



Auto lasterketa

Gatzagako auto lasterketako irudiak eta unerikerakusgarrienak aste honetako *Harmailatik* saioan | 21:30

12:30 Magazinea
13:30 Zorion Agurrak
13:35 Onein
13:57 Ikusten
14:10 AsteON
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:10 Zorion Agurrak
15:15 Jaiak: Debagoieneko jaiak
16:05 Ur eta lur
16:50 Berriak
17:10 Eguraldia
17:15 Zorion Agurrak
17:20 Onein
17:52 Berbaz
18:59 AsteON
19:39 Ikusten
19:50 Zorion Agurrak
19:55 Berriak
20:15 Eguraldia
20:18 Magazinea
21:08 Berriak
21:28 Eguraldia
21:31 Harmailatik
22:16 Magazinea
23:01 Harmailatik
23:46 Berriak
00:14 Eguraldia..

MARTITZENA 10



Beranduegi.tv

Astero bezala, azken egunetako aktualitateari ironiaz betetako begiratu zorrotza eskainiko dute. | 18:20

12:25 Magazinea
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Harmailatik
14:05 AsteON
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:10 Harmailatik
15:55 Onein
16:15 Goierrri Creation Center
16:40 Zorion Agurrak
16:45 Berriak
17:05 Eguraldia
17:08 Bizitegia
17:34 Harmailatik
18:19 Beranduegi.tv
18:37 Hamaiika.bit
19:07 Ur eta lur
19:52 Berriak
20:12 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Zorion Agurrak
21:05 Berriak
21:25 Eguraldia
21:30 Harira
22:02 AsteON
22:47 Magazinea
23:32 Walker
23:54 Berriak

EGUAZTENA 11



'Tertulia'

Ubane Maderaren eskutik Arrasateren etorkizunari nola aurre eginizango da mintzagai tertulian. | 22:04

12:15 Magazinea
13:00 Zorion Agurrak
13:05 Harira
13:40 Beranduegi.tv
14:00 Harmailatik
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:10 Ur eta lur
15:55 Onein
16:23 Goierrri Creation Center
16:48 Berriak
17:08 Eguraldia
17:11 Harmailatik
17:56 Zorion Agurrak
18:01 Musikaz Gain: Lauroba
18:12 Beranduegi.tv
18:37 Harira
19:12 Nere herrie
19:45 Zorion Agurrak
19:50 Berriak
20:10 Eguraldia
20:15 Magazinea
20:53 Lehiaketa
21:01 Berriak
21:21 Eguraldia
21:24 Magazinea
22:04 Tertulia
23:04 Berriak
23:24 Eguraldia
23:29 Harira
00:00 Planik bai?

EGUENA 12



'Planik bai?'

Arantzazu Ezkibelek aurkeztuta, astebururara begira jarriko gara. Askotariko planak izango dira. | 18:48

12:25 Magazinea
13:10 Zorion Agurrak
13:15 Bizitegia
13:41 Tertulia
14:41 Zorion Agurrak
14:46 Berriak
15:06 Eguraldia
15:11 Hamaiika.bit
15:41 Goierrri Creation Center
16:06 Musikaz Gain: Lauroba
16:18 Tolosandblues
16:55 Berriak
17:15 Eguraldia
17:20 Tertulia
18:20 Onein
18:48 Planik bai?
19:08 Walker
19:30 Ikusten
19:45 Zorion Agurrak
19:50 Berriak
20:10 Eguraldia
20:15 Magazinea
20:55 Planik bai?
21:15 Berriak
21:35 Eguraldia
21:38 Hamaiika.bit
22:08 Walker
22:30 Planik bai?
22:50 Magazinea
23:35 Berriak
23:55 Eguraldia
00:30 Planik bai?
00:50 Berriak
01:10 Eguraldia

EGUBAKOITZA 13



'AsteON' saioa

Kannabisaren landatzea, kontsumo eta salmentaren inguruan arituko gara aste honetan. | 22:00

12:30 Magazinea
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Walker
13:42 Onein
14:07 Beranduegi.tv
14:32 Musikaz Gain: Lauroba
14:42 Zorion Agurrak
14:47 Berriak
15:07 Eguraldia
15:12 Planik bai?
15:22 Bizitegia
15:48 Berbaz
16:56 Berriak
17:16 Eguraldia
17:21 Planik bai?
17:41 28.Klip
18:04 Harira
18:36 Tertulia
19:36 Beranduegi.tv
20:00 Berriak
20:20 Eguraldia
20:25 Planik bai?
20:50 Harira
21:22 Berriak
21:42 Eguraldia
21:47 Musikaz Gain: Lauroba
22:00 AsteON
22:35 Tolosandblues
23:12 Berriak
23:32 Eguraldia
23:35 Planik bai?
23:55 AsteON

ARRASATE IRRATIA

Diska bilduma eta
udarako mahai joko
aproposa zozketan

Aste honetan diska bilduma bat eta udarako oso aproposa den mahai jokoa zozketatuko ditugu. Udaz are gehiago disfrutatzeko aukera bikainak Parte hartu nahi baduzu: deitu ezazu 943 25 05 05 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat irratia@goiena.com edo [#arrasategoiena](https://twitter.com/arrasategoiena)-ra. Zorte on!

Txatxilipurdiko
udalekuetara
gerturatuko gara

Uda zelan doan jakiteko Txatxilipurdiko udalekuei bisita egingo diegu. Bertan, gaztetxoentzako antolatutako ekitaldi eta jokoak kontatuko dizkizuegu. Gainera, umez gain, helduendako interesgarriak izan daitezkeen udaleku batzuen proposamena ere egingo dugu.

Zaldibarko 24 orduko
areto futbol txapelketa
gertu-gertutik

Gaur, astelehena, Zaldibarko 24 orduko areto futbol txapelketari buruz hitz egingo dugu Ander Arizaleta antolatzailearekin. Txapelketa gero eta indar handiagoa hartzen ari da, iaz 20 taldek jokatu zuten, eta aurten kopuru hori handitzea espero da. Aipatzekoa da ere, izena emateko epea hilaren 12an bukatzen dela.

TELE-ALBISTEAK

Uztailetik aurrera
'Musikaz gain' saio
berria ikusgai

Musikaz gain deituriko saioa berria estreinatuko dugu martitzenean, 22:35etan

AKETZ ZUBIA | ARRASATE

28 Kanalak 5. urteurrena bete du, eta hori ospatzeko gala bat antolatu zuten egunen Tolosako Fronton jatetxean. 28 Kanala, Euskarazko Tokiko Telebisten Elkartearen barnean dago eta aspalditik bere saio ezberdinak eskaintzen ditu Goienak. *28 Klip*, non aurkezleak talde eta kantuen xehetasun guztiak ematen dituen 28 abestiko zerrendari errepaso bat emanez. Bestea, *Walker*, mendi ibilbideak eta bertan aurkitu daitezkeen toki eta gauza bereziak erakusten dituen saioa.

'Musikaz gain'

Aipatutako bi saioei gehituta, uztailetik aurrera, *Musikaz gain* saio berria ikusteko aukera izango dute Goienako ikusentzuleek. Musikari gogokoena eszenatiketatik kanpo ezagutzeko saio aproposa. Aste honetako saioan Lauroba taldea gertutik ezagutzeko aukera izango dugu.

'Musikaz gain'
martitzena, 22:35

Egunen ospatutako galaren une bat. | GOIENA

ZORION AGURRAK



OÑATI
Lorea Lazkanoiturburu Palacios
Uztailaren 14an, 7 urte.
Zorionak, printzesa! Familia guztiaren eta batez ere DSI taldekoen partetik, ondo-ondo pasatu zure egun berezi honetan. Zazpi muxu handi-handiak etxeko neska zoragarriari.



ARRASATE
Iraia Loiti Iraola
Uztailaren 12an, 6 urte.
Zorionak, politxo! Zu bai zu neskatila handia! Karpeta prestatzen hasi... Jaso kiloka patxo potolo familia guztiaren partetik!




ARETXABALETA
Eider Arias Axpe
Uztailaren 12an, 5 urte.
Zorionak, *printzesita!* Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat familia guztiaren, baina bereziki Unai eta Ikerren partetik.



ARRASATE
Txiki
Uztailaren 12an, 44 urte.
Zorionak, tio Txiki! Ederto ospatu egun berezi hau. Txokomuxu potolo-potoloak loba Beñat, Maren eta etxeko guztien partetik. Tartaren zain egongo gara. Muxutxuek, *guapo!*



ARETXABALETA
Markel eta Maddi Alarcia
Markelek uztailaren 11n, 2 urte eta Maddik abuztuaren 22an, 5 urte. Zorionak eta patxo handi bana tia Kontxiren partetik.



BERGARA
Lander Nieto
Uztailaren 11n, 8 urte.
Zorionak, txapeldun. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat Maider, aita eta amatxoren partetik.



OÑATI
Ane Sagastume Barrena
Uztailaren 10ean, 3 urte.
Zorionak, *mixintxo!* Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea eta muxu handi-handi bat danon partetik. Mua!



ARRASATE
Manex Muñoz Umerez
Uztailaren 10ean, 5 urte.
Zorionak, Manex! Oso ondo pasatu zure bosgarren urtebetetzean, txapeldun. Musu potolo bat etxeko partetik eta txokolatzeko beste musu potolo bat Istar, Andrea, Xabi, Eider, Naiara, Nerea eta Urkoren partetik. Jarraitu hain jatorra izaten!



ARRASATE
Nora Velasco Gomez
Uztailaren 10ean, 2 urte.
Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure egunian. Mila patxo familiaren partetik. Maite zaitugu.



ARETXABALETA
Eñaut Oskoz
Uztailaren 10ean, 10 urte. Zorionak, bihotz. Etxeko partetik.



OÑATI
Jon Ander Aramendi Otamendi
Uztailaren 9an, 32 urte. Zorionak, aittatxo! 32 belarri tirakada eta mila muxu potolo. Ondo-ondo pasatu eguna eta akordatu, neretako goxokiak eta amatxori gazta tarta gozo-gozua, eh?



ARETXABALETA
Oinatz Zabala Frutos
Uztailaren 9an, 5 urte.
Zorionak, *guapo!* Jada 5 urte bete ditu gure etxeko handienak. Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu asko, bereziki Iraide, aittatxo eta amatxoren partetik.



ETXEBARRI
Maddi Calvo Ugaldea
Uztailaren 9an, 3 urte.
Zorionak amama, aittaita eta tio Anderren partetik.



OÑATI
Alix Biain Ugarte
Uztailaren 9an, urtebete.
Zorionak, Alix! Urtetxo bat! Ondo-ondo pasatu eguna familia danen partetik eta patxo potolo bat.



BERGARA
Ekaitz Unamuno Marzan
Uztailaren 9an, urtebete.
Zorionak, Ekaitz! Lehenengo urtebetetzean belarritik tirakada bat eta mila zorion Julen, aittatxo eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Jone Aranburuzabala Loiti
Uztailaren 8an, 5 urte.
Zorionak eta patxo potolo-potolo bat etxeko partetik!



BERGARA
Maider Nieto
Uztailaren 8an, 6 urte.
Zorionak, printzesa. Ondo pasatu. Muxu handi bat aittatxo, amatxo eta Landerren partetik.



BERGARA
Maddi Lazkano Ezpeleta
Uztailaren 7an, 8 urte.
Zorionak, maillita! Zure urtebetzean primeran pasatuko dogu, badakizu... afaritxua, oparixak eta, zelan ez, belarrietatik zortzi tirakadatxo! Pila bat maite zaittun familia guztiaren partetik patxo mordo bat, printzesa!



ARRASATE
Julen Carrasco Navarro
Uztailaren 7an, urtebete.
Zorionak, maillita. Eskerrik asko urte honetan eman diguzun guztiagatik, muxu potolo bat aittatxo eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Marijo Muñoz
Uztailaren 7an, 37 urte.
Zorionak, potxola, familia guztiaren partetik! Nahiz eta beste urte bat gehiago bete, berdin jarraitzen duzu. Oso ondo pasatu eta besarkada potolo bat. Jarraitu horrelakoa izaten.



ANTZUOLA
Ainar Etxezarreta Mugica
Uztailaren 6an, urtebete. Zorionak, Ainar! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat aittatxo, amatxo, aiton-amonak eta osaba-izeben partetik.



OÑATI
Antonio Biain Biain
Uztailaren 6an, 83 urte. Zorionak, aittita, eta ondo pasatu zure eguna, zure bilobak eta familiaren partetik.



BERGARA
Ekaitz Curado Uzin
Uztailaren 6an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu Merendolan laguntxoekin urtebetetze eguna San Fermin bezperan, asko gustatzen zaizu-eta. Gizontxo bat eginda zare, eh! Zorionak etxeko guztien, baina batez ere Izar, Oier eta Elenen partetik. Gora San Fermin! Muxu potolo-potolo bat.




OÑATI
Sara Zubia Martinez de Albeniz
Uztailaren 5ean, 4 urte.
Zorionak, printzesa! Zelako handixa in zaran! Ondo pasatu urtebetetze eguna. Patxo potolo asko familia danen partetik, bereziki Unax, Mikel, Teo eta Urdin. Askok maite zaittugu!



ARRASATE
Vanessa Gomez Gala
Uztailaren 5ean, 30 urte. Zorionak, tia! Ondo pasatu zure egunean eta formal ibili. Patxo potolo bat.



BERGARA
Mikel Unamuno Andueza
Uztailaren 4an, 5 urte.
Zorionak, Mikel! Ondo-ondo pasatu zure bosgarren urtebetetze eguna. Muxu pila familia guztiaren, eta bereziki asko maite zaituen arreba Sararen partetik.



OÑATI
Odei Palacin Aldea
Uztailaren 4an, 5 urte.
Zorionak, Odei! Patxo handi bat etxeko danen partetik. Mua!



OÑATI
Andoitz Biain Gantxegi
Uztailaren 4an, 25 urte.
Zorionak eta ondo pasatu zure eguna, familiaren partetik.



ARETXABALETA
Igotz Gartziaetxabe Errasti
Uztailaren 4an, 6 urte.
Zorionak gure etxeko mutilari! Txoko marrubizko patxo handi bat etxeko danen partetik, bereziki Unax, Malen eta Ane.



ARRASATE
Oihan Loiti Iraola
Uztailaren 2an, 9 urte.
Zorionak! Segi horrela, *guapeton!* Jaso kiloka patxo potolo familia guztiaren partetik!



OÑATI
Amaur Arregi Markuleta
Uztailaren 1ean, 2 urte.
Zorionak, Amaur! Dagoeneko gure etxeko txikitxuak bi urte bete ditte! Patxo pila bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Lurdes Otxoa eta Asier Leturiaga
Lurdesek ekainaren 26an eta Asierrek ekainak 29an. Zorionak, bikote! Ondo ospatu duzuela badakigu, baina muxu eta besarkada handi bat familia guztiaren partetik.

JAIOTAKOAK



Aimar eta Getari Tabares Lerma
Osintxu. 2.700 kilo eta 2.450KgKilo. Uztailaren 3a. Gurasoak: Mikel eta Sonia. Argazkian, Ama eta aitarekin.



Maddi Agirreazaldegia Latasa
Zarautz. 2,530kilo. Ekainaren 29a. Gurasoak: Ainhoa eta Iñigo. Argazkian, Maddi eta Ainhoa bertsotan. Orain Maddiren txanda.



Markel Barandiaran Otxoa
Aretxabaleta. 3,680 kilo. Ekainaren 26a. Gurasoak: Eider eta Iker. Argazkian, Markel aitaxo eta amatxorekin.



Paula Rodriguez Rodriguez
Eskoriatza. 2,900 kilo. Uztailaren 5a. Gurasoak: Blasa eta Diego. Argazkian, Paula Arturo eta Ines aitaita-amamekin.



Aiora Tamayo Kortabarria
Arrasate. 2,900 kilo. Uztailaren 5a. Gurasoak: Garbiñe eta Dani. Argazkian, Aiora amaren besoetan.

BABESLEA

210eko deskontua familia ugarietzako Arropa eta zapatetan

tipi tapa
Oinetakoak
Arropa
Jostailu hezigarriak

Otalora Lizentziaduna 25
ARRASATE
Tel.: 943 79 17 47
tipitapa@hotmail.es

Jarraitu gaitzazu
Facebooken:

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	* Aretxabaletako elizatea	Mortuko gune hezea	Bihia, alea
	Hitza, berba	Lohitasuna	Gizon izena
	Gizon izena		
	Har ezazu!		
Sortu	Txori mota		
Erosi eta kanpotik ekari	Eduki neurri zaharra		
Miresmenaz			Kasik
Kanadako probintzia			Errepika
			Oinarritzko edaria
Kontso. bikoitza	Guri, da		
Mertxika	10		
			Ez du entzuten, sor

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

R	O	S	V	X	V	U	L
U	G	I	V	Z	L	L	
V	B	O	L	I	N	V	M
V	I	Z	V	R	I	M	
U	L	V	L	R	O	P	S
V	N	I	R	V	L	V	
R	V	S	E	Z			
V	S	V	L	O	S		
G	O	V					

BILA-BILA 7

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

ESKER ONA

Tere Irazabal Gorosabel
Miguel Galdosen alarguna

Oñatin hil zen 2012ko uztailaren 1ean, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan, uztailaren 14an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan ospatuko da.

Oñatin, 2012ko uztailaren 9an.

ESKER ONA

Pantxika Igartua Arruti

Bergaran hil zen 2012ko uztailaren 5ean, 98 urte zituela.

*Inork badu zerua irabazita, hori zeu zara.
Beti izango zara gure bihotzean.*

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2012ko uztailaren 9an.

AI, ENE!

Denborak eta bizitzak, ez dute errukirik

Gogoratzen Brandon, Kelly eta Dylan? Duela hogeitun urte nerabeen idoloak, egun itxura hau dute. Non daude orain orduko hasperenak? www.vertele.com



AHOBERO

"Ikastera bueltatuko naiz, petankan arizetik ezin daiteke bizi"

JOSE GOMEZ | PETANKA JOKALARIA

Hamasei urteko gazte murtziarra Europako petanka txapelduna bihurtu berri da gazteen mailan eta entrenatzen duen taldeko presidenteak berriz ere ikasten hasteko gomendatu dio. Izan ere, petanka ez da futbola, ezta Gomez Cristiano Ronaldo ere. www.laverdad.es

EGURALDIA



Max. 23°

Min. 14°

Ipar isurialdean giro motela, behe-hodeiekin, eta hego-isurialdean giro eguzkitsua. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-07-09

HAMARREKOA

Gorka Otxoa Antzezpenaren esparru guztiak ukitu dituen donostiarraren azken filma, 'Lobos de Arga' beldurrezko komedia, ostiralean estreinatuko da gurean. Alemanian edo Korean ere ikusiko dute. | TXOMIN MADINA

"Antiheroi erregistroan ondo sentitzen naiz, ondo pasatzen dut"

1. Gizotso artean dabilen idazlea zara Lobos de Arga-n. Nola presatzen da horrelako paper bat?
Guztiak bezala, entseatzeko eta zuzendariak dioenari kasu eginaz. Bizpahiru aste egon ginen entseatzeko; saiatu ginen islatzen nola erreakzionatuko lukeen pertsona normal batek gizotsoen artean.

2. Dardarak eta barreak uztartzeak ez dirudi erreza...
Ez, gidoian ondo markatu behar da pelikularen norabidea. Zuzendariak, gidoilariak ere badenak, argi zuen eta emaitza oso lortuta dago. Argi genuen interpretazioan naturaltasuna nagusi behar zela; hortik komedia sortzen da. Ez da parodia bat.

3. Nola daroazu pelikula atzerrian ikusiko dela jakitea?
Nazioarteko jaialdietan jendeak barre asko egin du, eta sariak ere irabazi ditu. Ez genekien nola funtzionatuko zuen Estatutik kanpo, eta sekulako sorpresa izan da.

4. Askorentzat Pagafantas izango zara luzaroan. Ondo eroaten den goitizena?
Ohore handiz daramat. Sekulako esperientzia izan zen pelikula egitea eta niretzat, film ona da. Oraindik presente dago: jendeak lehengo ikusten du, edo hamargarrenez, aurrekoan esan zidaten moduan.

5. Zer dute antiheroiak?
Barregura sortzen dutela, komedietan oso ondo funtzionatzen dute. Ni gainera, erregistro horretan ondo sentitzen naiz, oso ondo pasatzen dut.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Sistema zikin hau aldatuko nuke"

"Hainbeste gauza egingo nituzke! Gauza bakarra egitekotan, daukagun sistema zikin hau aldatuko nuke eta bankari ia guztiak kartzelara bidaliko, baita politiko gehienak ere. Ez dakit zein den sistemarik onena, baina argi dago honek ez duela funtzionatzen; beraz, aldatu egingo nuke".

6. Wikipedian, euskal umoristen zerrendan zaude. Horrelakotzat duzu zeure burua?
Ez, komedian zein drametan dabilen aktoretzat baizik. Umoreak pertsonaia sortzen du, gidoiak idatzi, telebistan kolaboratu... Ni horietan ez naiz oso eroso sentitzen.

7. Pertsonaietan sakontzen duzue aktoreok. Psikologia ikasketek laguntzen al dute horretan?
Bai, ez naiz damu psikologia ikasi izanaz; etekin handia ateratu diot. Egin ditut psikologia eta antzerki ikastaroak eta ariketa berberak dauzkate: pertsonak ezagutu, nortasunak...


8. Aktore lanetan aberasteko sartzen denak...
Bide txarra izango du. Oso lan eze-gonkorra da, bolada on eta txarrekin... Dirua irabazteko ez dadila inor sartu. Madrilen bada esaera bat dioena: "Aktorea zara? Bai. Zein tabernatan egiten duzu lan?".

9. Ez zarete gutxi Madril bizi zareten euskal aktoreak. Koadrila egina dagoeneko?
Bai, batzuk aurretik ere ezagutzen ginen: Miren Ibaruren, Barbara Goenaga... Baita tekniko, gidoilari edo zuzendariak ere. Hemen industriarik ez dago eta euskaldun asko gaude han.

10. Botatzen al dituzu faltan euskal dantzak?
Bai; Madrilera joan eta urtebetera utzi behar izan nuen. Batez ere jendea botatzen dut faltan, Kresala dantza taldeko sekulako koadrila.

BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



Alduntzin ala Aldundia?

Higgsen bosoiaren masa aurkitu omen dugu. Zer den hori? Ba, unibertsuaren formazioari buruzko nondik norakoak ulertzera iristea, noski; ez al zenekiten? Baina bitartean, gure hondakinen (ez zaborren) bilketa nola kudeatu behar dugun, idearik ere ez Aldundiko Ingurumen sailekoak! Atez atekorik ez dugu behar, alajaina; "barrura begiratzeko leihorik" ere behar ez dugun bezalaxe; (begira, www.zinez.net eta animatu.com). Bitartean Garoñari beste 7 urtez luzatu diote hiltzailea izan daitekeen bizitza. Baina, hori bai; hondakinak kalean ordubetez ikustearrekin hainbeste alarmitzen direnak, txintik ere ez! Klaro, Garoña ez da Euskal Herria; ez dugu konpetentziarik; Ala, jeltzale, sozialdemokrata eta neofrankisten amankomuneko amalgama alarmante hain ulergaitza, Gipuzkoako gobernantza hartzen ari den norabidea da? Izan ere, Ingurumen diputatuari aurkeztu dioten zentsura mozioak duen helburu bakarra da, egungo gobernu taldeari gobernatzen ez uztea. Gainera, martxan jarri berri den mintegi berriarekin... abertzale eta ezkertiar hauek kapaz dira gauzak ondo egiteko! Gazta zatitxo bat eta ardo gorri nafar pixkat, denon osasunerako; Eta hurrengo zutabea idazteko ordua iristen denean, ez dizuet galdetuko non egon zareten oporretan; zer moduz pasa dituzuen baizik.



Hipermerkatuak



zurekin

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

www.grupoeroski.es